

IÑIGO UZIN MONDRAGON TALDEKO PRESIDENTEA

"ETORKIZUNARI AURRE EGITEKO, ETENGABE ALDATZEN EGON BEHAR DUGU"

Taldeko buruak Fagor Etxetresnen erortzeari eta etorkizunari buruz erantzun du GOIENAn / 2

Iñigo Uzin, Mondragon Korporazioko presidentea, Olandixoko bulegoan astelehenean. XABIER URZELAI

Hiru ekoizleren txakolina dastatu ahal izango da zapatuan Arrasaten, Txakolin Egunean / 4

Arrasateko kultura taldeen epizentroa izango den Kulturolak 6.500.000 euroko kostua izango du / 8

Nafarroako Erreinuak gaztelu izan zen Atxorrotxen indusketak egingo dituzte abuztuan / 17

Lantegia egokitzeko lanen ostean, irailean hasiko du Gureak taldeak jarduera Bergarako Candyn / 19

SINADURAK

	ANA CARPINTERO / 19
	JON ETXEBERRIA / 6
	ESTEBAN IRUSTA / 27
	HORAZIO ARGARATE / 9
	AINZANE OIARBIDE / 40

Espaloia antzokiak udazkenean hasiko du jarduna, eskaintza egonkortzeko helburuarekin / 23

puntuak Edoskitzearen kultura, apurka, sendotzen doa

+ Aitzole Araneta sexologoa, transexualitateaz

T-ROC BERRIA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoas etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



T.M/M.A ARRASATE

2016ko abuztuan hartu zuen Iñigo Uzinek (Azkoitia, 1960) Javier Sotilek utzitako tokia. Ordutik hona, Mondragon Korporazioko presidentea da. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, bere ibilbide profesionala Danobat Group-i lotuta dago. Finantza zuzendari hasi zen makina-erreminta sektorean diharduen taldean eta ondoren egin zen Giza Baliabi-deetako zuzendari. 1998an Danobat kooperatibako zuzendari kargua hartu zuen eta geroago, 2012an, Mondragoneko Makina Erreminta Saileko presidenteorde izendatu zuten, baita Danobat Group-eko zuzendari orokor ere. **Foro 400 delakoan, Mondragon Taldeko zuzendarien garapenerako foroan, digitalizazioaren erronkez jardun duzue joan den astean, Kur-saalen. Zer-nolako esperientzia izan da?**

Gai garrantzitsua da. Mundua asko eta azkar aldatzen ari da eta konpartitu gura genuen gure kooperatibak zertan ari diren, bai eta kanpoko puntako enpresak zertan ari diren jakin ere. Barruko zortzi kasu desberdin ikusi genituen eta kanpokoak hiru izan ziren, oso indartsuak eta oso interesgarriak.

Irautza digitalak, hamar urtean, gaur egungo lanen erdia desagerraraziko duela diozu. Mondragon Taldeko enpresak ondo prestatuta daude erronka horri aurre egiteko? Prestatzen ari gara; ez dakit datuak horiek izango diren edo ez. 2020rako petrolio bukatuko zela ere iragarri zuten, eta ez da horrela, baina argi dagoena da mundu digital honek aldaketa sakonak ekarriko dituela, lanpostu asko desagertu egingo direla eta beste batzuk sortu. Argi dagoena da beste prestakuntza mota bat duen jendea beharko dugula eta prestatu egin beharko dugula horretarako.

Mondragon Unibertsitateak klabe horretan dihardu lanean enpresek behar dutenari ondo erantzuteko? Bai. Alde batetik, gure unibertsitatea dago; bestetik, gure kooperatibak ere bai; eta, azkenik, pertsonak. Izan ere, pertsona barik ez dago ezer egiterik. Kontziente izan behar dugu eta esfortzu guztia ipini behar dugu trantsizio hori susto barik egiteko. Oso zaila da esatea zelan aldatuko den guztia, baina gertu egon behar dugu, bai talde bezala, baita kooperatibek ere.

"Gauzak gaizki badoaz, neurriak azkar hartu behar dira"

IÑIGO UZIN MONDRAGON KORPORAZIOKO PRESIDENTEA

Mondragon Korporazioko presidente karguan bi urte beteko ditu abuztuan Iñigo Uzin azkoitiarrak. Gaur egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez jardun du, besteak beste

Etorkizuneko Mondragoni buruzko hausnarketa egin zenuten 2016ko kongresuan. Finkatuta daude etorkizuneko Mondragonen ildo nagusiak?

Kongresu hartan, oso ondo finkatuta gelditu ziren helburuak, baina helburuak finkatzea erraza da, eta lortzea, ez horrenbeste. Gainera, gauza batzuk ez dira sekula lortzen, beti dagoelako aldatu beharra, eta horretan ari gara. Mundu digitalak eragina dauka, eta, gure helburuak berdinak izan arren, egokitze prozesua aldatu egiten da. Etengabe aldatzen egon behar dugu.

Zeintzuk dira, nagusiki, ildo horiek? Kooperatiben arteko lankidetzak da horietako bat. Mondragon negozio desberdinez osatzen den talde handi bat da eta negozio horiek beste enpresa handiago batzuekin lehiatzen ari dira. Banaka, ez dugu gure lehiakideen tamainarik, baina elkarrekin lan eginda izan ditzakegu abantaila batzuk. Lankidetzak erostetarako, finantza arloan, baita merkatu eta sektore berriak bilatzeko ere. Zer esanik ez, Ikerketa eta Garapenerako proiektuetan. Arlo horretan zentro

"KOOPERATIBEN ARTEKO LANKIDETZA DA ETORKIZUNEAN LANDU BEHARREKO ILDO NAGUSIA"

indartsuak ditugu eta 2.000 pertsona ari dira lanean. Kooperatiben arteko lankidetzak ere ezinbestekoa da pertsonak formatzeko orduan edo enpresa batean arazoak daudenean. Urrats garrantzitsuak ari gara egiten zentzu horretan. Beste oinarritzko ildo bat da Mondragon nazioarteratzea gaur egungo egoerara egokitzea. Kontuan izan gure salmenten %70etik gora kanpora egiten ditugula, 142 planta ditugula kanpoan eta merkatuan gauzak asko aldatu direla. Merkatu berriak ari dira sortzen eta horrek eskatzen du nazioartekotzea egokitzapen fase batean sartzea. Azkenik, kultura aldeetik ere lan egin beharra dago, gure balioetan sinisten baitugu. Balio kooperatiboak eta efizientzia ez dira kontrajarriak eta balio kooperatibo horiek lagundu behar dute kooperatibak lehiakor izaten.

2016ko kongresu hartan zenion kooperatibek solidarioak izan behar dutela, baina ez bakarrik kooperatibak oker edo zailtasunetan daudenean.

Gure kooperatibak solidario izan dira eta argi ikusi da eurretako batek arazoak izan dituen nola erantzun dugun. Hori oso ondo dago baina askoz hobe da arazorik ez dagoenean laguntzea. Batera gauzak egiten, produktu berriak ateratzen, elkarlanean.

Hobeto prestatuta dago gaur egun Mondragon, Fagor Etxetresnen erortzearen moduko arazoei aurre egiteko?

Dudarik Gabe. Fagor Etxetresnen gaiarekin argi gelditu zen horrelako egoera batek taldean eragin handia duela. Ikusi besterik ez dago zenbat diru bideratu zen Fagor Etxetresnei laguntzeko eta zenbat diru galdu zen. Ez hori bakarrik, enplegu aldetik ere arazoak ekarri baitzuten. Denok ikasi dugu inor ez dagoela libre eta ez dagoela erabateko ziurtasunik. Arazoak edozein momentutan etorri daitezke, eta Mondragon Taldeak baditu mekanismoak laguntzeko, nahiz eta argi dagoen laguntza hori ezin dela inoiz infinitua izan. Kooperatiba batek arazoak baditu, berak izan behar du aurre egiten lehena, berak izan behar du lehena neurriak hartzen. Denon laguntza izango du, noski, baina berak izan behar du kontziente hartu behar diren erabakiez.

Bide batez, oraingo astean jakin dugu Cata badoala, Edesa Industrialekin porrot egin eta zeukan

"DENOK IKASI DUGU INOR EZ DAGOELA LIBRE ETA EZ DAGOELA ERABATEKO ZIURTASUNIK"

zorraren %10 bakarrik ordainduta. Ze deritzozu?

Catak oso negozio zaila hartu zuen, Espainia aldean sektorea asko jaitsi zelako, bai merkatuari dagokionez eta baita sektoreari dagokionez ere. Catak hartu zuen erronka oso zaila zen.

Errealista iruditzen zaizu Catak egin zuen aurreikuspena, lehengo Fagor Etxetresnei segida emateko?

Orain argi ikusi da ez zirela aurreikuspen errealistak, hori nabarmena da. Egia da, baita ere, horrelako proiektu bati aurre egiteko, optimista izan beharra ere badagoela.

Fagor Taldeak berreskuratu egin du Fagor marka. Posible ikusten duzu etorkizun hurbilean Fagor markarekin etxetresnaren bat, Fagor Etxetresnetan errentagarrienak zirenak, esaterako, fabrikatzea Debagoiengan?

Ez dakit zein aukera dauden, ez diot aukera handirik ikusten, baina ezinezkoa ere ez da. Gertatuz gero, ez litzateke txarra izango, baina gauza bat da zer gurako nukeen eta beste bat zer den posible eta zer ez. Beste Cata bat azaltzea emaitza bera izateko, ez litzateke ona. Horrelako proiektuek zorrak uzten dituzte inguruan.

Ordainduk eta Eskuratuk Mondragon Korporazioaren aurka jarritako demandaren epaiketaren ostean, zein sentsazioekin gelditu zarete?

Esango nuke prentsak berak nahiko ondo jaso zuela nola joan zen epaiketa, eta gura duguna da lehenbailehen jakitea. Hori ez da gure lana, eta azkar bukatu gura genuke.

Zer espero duzue?

Lasai gaude alde horretatik. Guri egotzitako horren ezer ez dagoelako.

Fagor Etxetresnen erorketatik, ostean etorri den guztitik, zein ikasgairekin geratzen da Iñigo Uzin eta taldea bera?

Negozio batek azkar ematen ditu sintomak eta hori ikusten denean kooperatibak azkar hartu behar ditu neurriak. Zenbat eta beranduago, okerrago da. Neurriak azkar hartzea da lehen ikasgaia, egin behar diren doikuntzak lehenbailehen egitea. Bestetik, negozio bakoitzak erakutsi behar du prest dagoela egoerak eskatzen duen esfortzu hori egiteko. Egia da Mondragonek badituela laguntzeko instrumentuak, baina errekurso horiek kooperatibek ipini



Iñigo Uzin, Mondragon Korporazioko presidentea. XABI URZELAI

tako errekurtsioak dira eta hori kontuan hartu behar da.

Fagor Etxetresnetako langile gehienei irtenbidea eman zaie, birkokapenen bitartez edo bestelako soluzioen bidez?

Kasu puntual batzuetan izan ezik, bai. Azken finean, 1.900 pertsona birkokatzea ez da erraza eta esango nuke arazo horri irtenbide ona eman zitzaiola. Askok erretiro aurreratua hartuta daude eta beste asko, birkokatuta. Mondragonek gai honetan egin duena, edo, hobe esanda, Mondragoneko kooperatibek egin dutena txalotzekoa da.

Bi urte hauek, eta, bereziki, azkena, zelakoak izan dira Mondragon Taldearendako?

Esan beharra dago egoera ekonomikoa azken urteotan hobea dela eta horrek eragina izan duela. Ondorioz, azkenengo

"EROSKIREN URTE ZAILAK ATZEAN GELDITU DIRA, ZORRA EZ BIRFINANTZATZEKO MOTIBORIK EZ DAGO"

urteak onak izan dira, emaitzak onak izan baitira bai industria arloan eta baita finantzetan ere. Laboral Kutxaren eta Lagun Aroren emaitzak oso onak izan dira. Banaketa sailak ere, Eroski barruan dagoelarik, zenbaki positiboekin bukatu du. Gustura gaude, egia esan, industria mailako eskabidezorrorak egoera ona markatzen baitu. Adierazle horren emaitza azken bi urteetan zenbaki onetan dabil, eta, guretzat, oso adierazle ona da etorkizun hurbilean egoera zelakoa izango den jakiten laguntzen baitigu. Beti, kontuan hartuta, mundua oso aldakorra dela eta gauza txiki batek egoera erabat aldatu dezakeela. Oraingoz, baina, pozik gaude.

Eroski Taldea ari da errekupeztatzen, urte zailak izan ostean?

Urte zailak atzean geratu direla esango nuke, bai. Birmoldaketa sendoa egin du, hain onak ez ziren arloak salduz. Zentratu da bere negozio onetan eta modelo berria arrakasta izaten ari da, bai salmenta aldetik, eta bai kalitate aldetik

ere. Eroskik oso garbi du bere proiektua eta garrantzitsua izango da makro-kontsumoaren bilakaera. Jendeak gehiago gastatzen badu, espazio gehiago izango du. Oso sektore lehiakorra da, eta Eroski ondo defendatzen ari da. Proiektua du, eta hori ona da.

Bankuekin duen zorra birfinantzatu da?

Ez dago motiborik ez lortzeko. Ez dago motiborik; izan ere, Eroskik bere konpromiso guztiak bete ditu, bere plana hobetzen ari da, eta ez dago motiborik ez lortzeko.

Eta badago motiborik pentsatzeko kooperatiba izateari utziko diola?

Kooperatiba izaten jarraituko du, zalantza barik.

Makina-erremintaren sektoretik zatoraz. Bereziki osasuntsu da Euskadiko sektorea?

Makina-erreminta azpisektore asko dituen sektore bat da eta batetik bestera emaitzak aldatu egiten dira. Dena den, esango nuke azken urteak onak izan direla. Mondragon Taldeko enpresak, esaterako, ondo dabilta. **Aurtengo Bilboko biurteko azoka azken hamar urteetako onena izan da. Ze adierazten du horrek?**

Bilboko azoka bereziki dago enfokatuta Espainiako merkatura, eta Espainia azken urteetan oso baxu ibili da. Orain ari da errekupeztatzen, maila normalean dago eta eragin positiboa ikusten da. Horregatik izan da azoka ona aurtengoa. Makina-erremintan ari diren Mondragon Taldeko enpresen merkatua %90ean kanpoan dago, eta ez Espainian. Horregatik, guretzat, askoz garrantzitsuagoa da Alemania, Ameriketako Estatu Batuak edo Txina nola dauden ikustea.

Trump-ek Europako autoei ezarri nahi dizkien muga-zergekek zelan eragin diezaiokete Mondragoni, kontuan izanda automozio sektorean kooperatiba indartsuak daudela?

Ez da erraza erantzutea, egun batetik bestera aldatzen dira eta gauzak. Eragin matematikoa jakitea oso zaila da, baina gauzak argi ez izatea bera, ezegonkortasun hori bera da kalte handien eragiten duena. Inbertsioak non eta nola egin jakiteko, egoera honek ez du batere laguntzen eta horrek, esaterako, makina-erremintan eragina du. Ez dakigu zer gertatuko den. Egia da gudan eragin handirik, oraindik, ez duela izan.



Laboral Kutxako Joseba Madariaga eta Xabier Egibar, txostenarekin. GOIENA

Ekonomiak %2,9 gora iaz, eta %3ko igoera aurreikusita aurten

Laboral Kutxaren txostenaren arabera, enplegua %0,3 hazi zen iaz eta langabezia tasa 1,3 puntu jaitsi zen

J.B. ARRASATE

Ekonomiaren iazko bilakaeraren eta 2018rako aurreikuspenen berri eman zuen atzo Laboral Kutxak. Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinak %2,9 egin zuen gora iaz, eta, horren ondorioz, lan merkatuaren bilakaera positiboa izan zen Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Hala, 2017ko txostenak jasotzen duenez, enplegua %0,3 hazi zen EAEn. "Adierazgarrikeraginkorra" den langabezia tasari dagokionez, Laboral Kutxaren txostenak dio

2017an %11,3koa zela, 2016an baino 1,3 puntu txikiagoa.

Urte bukaerarako aurreikuspena

2018rako aurreikuspenei dagokionez, Laboral Kutxak dio hedapen faseak jarraitu egingo duela, urteko bigarren seihilekoan moteltzea espero bada ere. "Eskura dugun informazio ekonomikoa arabera, %3 inguruko hazkunde-tasak aurreikusitak ditugu Espainian, EAEn eta Nafarroan [...]. 2019an %2,5 inguruko igoera aurreikusten dugu EAEn".

13.681 langaberi lan mundurako laguntza eman die Garapen-ek

2017ko memorian jasotzen denez, EAEn 3.030 lanpostu kudeatu zituen iaz Garapen Agentzien Euskal Elkarteak

J.B. ARRASATE

Garapen Agentzien Euskal Elkarteak aurkeztu berri duen 2017ko memorian jasotzen denez, iaz, 13.681 langabek lan-munduan txertatzeko laguntza jaso zuten. Era berean, Garapen elkarteak berak 2017an zehar egindako gaineko datu interesgarriak ere eman ditu: "3.030 lanpostu kudeatu genituen, 1.323 enpresa eratu, 1.841 lanpostu sortu eta 3.599 enpresaren eta 2.952 saltokiren beharrei erantzun diegu".

Garapen-en arabera, langabezia tasa murrizten joan den arren,

oraindik ere langabe asko dago batik bat trebakuntza gutxiko pertsonen artean: "Langabezia hori kroniko bihurtu ez dadin proiektu integralak behar dira eta horretarako aintzat hartzen dira enpresen behar eta eskaera zehatzak". Helburu horren adibide dira, esaterako, Garapen-ek abiatutako Txertatu Merkatuan eta Kokatu egitasmoak.

Bestalde, gazteak lan mundura hurbiltzeko eta talentuek ihes egin ez dezaten, ikastetxeekin batera landutako Teknogazte 4.0 egitasmoa ere jarri zen martxan.



Murgialdai txakolindegiko Aritz Galdos 2015ean Arrasaten izan zen Debagoieneko Txakolin Egunean. GOIENA

Bertako txakolina dastatzeko aukera

Debagoieneko V. Txakolin Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Arrasaten. Bailaran ekoizten diren eta Getariako jatorri izena duten hiru txakolin gozatzeko eta erosteko eta Eusko Labeleko hegaluzea dastatzeko aukera izango dute herritarrek

Josu Bilbao ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapenerako Elkartek eta Arrasateko Udalak elkarlanean antolatu dute biharko Debagoieneko V. Txakolin Eguna. Hileroko baserriarren azokarekin batera, bertako txakolina dastatzeko aukera aparta egongo da bihar, Seber Altube plazan.

Gutzira, ibarreko hiru txakolin-ekoizle izango dira azokan. Oñatiko Murgialdai eta Upaingoa eta Arrasateko Bedoña auzoko Otxia. Horrez gain, 12:00etatik aurrera, Eusko Labela duen hegaluzea dastatu ahalko dute herritarrek. Hegaluzeko pintxoak parrilan prestatuko dira eta Arrasateko Eskubaloï Taldea arduratuko da horiek banatzeaz.

500 hegaluzeko pintxo banatuko dira, 1,5 eurotan bakoitza.

Murgialdai

Oñatiko Murgia auzoan ekoizten du txakolina Aritz Galdosek. "Nik ezagutu dudan urterik okerrera izan zen iazkoa. Orokorrean, Debagoienean, txarra izan zen. Apiril bukaeran izotza egin zuen eta horrek uzta baldintza-

tu zuen. Produkzio gutxi ateratu, eta dagoeneko bukatu egin zait. Hala ere, bi kutxa gorde nituen bihar Arrasatera eramateko", dio Galdosek.

"Hurrengo urtera begira, ale asko irten dira mahastietan, baina egia da eguraldia hezea izan dela, eta, horrela, gaitzak errazago sortzen dira. Hala ere, uzta txukuna ateratzeko itxaropenarekin gabiltza", gaineratu du oñatiarrak.

Bestalde, biharko ibarreko txakolina aldarrikatzeko egun aproposa izango dela azaldu du Galdosek: "Gure eskualdeko Txakolin Eguna aldarrikapena egiteko modu polita da. Debagoienean txakolina badago eta historikoki egon izan da. Berreskuratu nahian gabiltza bailaran egon zen txakolingintza eta mahasti-zaintza. Hori da egun horrek duen garrantzitsue-na, Debagoieneko txakolin propioa aldarrikatzea".

Otxia

Arrasateko Bedoña auzoan ditu Felix Etxagibelek mahastiak: "Ondokoei eta albokoei hainbeste saiitzen garen gauzak egitea beti da pozgarria. Debagoienearrak txakolinzaleak gara, baina, batez ere, hemendik kanpo gabiltzanean. Hala ere, aurreko urteetatik salmentek gora egin dutela aipatu behar da".

Urteetan izendapenetik kanpo egon ostean, bailarako txakolin ekoizleek, borrokatu ostean, Getariako txakolinaren jatorri izenaren barnean sartzea lortu zutela gogorarazi du Etxagibelek: "Izendapen bakoitzak mahats mota batzuk ditu onartuta, hondarribi zuria izaten da %95. Esperimentalki egin daitezke batzuk, baina produkzio aldetik araututa daude mugak, eta horiek

bete behar ditugu Getariako Txakolinaren jatorri izenaren barruan egoteko".

"Iaz izozteek kalte handiak sortu zituzten eta aurten euri asko botatzen ari da. Horiek lore garaian kalteak ekartzen dituzte. Hezetasunaren borroka oso borroka latza da, gainera. Ni mahasti ekologikoan ibiltzen naiz, eta oso mugatuta nago, mahats barruan sartzen ez diren produktuak bakarrik erabili ditzakedalako. Beraz, uzta zati bat galdu egingo dela onartu behar izaten dut", azaldu du Otxia txakolinaren ekoizleak.

Upaingoa

Bihar, bi txakolin mota eroango dituzte azokara Upaingoa-ko arduradunek. "Upaingoa, 2016ko uzta txakolina, alde batetik, eta Upainberri deitu dioguna, 2017koa, bestetik. 2016ko txakolina mahairako izango litzateke gehiago, ardo zuriaren antz handiagoa du. Upainberri, berriz, freskoagoa izango litzateke, urtekoa. Egia da iazko uzta urria izan zela, eta arazoz bete. Hala ere, gustura gaude emaitzarekin", dio Jose Mari Arzelusek.

Mahastiak mahats-alez beteta daudela eta uzta polita izan daitekeela nabarmendu du Arzelusek: "Aurten ondo loratu zuen mahatsak, eta nahiko ondo datorrela esan daiteke. Hemendik aurrera egingo duen eguraldiari begira egongo gara; hala ere, egia da gehiegizko hezetasunak kalte egin diezaiokeela".

IAZKO TXAKOLIN UZTA URRIA IZAN ZEN OROKORREAN UDABERRIKO IZOTZTEK ERAGINDA

Jendea "ondo erantzuten" ari da Jardunaldi Gastronomikoetan

Maialde, Lasa, Santa Ana, Goiko Benta eta Hilarion jatetxeek menu bereziak emango dituzte, 29ra arte

J.B. DEBAGOIENA

Pasa den asteko egubakoitzean ekin zioten Debagoieneko 29. Jardunaldi Gastronomikoari, eta, uztailean 29ra arte, sasoiko eta bertako produktuekin osaturiko menu bereziak eskainiko dituz-

te bailarako bost jatetxetan. Hain zuzen ere, 29. aldi honetan, Arrasateko Hilarion eta Santa Ana, Bergarako Lasa, Elgetako Maialde eta Oñatiko Goiko Benta jatetxeak ari dira ekimenean parte hartzen.

Aurtengo edizioko menu guztiek, entsalada bereziak eskaintzeaz gain, hegaluzea izango dute protagonista nagusi. Horrez gain, munduko beste produktu batzuei ere egingo diete erreferentzia.

Bost jatetxe hauetan menu bereziak eskaintzeaz gain, jardunaldietan, *Top esperientzia* gisa ezagutzen diren bisita gidatuak egiteko aukera egongo da. Oñatin, Txokolatearen Interpretazio Zentroan eta Gomiztegi baserrian egingo dira bisi-

tak; eta Leintz Gatzagan, Gatz Museoa.

Goiko Bentako arduradun Miren Maiztegi GOIENARI esan dioenez, harrera ona izaten ari da ekimena: "Oso pozik gaude. Garai honetan, gainera, turistak dabilta eta erantzuna ona izaten ari da. Jardunaldi gastronomikoak neguan izaten direnean, bertakoak gerturatzen dira gehiago. Gainera, aipatu behar dut bertako jatetxeen arteko harremana sendotzeko balio dutela jardunaldiek".

AHTaren Bergarako lotuneko 2. sektorea esleitu du Adif-ek

Adif-ek 183 milioi eurotan esleitu ditu AHTaren Arrasate-Elrorrio-Bergara zatiko lanak. EAEko hiru hiriburuak lotuko dituen sektore honek 5,24 kilometro ditu, eta lau tunel eta bi zubibide. Dragados, Tecsá Empresa Constructora, eta Construcciones Amenabar enpresei esleitu zaie obra, eta bukatzeko 30 hilabete izango dituzte.

GUTUNAK

Eskerrrik asko guztioi!

ITZIAR USANDIZAGA GALARRAGA

BERGARAKO PENTSIODUNEN ASANBLADAREN
IZENEAN
BERGARA

Larunbatean, uztailearen 14an, urtarrilean hasitako elkarretaratzeei manifestazio jendetsuarekin amaiera eman zitzaion. Duintasunez eskubideak aldarrikatzen ibili garen guztioi eskerrrik asko!

Bergarako Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, manifestazioa aurrera eramateko utzitako baliabideengatik.

Ondo pasa uda eta udazkenean berriz bueltan izango gara indartsu eta kementsu.

Pentsiodunak aurrera!

Griezmann Madrilen jaiotakoa ei da

MIKEL ARANTZABAL

EIBAR

Futboleko jokatzeko ere Madrilen ikasi du: Atleticon. Aurretik ez zen Realean ibili, ez zituen 202 partiduko jokatu eta 52 gol sartu. Eta matea hartzen Madrilen ikasi du; Realean zegoenean ez zuen materik hartzen Buenorekin, Ifranekin eta Castrokekin batera. Antonio Griezmann.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Magma

JON ORDOÑEZ GARMENDIA

HTTPS://LABUR.EUS/DAODY
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Espainiako Gobernuko Memoria Historikoko zuzendaria, Fernando Martin Lopez, EHUren Udako Ikastaroetan izan zen atzo, uztailearen 18an, eta, halako egun seinalatuan, gogorazi zuen 1936an Espainiako Errepublikaren aurka altxatu zirenek bete zituzten hobiak hustea ez dela zauri bat irekitzea, ixtea baizik. Duela 82 urte altxatu ziren Espainiako Errepublikaren aurka, eta, gezurra badirudi ere, esan eta borrokatu egin behar dira oraindik duela urte asko bideratua egon behar zuten bidegabekeriak.

Aste honetan PPko presidentea bozkatuko dute Madrilen, eta han lehiatuko diren bi hautagaietako batek duela gutxi berriz gutxietsi ditu euren senideen bila dozenaka urte daramatzatenak. Pablo Casadok 2008an esan zuen ezkerreko jendea "zaharra" dela, beti ari delako "aitonaren gerran eta ez dakit noren hobian pentsatzen". Duela gutxi berriro gutxietsi ditu "duela ehun urte Espainian gertatu zenaz edo hobotik nor atera behar den hitz egiten dutenak".

Duela 82 urte hasi ziren gerra bat irabazten Casadoren parekoak, eta garaipen hori urtez urte, legez lege eta lerrobuz lerrobuz luzatzen eta errepikatzen dute, jazarpena normalizatuz. Eta,

1936ko azpiratzea erreproduzitzeaz gain, German Rodriguezen hilketan izan den inpunitatea salatu dutenen kontrako auziak erakusten du frankismoaren magma gora datorrela. Jakinak diren gauzak gogoratzeaz gain, politika egitea beharrezkoa da horregatik.

Autonomia

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/HNI7H
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ni lako gidariak bide itsuetan sarraraztea erraz-erraza da. Ni lako gidariak orduero entzuten, analizatzen ditu albistegiak, eta gorroto ditu kopilotu aholku-emaileak: notiziak ganoraz jarraitzea eragozten diotelako bezainbat, kontrol absolutua daukala sentitzea gustatzen zaiolako. Ni lako gidariak go-za-tu egiten du GPSaren jakituriarekin, prezisioarekin; txoferra erratu orduko hura bide zuzenera itzularazteko duen gaitasunarekin. Hainbeste disfrutatzen du berarekin, ezen izen propioarekin zuzentzen baitzaio eta, egunerokoan, dudan dagoen bakoitzean ebokatzen baitu: "Beverly, o, Beverly, lan-eskaintza bat egin didate, eta ez dakit daukadana utzi ala ez. Norantz jo behar dut?".

Ordea, ni lako gidariak usterik gutxienean amaitzen du itteerarik bako estrata basaztuetan tratatuta ere; senak (eta kamino ertzeko sasiek) kontrakoa iradoki arren, GPSak handixe sartzeko

dioela eta aurrera: "Baina, Beverly, o, Beverly, zelan egin didazu hau?!". Bolantean joateak ez baitu, nahitaez, ibilgailua gidatzen zeu ari zarenik esan gura; Madrilen direkziopean funtzionatzen duen autonomia marko bat mantentzea eta burujabetza lortzea gauza bera izango ez lirakeen lez. Ordea, hain da landua, lortua, GPS-ak ematen digun kontrol sententzioa ze, nahinora segitzen diogula azkenean. Horrexegatik da hain erraza ni lako gidariak bide-itsuetan sarraraztea.

Erantzule

MIKELE LANDA

HTTPS://LABUR.EUS/RUOAK
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Ekintza ez du inoiz egikaritzen arinago, 'zer egin beharko nuke?' galdetzen duenak". *Minutuatarako irakurgaiak*, Herman Hessereren aforismo liburua ausaz zabaldu eta esaldi hau irakurtzean kolpatu nau nire baitako egiak. Seguruena denak ez zarete nirekin bat etorriko. Baina nik ez dut patuan sinesten. Arrazionalki gaiari buruz pentsatzen dudanean behintzat. Berbak ulertzean ondorioztatu dut nire aburuz horrela dela, erabakia hartuta dagoenean aldatzen dela errealitatea, hautua burutuko dela erabakitzen duen unean norberak aldatzen duela bere eta inguruko etorkizuna. Ez arinago, ezta beranduago ere.

Horrek daukan pisua kausitzean, "erabakigilea" dela benetan autore eta beraz

erantzule; eta ez dela derrigorrez ekintzaren egilea bera izan behar, orduan asmatzen dugu eta sartzen dugu ekuazioan patua. Errauskineren amabitxi magikoa balitz bezala. Zalantzak katigatuta eta erantzuletasunari sarrakio, gure etorkizunean aktiboki eragin ahal izateko ahalmena oparitzen diogu patuari. Edo beste hitz batzuekin esanda, egiten duguna egiten dugunentz ondorioak "patuak/jainkoak/karmak hala nahi zuelako" datozela konbentzitzen gara.

Errenkadan bertikaletik horizontalera igarotzen diren domino piezak legez, horrela doa logika gauzatzen: autoretza erabakiaren gain dagoela konturatu, erabakirik ez hartu eta patuari erregalatu erantzukizuna. Azkenik, patua, hots, eragingo diguten ondorio ororen atzean jartzen dugun ente ahalgutziduna, jaiotzatik gure alde egon behar dela sinetsi.

Esango nuke bereziki "aukeren belaunaldia" gorpuztu duela logika horrek. Nirea eta ostean etorri direnak. Gure etorkizunaren txatal ugari jasota, erabakita, emanda jaio garenok sinesten dugu gure aldeko patu horretan. Ondorioak, direnak eta ez direnak, ia denak eskubidetat ulertuz. Beraz, bai, ez dut patuan sinesten, arrazionalki gaiari buruz pentsatzen dudanean behintzat.

Post gehiago 6. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Makinen erreinua

Homo deus (Debate), Yuval Noah Arariren azken liburua, bazterak astintzen ari da mundu osoan. Etorkizuna nolako izango den asmatzen saiatzen da idazle israeldarra, eta, horretarako, giza espeziaren historian eta gaur egungo aurrerapen teknologikoetan oinarritzen da. Dioskunez, makinak izango dira munduaren jaun da jabe etorkizun hurbilean, adimen artifizialari esker. Makinei boterea emango dien elementu nagusia datuak izango dira (*big data*), eta, datu nahikoeekin elikatuz gero, makinak erabaki zailenak hartzeko eta mota guztietako aurreikuspenak egiteko gai izango dira. Gaur egun hasiak gara etorkizun horren lehen aztarnak antzematen: bakarrik gidatzen duten kotxeak, giza hizkuntza ulertzeko edo aurpegiak ezagutzeko gai diren makinak... Marketin arloan ere, gero eta gehiago, enpresak kontsumitzaileen portaerak aurreikusteko gai dira (*Consumer Analytics*) eta lan munduan beraien

KONTURATZEN AL ZARETE ZENBAT DATU EMATEN DIZKIEGUN GOOGLE MODUKO ENPRESEI?

abokatu, mediku, eta abar. Ez hori bakarrik, geure buruari buruzko datu nahikoa ematen badiegu, guk geuk baino hobeto ezagutuko dute makinek geure burua: nolakoak garen, zeintzuk diren gure gustuak, gure beharrak, gure sentimenduak, gure sendotasun eta ahultasunak... Horrela izanik, gaur egun gidatzerakoan inongo zalantzarik gabe GPSaren eskuetan jartzen garen moduan, etorkizunean gure erabaki garrantzitsuenak makinaren eskuetan utziko ditugula esaten digu: ze ikasketa egin, ze lanpostu aukeratu, nori botoa eman... eta baita gure bikotekidearen aukeraketa ere! Agian, urrunegi joan da idazlea bere aurreikuspenekin, baina momentu ona izan daiteke hausnarketarako: konturatzen al zarete zenbat datu ematen dizkiegun Google moduko enpresei eta ba al dakigu zertarako erabili nahi dituzten?

langileenak ere bai (*People Analytics*).

Noah Ararik diosku etorkizunean makinak gaur egungo lanpostu gehienak ordezkatzeko gai izango direla: gidari,

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Arrazoi gutxi

MIKEL P. ANSA

[HTTPS://LABUR.EUS/ICK8S](https://labur.eus/ick8s)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Europa: urbanizazio eder bat, kale zuzenekin, argi adimentsuekin, hiruzpalau metroko basa-burdinazko hesolekin, telebista kamerekin, ixten diren ateeekin, giltzarrapoekin, eta alarmekin. Urbanizazioko etxe barruan, erosokeria guztiak sobera; etxetik kanpora, debekua: ez sartu, ez ukitu, ez begiratu. Urbanizazio barrukoek, noranahi oporretan joateko aukera; kanpoan gelditutakoek, mugarik ezin pasatua. Eta telebistetan,

telebista guztietan, urbanizazio barrukoetan bezala kanpokoetan, Real Madril eta Bartzelonako futbol jokalaria; eta sare sozialetan, barrukoetan eta kanpokoetan, urbanizazioetako biztanleak irriz, osasuntsu, aseta, alai, auto ederrekin, jantzi gustagarriekin, oparotasun ugarian igeri, urbanizaziotik kanpo utzitakoen liluragarri.

Urbanizazio barrura ez sartzeko esaten diete barrukoek kanpokoek. Ez begiratu, ez ukitu, ez sartu. 2016an, urtarriletik uztailearen 15era, 242.000 pertsonak igaro zuten Mediterraneoan, urbanizazioa iristeko ametsari tiraka; iaz, 110.000

izan ziren epe berean; eta, aurten, 51.000. Lehendik ere ari zen eskuin muturra Europako urbanizazioaren ateak itxi nahian, baina Salvini ministroak eraman du muturrera migrazioen kontrako diskurtsoa eta praktika, salbamendu ontziei portuak itxita. Zer, eta errefuxiatuen eta migratzaileen mugimenduak aspaldiko txikienak direnean. Horrela funtzionatzen du beldurra, arrazoirik ere ez du behar; batez ere galtzeko asko dutenen artean, urbanizazioan bizi diren horien artean.

Post gehiago 5. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Aurten, Irlanda asko saldu dugu udako oporretarako"

BEATRIZ ALDAI ARRASATE BIDAIAK AGENTZIAKOA

Eneko Azkarate ARRASATE

Debagoiendarrak "bidaiariak eta bidaia zaleak" direla dio Beatriz Aldaik, bidaien saltzaile eta espezialistak. Udako oporrei begira, aurten "poztasun berezia" antzeman du herritarren partetik. Hogeitabat urte daroatza sektorean lanean.

Honako hau izaten da bidaia agentzietan jende gehien ibiltzen den sasoi?

Bai, bai; gehienek abuztuan hartzen dituzte oporrak, nahiz eta azkeneko urteotan igarri den jendeak urtean zehar ere asko bidaiatzen duela eta oporrak banatzen dituela urteko beste sasoi batzuetan. Aste Santuaz gain, zubiak direnean, urrian, udaberrian...

Denborarekin planifikatzen dira oporrak?

Bai, oro har, bai. Udarako, otsailean-eta hasten da jendea. Hala ere, azkeneko momentuan aritzen denik ere bada, eta horiendako beti daude eskaintzak azken



Beatriz Aldai, Arrasate Bidaiak Agentziaren kanpoaldean. AMAIA TXINTXURRETA

urtean, ze maioristek inbertsio handiak egiten dituzte *charter* hegaldietan eta saldu ez dituzten apur horiek salgai jartzen dituzte prezio onetan. **Bereziki asko bidaiatzen dute debagoiendarrek?**

Bai, bai, bidaiazaleak eta bidaiariak gara eskualde honetan. **Batez ere, zeren bila doaz bidaia agentzietara debagoiendarrak?** Denetik dago. Batzuek egunerokotasunetik ihes egin

nahi dute bakarrik, eta eguzkiaren edo lasaitasunaren bila doaz; beste batzuk leku berrien bila doaz; eta familia asko, seme-alaba nerabeekin-eta, nazioartera doaz, toki berrien bila: Costa Rica eta halakoetara...

Zein da aurtengo opor-leku izarra?

Irlanda asko saldu dugu; eta Madeira, Costa Rica, Ameriketako Estatu Batuak... Thailandia ere urtero saltzen da, Asiako herrialderik merkeena da.

2008ko krisialdia erabat gaindituta dagoela esan daiteke?

Gauzak aldatu egin dira eta krisi aurreko egoera ez da oraingoa, baina aurten, egia esatearren, igarri dugu poztasun berezi bat udako opor bidaiak kontratatzeke orduan.

Zertan eragin dizue bidaia agentziei Internetek?

Ohiturak aldatu diren dudarik ez dago, baina guk ere kontratatzen ditugu bidaiak Internet bidez, eta, hotelak bezala, baita etxe turistikoak ere. Kontua da guk bezeroaren aurrean erantzun egiten dugula, berme bat eskaintzen dugula, betiere, legearen barruan, gainera. Hogeitab urteko esperientzia dugu. Hori baloratzen duenik ere bada.

HAU BE BADOGU!

Pasarelan, alabari bularra ematen



Mara Martin izan da aste honetan sare sozialak hankaz gora jarri dituen modeloa. Izan ere, *Sports Illustrated* aldizkariak urtero antolatzen duen bikinien pasarelan, bost hilabeteko alabari bularra ematen ari zitzaion bitartean desfilatu du Martinek. Irudia ikustean, berehala, alde eta kontrako iritziak azaldu ziren Twitterren eta beste sare sozial batzuetan. Modelo estatubatuarrek azaldu zuen "bularra ematea eta edoskitzea normalizatzeko" egin zuela.

Emojien Munduko Eguna ere badago

Martitzenean, uztailek 17, ospatu zuten emoji edo sare sozialetako emotikonoen mundu eguna -japonieratik dator izena-. Lehen emojia 1990 bukaeran sortu bazen ere, sare sozialen sorrerarekin eztanda egin zuen horien erabilerak. Gaur egun, munduan gehien erabiltzen dena malkoak dituen eta aldi berean barre egiten duen ikonoa da. Horren ostean, begietan bihotzak dituen aurpegi irribarretsua da erabiliena.

'Egin' itxi zutela 20 urte igaro dira

Pasa den domekan izan da urtemuga. Izan ere, 1998ko uztailean 15ean, *Egin* egunkaria eta irratia itxi zituzten, eta, hori dela eta, *#Egin* traola *trending topic* izan da asteon:

@iruntxo: "Eta kolpatu gintuzten. Ausartu ziren. Baina altxa ginen. Eta ez dugu inoiz ahaztuko. Gaur, 20 urte. *#Egin*".

@arredeemo: "Duela 20 urte operazio politiko-judizial baten *#Egin20urte* itxi zuten Garzonek eta Aznarrek".

ITURRI ONETIK

Euskararen gaineko antzerki lana Debagoienara

Euskaltzaindiaren 100. urteurreneko ekitaldien artean, Tartean Teatroak eta Euskaltzaindiak ekoiztutako antzezlana estreinatuko dute azaroan Bilbon. Ondoren, herririk herri, Debagoienara ere helduko da: abenduaren 14an Oñatiko Santa Ana antzokira eta urtarrilaren 13an Arrasateko Amaiara. "3000. urtean, ospitale baten, azken euskalduna hil da, eta, harekin batera, milaka urtez biziraun duen hizkuntza: euskara". Horixe da *Ghero: azken euskalduna* lanaren abiapuntua.


ALBISTE IZAN ZEN

2010-07-24

Arrasateko Olandixoko tunela ireki zuten

Arrasateko mendebaldeko saihebidia Olandixoko tunelarekin (860 metro) ireki zuten oinezkoendako; asteburuaren ostean, astelehenetik aurrera, ibilgailuendako ireki zuten. Arrasateko zirkulazioa arintzeko egindako bi kilometro luzeko errepide berriko lanak 2018ko azaroan hasi zituzten eta 41,3 milioiko inbertsioa izan zuen. Arrasate eta Aretxabaleta lotzeko alternatiba bihurtu zen errepide berria.





Jovino Martinez Sierra enpresak egin du Kulturolako proiektu teknikoa, eta hori da izango duen itxuraren zirriborroa. JMS

Babes zabala Kulturolarentzat

Uztaileko osoko bilkuran onartuta geratu ziren Kulturola proiektua eta honen birgaitze lanak esleitzeko pleguak. Herriko kultur taldeen epizentroatik errealitate bilakatzeko lanak 6.500.000 euro kostatuko dira, eta 2021ean amaituta egotea espero dute

Xabi Gorostidi ARRASATE "Geldiezina da". Hitz horiek erabili zituen Hirigintza zinegotzi Ibon Arrupek Kulturola proiektuari buruz hitz egitera-koan.

Herriko hamazortzi eragile eta Udal Euskaltegia hartuko dituen eraikina izango da, eta 4.786 metro koadro erabilgarri izango ditu. "Txalotu egin nahiko nuke kultur eragileek izan duten jarrera eraikitzailea. Luze joan da, puzzle erraldoi bat adostu behar izan dugu denon artean, baina emaitza hobea lortzeko balio izan du".

Uztaileko osoko bilkuran onartuta geratu ziren Kulturola proiektua eta bertako birgaitze lanak esleitzeko pleguak. Babes zabalarekin, gainera: 19 boto alde eta bi abstentzio.

Eraikin berriak hainbat keinu egingo dizkio erlojuaren eraiki-

naren jatorrizko itxurari. "Leihotxikiak izango ditu, eraikin originalak bezala. Horrez gain, erloju mantendu egingo du eta sabaian argi-zuloak izango ditu, argi naturala sartu dadin".

Energetikoki iraunkorra izango da; izan ere, eguzki-plakak izango ditu, eta baita tenperatura ondo mantentzeko isolamendua.

Batzuk sartu, beste batzuk irten
Goikobalu abesbatza izango da eraikinari agur esango dion elkarteetako bat, Juan Arzamendi Musika Etxea izango da-eta

**LANEK IRAUN
BITARTEAN, BEHIN-
BEHINEKO LOKALAK
BEHARKO DITUZTE
ERABILTZAILEEK**

euren egoitza gutxi barru. Aldiz, Margo Taldea, Txorbela otxotea eta Udal Euskaltegia izango dira eraikin berritura mugituko diren eragileetako batzuk. Euskaltegiaren kasuan, eurena izango da lokalik handiena –884 metrokoa– eta Arimazubín utziko duten hutsunea Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialeko gela desplazatuek hartuko dute.

2021erako gertu

2019ko martxoan lanak esleitu- ta egotea aurreikusten du Udal Gobernuak. Horiek egiteko 16 hilabeteko epea onartu zen pleguetan; beraz, 2021ean erabilgarri izatea da asmoa. Lanek irauten duten artean, bertan dabilzan eragileentzat behin-behineko lokalak aurkitu beharko dira, eta, horretarako, libre dauden udal jabetzako lokalen zerrenda prestatzen ari dira.



Murala, erreka alderantz

Irudiko paretan handi horretan mural bat margotzea aurreikusitako diseinu teknikoa egin duen enpresak. Zein irudi izango den ez dago definituta, baina, aurrerago, botaketa edo lehiaketa bidez erabakiko dutela aurreratu zuen Ibon Arrupe Hirigintza zinegotziak.

Kulturola, solairuz solairu

Eraikin berriak 4.786 metro koadro erabilgarri izango ditu, hiru solairutan banatuta, eta 18 kultur eragileren egoitza izango da.

BEHEKO SOLAIRUA

- **SUDC eta Jai Komisiñua** 287 metro koadro, tailerrarentzako.
- **Zaldibarko Areto Futbol Txapelketa** 69 metro koadro, biltegia eta bulegoa
- **Loixe Zeramika**
- **Erraldoien eta Kilikien Konpartsa** 296 metro koadro
- **Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa** 326 metro koadro, entsegu lokalarentzat
- **Eskailera historikoa** 49 metro koadro

1. SOLAIRUA

- **Margo Taldea** 248 metro koadro, tailerrarentzako.
- **Santamas Komisiñue** 57 metro koadro, bulegoak
- **SUDC** 76 metro koadro, bulegoak
- **Bertso Eskola** 56 metro koadro
- **Doke Antzerki Taldea** 94 metro koadro, entsegu lokalarentzat
- **Udal Euskaltegia** 884 metro koadro

2. SOLAIRUA

- **Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea** 232 metro koadro, entsegu lokalarentzako.
- **Lore Gazteak dantza taldea** 290 metro koadro, entsegu lokalarentzako.
- **Portalo elkarte** 145 metro koadro, entsegu lokalarentzako.
- **Udalaxpe txistulariak** 73 metro koadro, entsegu lokalarentzat.
- **Sambamaña batukada taldea** 90 metro koadro, entsegu lokalarentzat.
- **Trikitixa Eskola** 239 metro koadro, entsegu lokalarentzat eta bulegoarentzat.
- **Gaiteroak** 51 metro koadro, entsegu lokalarentzat.
- **Ttakun txalaparta elkarte** 49 metro koadro, entsegu lokalarentzat.
- **Txorbela otxotea** 52 metro koadro, entsegu lokalarentzat.
- **Erabilera anitzeko gela** 67 metro koadro.
- **Harrera** 233 metro koadro.
- **Instalazio gela** 24 metro koadro.



Bizikleta bat, Arruena parkeko iturrian garbitzeko prest. XABI GOROSTIDI

Bizikletak garbitzeko gunea, Arruena parkean

Herriko txirindularien eskaria bete egingo da gutxi barru. Aurrekontu parte hartzaileetan bigarren aukera botatuena izan ostean, Udal Gobernuak bizikletentzako txorrota aurten jartzeko konpromisoa hartu zuen, eta jada esleitu ditu lanak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aurrekontu parte hartzaileetan boto gehien pilatu zituen bigarren aukera izan zen bizikleta garbitzeko gunea bat jartzearena –552 boto jaso zituen, aukera botatuenak baino 91 gutxiago–, eta Udal Gobernuak 2018an zehar proiektua errealitate bihurtzeko konpromisoa hartu zuen. Hala, laster hasiko dituzte horrelako gunea bat egokitzeko lanak, Zigorrola auzoko Arruena parkean.

Lau enpresa aurkeztu dira lanak egiteko –Excavaciones Arrasate, Construcciones Pera, Construcciones Frixi eta Construcciones Mularri–, eta, Udaleko zerbitzu teknikoek hala gomendatuta, Frixi Construcciones enpresak egingo ditu, 4.786 eurotan –BEZa barne–.

Horrez gain, instalazioa osatzeko, hainbat elementu erosiko ditu Udalak. Horien instalazioa enpresa adjudikaziodunak egingo du, adjudikazio prezioaren barne baitago elementuen instalazioa. Aurreikusten da 1.500

euroko gastua egingo duela Udalak elementu gehigarri horiek erosteko.

Fitxa sistemarekin

Bizikleta garbitzeko gunea berriak fitxa-sistema bidez funtzionatuko du, "kontsumitutako ura kontrolatzeko".

Honela dio erabaki horren inguruan Obra, Zerbitzu, Mantentze Lan eta Auzoen Sailak egin duen txostenak:

"Kontsumitutako ura kontrolatzeko Udalak nahi du bizikletak garbitzeko instalazioaren erabilera ez izatea dohainik; hau da, instalazioa erabili nahi duenak aurretik fitxa batzuk erosi beharko ditu. Gastutatako ura kontrolatzeko, instalazioak

BIZIKLETENTZAKO TXORROTAK AURREZ EROSITAKO FITXA SISTEMA BIDEZ FUNTZIONATUKO DU

edukiko du tenporizadore bat, martxan jarriko dena fitxen bidez. Tenporizadoreak seinale elektrikoa bidaliko dio elektrobula bati, zein zabalduko eta itxiko den, uraren irteeraren denbora kontrolatuz mahukan".

Aurrekariak

Aurrekontu parte hartzaileen aurretik, herritar talde batek eskaera formalak egin zituen bizikletak garbitzeko mangera bat jartzeko; 2016an BAZen eta 2017an Kirol batzordean. Azken horretan, adibidez, mangerek kiroldegiko igerilekuko ur soberakinak erabiltzea, horiek herriko beste edozein puntuan jartzea edo fitxa edo txanpon sistema batekin funtzionatzea proposatu zuten.

EH Bilduk ere aurrekontuetako emendekin bezala proposatu izan du mangera jartzearena, baina Udal Gobernuak ez du horren alde egin, Garagarzako gunea nahikoa zela argudiatuta.

GORA ETA BEHERA



Arropa garbigailu bat San Kristobal inguruan botata

San Kristobalgo hilerrian gora joanda ateratako argazkia da. Sare sozialetan zabaldu duen pertsonak ondorengo hausnarketa egin du: "Ziur garbigailua bertan uzteak lan gehiago eman diola Garbigunera eramatea baino. Lotsagarria!".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



N.K.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

ETA... kitto!

Francoren hilobiak gogoratzen dit historia irabazleek idazten dutela, kondairaren konplexutasuna alboratuz eta errelatoa ipuin bihurtuz. ETak borroka armatuari eta bere jarraipen historikoari agur esan die, eta orain, bere ibilbidearen balorazioa eta gerorako bere aztarna zein izango den eztabaidan gabiltza. Zaila da, Arrasate bezalako herrietan, non eta ETak militante eta zale ugari dituela, biktima mordoa gertatu direla, familia asko gogorkeriaren zurrunbilan oraindik harrapatuta bizi direla; Madrildik kontatzen diguten egiaren alde bateko bertsioa irenstea. Gurean, pentsatu beharko dugu militar izatea, bera izateko zilegitasunez gain, etsaiari min egiteko baino zerbait gehiagoan datzala: irabazteko gaitasunean. Bestela, iraultza, modu erraz bezain labainkorrean, terrorismo bihurtzen da, taktikak eta ekintzak helburu bihurtuz.

Aurrera egin behar dugu: gaizki egindakoak onartuz, gertatutakoa egiaz aitortuz, barkamenaren dinamika sortuz eta gehiengoaren konbentzimenduz herrigintza sortuz. ETak armak ukatu ditu... eta kitto. Aldiz, borrokkak segitu egiten du!

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigaraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio golztiaira
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Kataideko bihurtunea, asfaltoaren berritze lanak eginda, egunean. IKER OÑATE

Abuztuan bukatu gura dituzte Kataideko lanak

Ekain bukaeran ekin zieten Kataideko bihurtunearen egokitze lanei. Eta abuztuko lehen hamabostaldian bukatu gura ditu Gipuzkoako Diputazioak. Besteak beste, bertan egindako hainbat neurketetan igarri dute bide zatiaren egokitze beharra

Iker Oñate ARRASATE

Kataideko bihurtunea egokitzen dihardu Gipuzkoako Diputazioak. Hain zuzen, ekain bukaeran ekin zieten lan horiei; eta, behinik behin, abuztuaren lehen hamabostaldian bukatzeko asmoarekin dihardute. "Ohiko prozeduran, hainbat neurketa egin genituen bide zatian. Eta egokitze lanak egiteko beharra antzeman genuen", argitu du Diputazioko Bide Azpiegitura Departamentuak. Besteak beste, errepidearen egoera eta bide zatiko istripu indizea zituen erdigunean azterketak.

Horri dagokionez, Herrizaingo Sailak helarazitako datuen arabera, 2015etik 2017ko urte bukaerara bitartean, 100 istripu izan ziren Eroskiko eta Epeleko biribilguneen artean. Eta 36 zauritu eragin zituzten horiek. Bada, Diputazioak bi gunetan jarria du istripuon fokua: biribilguneetan eta Kataideko bihurtunean-gehiegizko abiadurak eragindakoak dira nagusi-.

Dena den, Errepideetako zuzendari Silvia Perezek argitu du Kataidekoaren pareko errepideetako "parametroen barruan" direla datu horiek. Eta, egokitzapen arazoiez mintzo, errodamendu-kapa du erdigunean jarria: "Beste hainbat errepideetan bezala, ikusi genuen hori hobetu beharra genuela".

Aurreikuspenen arabera, abuztuko lehen hamabostaldian bukatuko dituzte lanak. Zehatz esanda, autoak Eroskiko eta Epeleko biribilguneetara mantsago sar daitezten, zeharkako bandak jarriko dituzte orduan-hori eginda, bukatuta legoke obra-. Hala, orain artean egindakora batuko lirateke horiek: mikro-aglomeratu kapa bat jarri

ZEHARKAKO BANDAK JARRIKO DITUZTE EROSKIKO ETA EPELEKO BIRIBILGUNEETAN

dute bihurtunean, haren itsas-kortasuna areagotzeko helburuarekin. Horrek mesede egingo lioke zirkulazioari.

Bihurtunea, kezka iturri

Kataideko bihurtunea kezka iturri izan da zenbaitetan. Esaterako, aurreko urte bukaeran, Arrasateko EH Bilduk Gipuzkoako Batzar Nagusietara eroan zuen egokitze eskaera, bertako istripu kopuruaz kezkatuta. Horrenbestez, koalizioko bozemaile Eneko Barberenak neurri bateko baikortasuna azaldu du egokitzapen erabakiaz: "Behinik behin, esan daiteke positibo dela bide zatiaren segurtasuna hobetzeko hartutako neurri oro".

Baina, "balorazio osoagoa" egiteko informazio nahikorik ez duela salatu du Barberenak: "Obra isilean eroaten ari dira. Ez dakigu ezer Kataideko bihurtuneko egokitzapenez. Ez digute horren inguruko xehetasunik eskaini. Beraz, ez dakigu zein den benetako planteamendua".

Kaleetako jaiek, presentzia handia datozen egunetan

Maalako, Zerrajerako eta Ferreriasko festak ospatuko dituzte, eta askotariko ekintzak izango dira hiruretan

I.O. ARRASATE

Herriko zenbait kaleetako jaiez gozatzeko aukera egongo da datozen egunetan -Maala, Zerrajerako eta Ferrerías-. Era guztietako ekintzak antolatuko dituzte, nor bere erara.

Hain zuzen ere, Zerrajerakoek gaurko antolatu dute ekintza sorta. Era guztietako hitzorduez gozatzeko aukera izango dute herritarrek -adin guztietako herritarrek hartu dituzte kontuan-. Arratsaldean emango diote hasiera egitarauari. Haur jolasak -17:00-, Oztopo trialsin taldearen erakustaldia -18:15-, konpartsa txikiaren eta txistularien emanaldia -19:00-, haur afaria -20:30-, kale afaria -21:15- eta AZ Gaubelak girotutako dantzaldia -22:30- antolatu dituzte.

Bestetik, Maalako bizilagunek domeka dute festa egun. Haiek

ere askotariko ekintzak jarri dituzte herritarren eskura: Arrasateko parrokiaren meza -12:30-, herriko txistulariek girotutako txikiteoa -13:00-, bazkaria -14:30-, bazkalosteko kina herrikoia, ume jolasak eta txokolate-jana -17:00-, txikiteoa -19:00-, dantzaldia -21:30- eta suzko erruberak -23:00-.

Ferreriaskoak, egunean

Eta Ferreriaskoek datorren egunean ospatuko dituzte festak -horiek, 30. urtemuga dute aurtengoa-. 08:00etan egingo du eztanda suziriak. Eta hark emango dio hasiera ekintza sortari: txistularien kalejira -12:00-, haur jolasak eta txokolate-jana -17:00-, txistulariek lagundutako erraldoien konpartsa txikiaren kalejira -19:00-, kale afaria -21:00- eta dantzaldia -23:00- izango dira ostean.

Bihar egingo dute baserriarren azoka, txakolina lagun

Ohikoari jarraituz, baserriarren azoka egongo da zapatuan -hila-beteko hirugarren aste bukaeran egiten dute-. Eta, besteak beste, betikoa izango da eskuragai: sasoian sasoiko bertako produktuak -barazkiak eta fruitak-, gazta, kontserbak, pastelak... Hain zuzen ere, hamabost salmenta-gune inguru izango dira Seber Altuben.

Hori bai, betikoan geratu barrik, ekintza osagarriak ere badute antolatuta zapatuetan; egun horretan egingo dute Debagoieneko Txakolin Egunearen bosgarren edizioa. Ibarreko hiru etxe egongo dira azokan: Arrasateko Otxia; eta Oñatiko Upain eta Murgialdai. Euro batean jarriko dute tragoxka.

Bestetik, parrilan egindako hegaluze-pintxoak dastatzeko aukera ere izango da bertan. Euro eta erdian jarriko dituzte eskuragai.

OHARRAK

Ezezkoa Asubeazpiko errepidea konpontzeari

Udalak eskaria egin zuen bide zati hori Gipuzkoako Landa Bideentzako diru-laguntze deialdian sartzeko. Konponketek 33.136 euroko aurrekontua zuten, baina Aldundiak esan du ez duela lagunduko, behar adina baloraziorik izan ez duelako.

Antoniñako hezegunea

Uztaileko osoko bilkuran onarpena jaso zuen, eta laster hasiko dituzte hezegunea atontzeko lanak.

Saharako hurrei ongietorria

Atzo, 18:00etan, Seber Altube plazan, ongietorria egin zieten ibarrera uda pasatzera etorri diren gaztetxo sahararrei.

Bulegoko lanari esker, mailari eutsi dio MUK

lazko denboraldia jaitsiera postuetan bukatu bazuen ere, ez du maila galduko Mondragon Unibertsitateak –EBAn lehiatuko da datorren denboraldian ere–. Hori lortuta, aurrera begira jartzea dagokie; hainbat fitxaketa aurreikusten dituzte

Iker Oñate ARRASATE

Datorren urtean ere EBA ligan lehiatuko da Mondragon Unibertsitatea. Eta, aurreko denboraldia jaitsiera postuetan bukatu bazuen ere, mailari eusteko eskaera egin zuen taldeak, bide administratibotik. Eta onartu egin dute eskaera –duela aste-bete jakinarazi zieten hori–. "EBako plaza eskatzean, ez genuen baiezkoa ziurtatuta. Zailak genituen. Baina goiko ligan egindako aldaketek libre utzi zituzten zenbait plaza; aurtun EBAn behar luketen hainbat talderen esku daude horiek. Mesede egin digu horrek", aitortu du Fran Fernandezek, Ointxel-ko zuzendaritzako kideak.

Hain zuzen ere, "epe luzeko" estrategiaren baitan hartu zuten plaza eskaera egiteko erabakia. Izan ere, zuzendaritzakoek ikusi zuten ibarreko saskibaloia "eten bako hazkunderendako" mesedegarri litzatekeela EBAn segitzea. Beraz, "erraz hartutako" erabakia izan zuten. Are gehiago, aurreko urteko emaitzak ikusita: "Soilik garaipen bateko aldeagatik bukatu genuen jaitsiera postuetan. Hala, hainbat partidu luzapenean galdu ostean, partidu bakarragatik maila galitzeak... ez dirudi zentzu handia duenik". Eta, horrez aparte, aurreko denboraldiko lesioak, aldaketak... dakartzate gogora zuzendaritzakoek.

Aurrera begira

Beraz, mailari eutsita, aurrera begira jarriak dira Mondragon Unibertsitatekoak. Eta, tartean, Arrasateko saskibaloia bueltan diharduten ia 300 neska-mutiko horien erreferentzia "atsegin" izaten segitzea dute helburu. Hori bai, jakin bada-kite "maila handiko" saskibaloia eskaintzen jarraitu beharko dutela horretarako. "Hori lortzen badugu, ziur naiz datorren urtean EBA mailari eustea lortuko du-



Martxel Balanzategi, saskiratzeko ahaleginean. IMANOL SORIANO

OINTXE!-KO IA 300 NESKA-MUTIKOENTZAT ERREFERENTE "ATSEGIN" IZATEN SEGI GURA DU MU-K

gula, gainera", azaldu du Fernandezek.

Era berean, datorren denboraldirako taldea osatzen ari dira Mondragon Unibertsitatekoak –entrenatzaile taldeko Iñaki Arri eta Eneko Mata ari dira horretan, Gorka Zurutuza kirol zuzendariarekin batera–. Hain justu, talde "lehiakorra" osatzea dute helburu. "Aurreratuta ditugu zenbait kontratu luzatzeko negoziaketak. Era berean, bide onetik doaz hainbat jokalar berri ekartzeko elkarrizketak. Ixten joan ahala emango ditugu horien gaineko xehetasunak", aitortu du Fernandezek.

Kontrakoa, baina, taldea uzteko erabakia hartu dute zenbait jokalarik, "arrazoi ezberdinak tarteko" –Andoni Aranzabal, Gorka Arejolaleiba, Mikel Baserra eta Jordan Rutherford–. Eta, horiek utzitako "hutsunea"

betetze aldera, harrobiari begira ere badihardute MUKoek. "Poztasun handiak eman dizkigute azken urteetan. Beraz, euren ekarpena egiten hasi behar lukete lehen taldean, etorkizun batean, protagonista bilakatzeko", dio Fernandezek.

Denboraldi "zaila"

Hori bai, zuzendaritzakoek denboraldi "zaila" aurreikusten dute datorren urterako. "Oso berdinduta dagoen txapelketa da EBA. Soilik hiru edo lau talde egon ohi dira gainetik, baldintza ekonomikoek lagunduta, besteak beste. Gainerakook parean dihardugu, normalean", argitu dute zuzendaritzakoek.

Eta, hori horrela, garrantzi handia ematen diote denboraldi hasierari. Horren arabera finkatuko dituzte "benetako helburuak": mailari eustea edo "anbizio handiagor" jardutea. Bien bitartean, atsedean hartzea dagokie Mondragon Unibertsitateko jokalariei. Abuztu bukaera eta irail hasiera bitartean hasiko dute denboraldi-aurrea; eta, ostera, urri erdialdean izango dute denboraldiko lehen norgehiagoka.

"Plazera da AEBek eskainitako kirol baldintzetan lehiatzea"

ENEKO CARRASCAL ATLETA

Kirol beka lortuta, AEBetan igaro du ikasturtea

I.O. ARRASATE

Eneko Carrascal atleta arrasatearrak AEBetako Oklahoma Universityn igaro du ikasturtea, kirol beka eskuratuta. Eta maila handiko kirolariak izan ditu lehiakide. Bada, aukera aprobetxatuz, bertan bizitakoaz eta aurrera begirakoaz berba egin du Carrascalek.

Zelakoa izan da AEBetan bizitakoa?

Oso aberasgarria. Bertan jarduteko beka eskaini zidan Oklahoma Universityk –luzera-jauzian eta salto hirukoitzean dihardut–. Baiezkoa eman nuen. Eta pozik nago bizitakoarekin. Hori bai, baldintza berrietara egokitzen jardun dut, batez ere.

Unibertsitateak eman zizun beka, beraz.

Hala da. Han, garrantzi handia ematen diote kirolari. Unibertsitateek asko inbertitzen dute horretan –bekak, instalazioak...–. Atsegina da halako baldintzetan jardutea. Baina, hein batean, gogorra ere bada: goizean Ingeniaritza Mekanikoko ikasketak eta arratsaldean entrenamenduak, ia egunero...

Kirolarien mailan ere igarriko da...

Noski. Kirolari asko daude, maila handikoak; hemen baino han-



Carrascal, Oklahomako jantziak. E.C.

diagokoak, behintzat. Beraz, nahikoa nuen sailkapenean erdialdean ibiltzearekin. Lehia izugarria dago.

Ibarrera itzulita, datorren urterako ze asmo?

Ba, egoera berrira egokitu behar izan ditut helburuak. Alegia, lau urterako beka nuen, baina unibertsitateko arazo batengatik, itzuli beharra izan dut. Aurreikuspenak hautsi egin dira, beraz. Orain, Espainiako Txapelketan lan ona egiten ahaleginduko naiz. Mikel Uribesalgo entrenatzailearen laguntza izango dut.



XABI GOROSTIDI

Zaldibarkoan, Leintz garaile

24 orduko txapelketa Zaldibarrera itzuli zen zapatuan. Eta ondo baino hobeto berrekin zuen bidea, parte hartze zabalarekin. Gainera, emakumezkoen txapelketa antolatu dute, lehenengoz. Horretan, Leintz Arizmendirendako izan da lehen postua, Elorrioko Potxotxoak taldea garaituta. Gizonezkoetan, bestetik, Etxoste tabernakoek irabazi zuten.

'Oxido': egunerokoak herdoildutako egoerak

Antezlan garratza eramango du gaur, egubakoitza Pez Limbo konpainiak Kulturolara. Taldeak bi emanaldi eskainiko ditu: lehena 18:30ean, euskaraz; eta 20:00etan bigarrena, gazteleraz. Biek toki mugatua dute: 80 pertsona, gehienez

Jone Olabarria ARRASATE

Hogei minutuko hiru pieza txiki- osatzen dute *Oxido* antzez- lana. Ordubete iraungo duen lanak ezohiko formatua jarraitzen du: hiru egoera, hiru agertoki eta publikoarekin elkartruke berezia. Oso pieza biziak dira, azkarrak eta aspertzeko denbora bakoak. Hiru istorio ezberdin, bakoitza bere trama eta arazoe- kin, baina amaieran denek egin- go dute bat kontakizunaren puntu komun batean.

Uda hasiera ezker martxan dagoen Udazabal programaren baitan, Pez Limbo konpainia gasteiztarrak *Oxido* antzez- lana eskainiko du gaur arratsaldean Kulturolan, Zerrajerako eraikin nagusian. Bi saio egingo dituzte, 18:30ean euskaraz eta 20:00etan gazteleraz. Antzerkigintza molde berritzailea eramango dute agertokira: ikusleak bi taldetan banatzen dira eta beraiek dira lekualdatu behar dutenak. Batzuek lehen eszena ikusten du-



Konpainiako kideak, *Oxido* ikuskizunarekin taula gainean. PEZ LIMBO

ten bitartean, besteek bigarrenaz gozatzen dute. Eta bukatutakoan, alderantziz. Hirugarren eta azken eszenan bi taldeak batu egiten dira.

Antzerki konpainiak gizartearen herdoila azaleratu nahi du,

egunerokoan preso dauden pertsonaiak mugetaraino eramanez; orduan irteten omen dira gizakiaren sentipen eta bizipen errealeak. "Emozionalki usteldutako protagonisten bizipenen bitartez, batzuk gabeziak beteak,

besteak gehiegikeria ugarirekin, egungo gizartearen benetako egoera erakutsi nahi dugu. Beteri, umore ukituekin", azaldu du taldeko kide Ainhoa Alberdik.

Otsailean estreinatuta zuten *Oxido* eta harrera "oso ona" izan duela dio taldeak. Orokorrean, jendea pozik irteten da emanaldietatik eta gaurkoan ere hala izatea espero dute. Arrakastaren gakoaz galdetuta, argi dute: "Azken batean, ikusle- ri, bere burua islatuta ikus- teko tresna eskaintzen diogu. Edozeinen egunerokoan behin eta berriz agertzen diren egoerak taularatzen ditugu. Pertsonaiak mugara eramaten dira, eta orduan irtengo dira gizakion jarrera zentzugabeenak".

Lan gazi-gozoa da, barruak astintzen dituen horietakoak, baina, aldi berean, barreari nola eutsi jakin gabe uzten duena. Ikusten denaz gozatu soilik ez, gogoetarako bidea zabaldu nahi du. Egungo gizarteari kritika hutsa baino askoz gehiago da, norberaren jarrera eta pentsamenduen inguruko gogoeta bultzatu nahi du. Beti, umoretik. "Nork bere buruaz barre egiten duen momentuan asko arintzen da karga emozionala", diote Pez Limbo konpainiakoek.

Euskarara moldatzea

Orain arte, gaztelerazko antzerkiak baino ez zituen prestatzen konpainiak, baina, aurtan, animatu eta euskaraz lan egiten

hasi dira. Jatorriz, *Oxido* antzez- lana erdaraz idatzita zegoen eta moldaketa lan luzea behar izan du euskal publikoarengana iritsi arte. Moldaketaren eta itzulpenaren arteko ezberdintasuna "oinarritzailea" dela dio konpainiak.

Lan bat itzuli baino ez bada egiten, hizkuntzaren baliabideek indar espresiboa galtzen dute. Gaztelerazko esaera jakin bat oso aproposa izan daiteke pasarte baterako, baina euskaraz, beharbada, ez dago hori edo ez dio zentzu bera ematen eszenari. Umorea mantentzeko helburuarekin, zenbaitetan, antzezlanaren atal batzuek zentzu originala galdu dezakete. Jendeari barrea eragin eta bi hizkuntzatan zentzu osoa mantentzeko modua aurkitzea "oso zaila" da.

Umorearekin lan egitean, gainera, denak ez du berdin funtzionatzen. "Herri batetik bestera asko aldatu daiteke. Batzuetan, txiste jakin batek herri honetan barrez leherrarazten du publikoa eta beste batzuetan, ez du irribarretxo bat ere eragiten. Egunak, orduak eta jendearen aldarreak ere asko baldintza dezake".

NORK BERE BURUAZ BARRE EGITEA DA ANTEZLAN HORREN HELBURU NAGUSIA

"Udan liburu arinak nahi izaten dira, atsedean hartzeko"

SAIOA OJANGUREN LIBURUTEGIKO LANGILEA

Udako hilabeteak izan ohi dira trankilenak biblioteketan

Jone Olabarria ARRASATE

Ikasleek oporrak hartu eta liburutegia utzi dute, baina udako oporrei begira irakurketa aukera ugari eskaintzen dituzte bailarako liburutegiek.

Aldatu egiten da liburutegiko jarduna udako hilabeteetan?

Udan, eta eguraldi ona egiten badu, askoz lasaiago egoten gara eta barneko lanak egiteko aprobetxatzen dugu.

Zein motatako lanak egiten dira?

Urtean zehar egin ezin ditugun lanak izaten dira. Besteak beste, zahutzeak, ordenatzeak eta, oro-

korrean, ikasturte berrirako barne gestioak.

Erabiltzaileen profila ezberdina da hilabete hauetan?

Jende gutxiago etortzen da. Haur eta gazte bibliotekan igartzen da, batez ere.

Egongo dira leialak diren erabiltzaileak ere...

Bai; helduen bibliotekara egunero etortzen da jendea: egunkariak eta aldizkariak irakurtzera, pelikulak ikustera eta ordenagailuak erabiltzera. Askok bazkide egiteko aprobetxatzen dute uda.



Saioa Ojanguren. GOIENA

Zer irakurgai eskatzen ditu jendeak udarako?

Liburu asko mailegatzen ditugu urte osoan. Udan, baina, beste mota bateko liburuak nahi ditu jendeak: irakurketa arinak, deskantsatzen lagunduko dienak..

Cada Dia En Su Presenciaren gospel doinuak Biterin

Urteroko ohiturari jarraiki, gospel kontzertua izango da Biteri plazan. Cada Dia En Su Presencia koru nafarrak emanaldia eskainiko du zapatuan, hilaren 21a, 19:30ean. Ekitaldia Arrasateko Zentro Kristau Bataiatzaileak antolatu du, Nafarroako Gospel Elkartearen laguntzarekin. 1985ean sortu zenetik gaur egun arte, taula gainean diharduen koruak abesti propioak izateaz gain, gospel generoko klasikoak ere jotzen ditu, hala nola *Oh, happy day* eta *When the saints go marching in* ezagunak. Sarrera librea izango duen zapatuko kontzertuan, *Itxaropenaren doinua* izeneko ikuskizuna eskainiko dute.

Barrez lehertzeko, 'Babo Royal' kale antzerkia zapatuan

Ganso And Cia antzerki konpainiak erresuma zoro bilakatu du Seber Altube plaza, zapatuan. 20:00etan hasita, burutik jota dagoen erregearen eta trobolari bitxiaren abenturak jarraitu ahalko dira *Babo Royal*-en. Xelebrekeria nagusi den inperio asmatuan gertatzen da historia, non erregearen fantasia oro errealtate bihurtu beharko den. Taldeak diotenaren arabera, "ikuslizuna jolasa da. Hierarkiak trukatu egiten dira, egunerokotasunak harritu egiten du, eta normaltasuna eta zentzutasuna debekatuta daude". Ordubeteko iraupena duen antzez- lana adin guztietara zuzendua dago.



Fermin Etxebarria –aurrea– eta anaia, aireeratzeko gertu. NURIA BILBAO



Bere baserria –eskuinean–, airetik. F.E.



Aitarekin batera. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

90 urteko 'mutikoa' etxe gainetik abioneta batean

Urtebetetzea ospatu berria da Arragako Fermin Etxebarria, eta opari berezia egin zioten ilobek, Aramaio gainetik hegan egiteko aukera: "Inoiz halakorik pentsatuko...!". Mendea betetzeko azken koxka baino falta ez, baina baditu erronka berriak ere

Julen Iriondo ARAMAIO

90 urterekin hamaika ikusitako... eta ikusteko, antza, oraindik. Bueno, bat gutxiago orain; Aramaio goitik ikustearrena, berriki egin du eta. Iloben oparia, ez paperean bilduta iristen den horietakoa: hegaldia, Kanarietara barik, etxe gainetik –goiko eskuineko argazkian ikusten den moduan–.

"Polita, polita, polita", dio Ferminen esperientziari buruz galduta: "Ikusi genuen Gorbeia; jendea zegoen, eta auto bat ere bai, pospolo kaxa ematen zuen, altu ibili ginen. Han buelta bat egin eta Anbotora pasa ginen, Otxandio eta Urkiola bitartetik; han beste buelta bat egin eta Aramaio partera. Untzilla aldeira joan zen, eta gero etorri ginen

etxe parera. Eta hemen jendea begira, kar, kar, kar, bazekiten non nembilen eta!".

Eta nola ikusten da hor goitik Aramaio?: "Ondo ikusten da, bai; ondo fijatuz gero, ondo ezagutzen dira baserriak, auzoak eta denak".

45 minutuko hegaldia, eta jais-teko penaz: "Motz? Horixe egin zitzaidala motz! Gehiago nahi,

baina...". Urduritasunik, batere ez: "Trankil ibili nintzen". Aramaioetik Legutio aldera eraman zuen pilotuak, handik Landara, eta urtegiaren barrena Gasteizera; hura zeharkatu eta Forondara berriro. Bizitzako hirugarren hegaldia, egina –aurrez Sevilla eta Madril artean eta Kanarietara joateko ibilia zen hegazkinez–; bereziena, zalantza barik: "Abioneta txikian diferente ikusten da".

2019an, 91

Datorren urteko San Fermin egunez 91 beteko ditu Arraburu baserriko *mutikoak*. Eta santu beltzarenarekin badu zor bat: "Behin egonda nago sanferminetan, baina ezer ikusi gabe bueltatu ginen, eta nahi nuke hango giroa ezagutu. Ez dakit ailegatuko garen, baina asmoa badut joateko, bai; kar, kar, kar".

Asier del Campo, Arabako txapeldun lau t'erdikoan

Aramaioarrak 22-14 hartu zuen mendean Mikel Diaz de Gereñu gasteiztarra, kadete mailan. Parekatua izan zen lehen zatia, baina erdialdeko pare bat tantotan kontrarioa bete, eta handik aurrera errazago joan ziren gauzak. Aireko ohiko jokoarekin, bizi ibili zuen pilota, eta Diaz de Gereñuk lanak izan zituen, airez baino hobeto moldatzen baita botez, denera iristeko.

Iruñera irteera datorren barikuan, Alaiak elkartearekin

09:00etan irtengo dira, autobus geltokitik, hilaren 27an. 11:30ean, bisita gidatua hasiko dute, Iruñeko alde zaharrea. 14:30ean, bazkaria egingo dute San Ignacio jatetxean, eta denbora libre izango dute gero. 18:30ean abiatuko dira berriro etxerantz. Interesatuak 40 euro sartu behar dituzte Alaiak-en kontuan, Laboral Kutxan, eguaztenerako.

OHARRAK

Auzolana Barajueneren

Gaur, bihar eta hurrengo barikuan eta zapatuan hilerria margotuko dute. Interesa izanez gero, 666 86 39 99 zenbakira deitu.

Santixa eguna

Gureian ospatuko dute, ohi bezala, eguaztenean. 12:00etan meza egingo dute, gero kantu bazkaria, eta umeentzat jolasak arratsaldean.

Goitik ikusitako hartan, bazkaria gero

Etxetik gertu, hantxe ikusi zuen Iturrieta sagardotegia ere Ferminen airetik. Lur hartu eta bertan jarraitu zuen, bada, ospakizunak.

Familia osoa bildu eta protagonistari eskainitako bertso musikatu, kantu eta dantza, giro ederrean ibili ziren mahaiaren bueltan.

Han ziren opari berezi haren arduradunak ere, omenduaren

ilobak: "90 urte egin behar zituela eta, pentsatu genuen jaiegun bat egitea ospatzeko; eta osaba beti izan denez nahikoa ausarta –bere ilusioa zen Hiru Erregeen Mahaira igotzea, eta han ere izan ginen familia osoa duela urte batzuk–, lehengusina bati otu zitzaion abionetarena", dio Garazi Erizek. Eta asmatu egin zuten: "Ez zuen abionetatik jaitsi nahi!".



Familia osoa, hegaldi osteko ospakizunean. F.E.

Euskaraldiarekin bat egin dute udalbatzako kideek

Aho batez onartu zuten eguazteneko ohiko osoko bilkuran adierazpen instituzionala; horren bitartez, 'ahobiziak'-ak eta 'belarriprest'-ak aktibatzekeko urratsak egiteko konpromisoa hartu zuten eta herritarrak ekimenarekin bat egitera gonbidatuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Eguaztenean egindako osoko bilkuran, Euskaraldiarekin bat egin zuen Udalak. Hori baino gehiago, ekimenaren sustatzailer izatea onartu zuten udalbatzako kideek, baita "erantzukizunez eta eredugarri izanez jotzea" ere. "Euskaraldiari atxikimendua eman diogu adierazpen honekin, bai Udal barruan bultzatzeko, bai kanpoan. Euskararen erabilera sustatzeko azaro eta abendu bitartean ha maika egunez egingo den ariketa izango da", zioen Aitor Gabilondo Euskara zinegotziak.



Euskaraldiaren berri emateko egindako horma-irudia. M.A.

Batzordea martxan dago

Ordezkarari politikokoak konpromisoak hartzeko gertu azaldu ziren, "bereziki, Udal barrura begira", eta ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzekeko urratsak egingo dituztela onartu: "Aho batez onartu zuten udalbatzako kideek, baita "erantzukizunez eta eredugarri izanez jotzea" ere. "Euskaraldiari atxikimendua eman diogu adierazpen honekin, bai Udal barruan bultzatzeko, bai kanpoan. Euskararen erabilera sustatzeko azaro eta abendu bitartean ha maika egunez egingo den ariketa izango da", zioen Aitor Gabilondo Euskara zinegotziak.

Gabilondo zinegotziak gogorazi zuen Aretxabaletan osatuta dagoela lantalde bat: "Martxan dago batzordea eta buru-belarri dabil lanean". Batzorde hori indarberrituta itzuliko da irailean, eta, orduan, hainbat ekimen jarriko ditu abian.

"Udalak, asko egiteko"

Adierazpen instituzionala aho batez onartu bazuten ere EAJk, EH Bilduk eta Irabazik, Ion Albizu EH Bilduko zinegotziak azpimarratu gura izan zuen Udalak zeresan handia duela kontu honetan: "Asko du egiteko. Izan ere, Udalaren esku dago, esaterako, euskaltegia, eta haren bitartez euskararen jakintza

bultzatzea. Matrikularen doakotasunaren bidea zabaldu gura izan dugu guk, eta ildo horretatik proposatu genuen matrikula erdira jaitea datorren ikasturtean; baina ez ziguten onartu".

Bestetik, euskaraz ez dakitenei begira, zera dio Albizuk: "*Belarriprest* direnen konfiantza berreskuratu beharra dugu; maitemintzen lagundu behar diegu eta erakarri egin behar ditugu euskarara".

Dispertsio politikaren bukaera eske

Dispertsio politikaren amaiera eskatzeko, mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk ohiko osoko bilkuran; adierazi zuen horrek eragindako "arriko egoera pertsonal eta ekonomikoa" sufritzen dutela presoen senideek eta lagunek. Eta gogorazi zuten uztailean Ilean Garikoitz Garcia Arrietaren lagunek izandako istripua, hura bisitatzetik zetozela.

Aho batez onartu zuten Alderdi Sozialistako zinegotzia ez zen izan bilkuran— Udalak eskatzea Espainiako eta Frantziako gobernuen bertan behera uzteko dispertsio politika eta Euskal Herrira ekartzeko presoak; eta Garcia Arrietaren senideei eta lagunei elkartasuna adieraztea. "Dispertsio politika bukatzea eskatu dugu. Badirudi Madrildik aldaketa datorrela, baina ez dakigu behin betikoa izango den... Ikusi egin behar", zioen Ion Albizu zinegotziak.



Udalbatzako kideak. M.A.

Azbe lantegiaren bulegoak botatzen hasiko dira egunotan

Deba ibai alboko pasealekuaren lanak laster hasiko dituztela iragarri du Unai Elkoro alkateak

M.A. ARETXABALETA

Datorren astean Azbe lantegia zenaren eraikina eraisteko lanak hasiko dituztela iragarri du Udalak, eta aste pare batean bukatuta izatea espero dute. Azbe eraikinak bi gune ditu: bata, bulegoak izandakoa, eta bestea, industriarako erabilitakoa, eta bulegoen gunea da botako dutena: "Behin botata, helburua da herrirako sarrera txukuntzea, behar bezalako biribilgunea eginda", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak. Gainerako gunean, 1.600 metro koadro izango dituen denda egingo dute, baita biltegiak eta aparkalekuak ere.

Ibai alboko pasealekua

Deba ibaiaren alboko pasealekua kiroldegiraino iritsiko da laster, Markole auzoarekin bat egiteko han. Egitear dagoen zatiaren lanak Construcciones Legasko



Azbe lantegiaren eraikina. M.A.

SL enpresari esleitu dizkio Udalak, 187.619 eurotan: "Lehenbailehen has ditzaten gura dugu, eta lau hilabete iraungo dute". Gaineratu du Foru Aldundiaren diru laguntza jaso duela Udalak: ia 20.000 euroko laguntza, hain zuzen ere.

Wood Strings taldearen kontzertua Aretxarteren eskutik

Aretxarte merkatarien elkarrekin herria girotzeko konpromisoa hartu du, eta horretan dihardu ekainaz geroztik. Gaur, egubakoitza, opor aurreko azken ekitaldiak egingo ditu.

Gorka Olazabal *Apaxi* ipuin kontalari ezagunak istorio dibertigarriak eskainiko dizkie neska-mutikoei hainbat txotxongiloren laguntzarekin; Mitarte plazan izango da ekitaldia (17:30).

Ondoren, 20:00etan, Wood Strings talde aretxabaletarren girotuko du Mitarte kalea—Haizea eta Kixkor tabernen artean—eta Mareo taldea ere gerturatuko da denboraldiko azken kontzertua eskaintzera.

Irailaren 14an, Ixadebalde

Irailean indarberrituta itzuliko dira Aretxartereko kideak eta ekintza sorta iragarri dute; besteak beste, ipuin kontaketa, umeendako jolasak eta tailerrak eta kontzertuak. Eta irailaren 14an, Ixadebalde merkealdien azoka egingo dute.



Kartel irabazlea. IZARO SANCHEZ

Izaro Sanchezen irudiak iragarriko dituzte andramaixek

Andramaixetako egitarauak badu irudia: Izaro Sanchez aretxabaletarrena, hain zuzen. Lehiaketara zazpi lan aurkeztu dituzte eta epaimahaiak erabaki du Sanchezena dela egokiena herriko jaiak iragartzeko. 300 euroko saria jaso du hark.

Behin kartela aukeratu egitarauaren zain izango dira herritarrak; hori datorren astean banatuko dute etxeetan.

Kurtzebarri eskolaren eraikinarentzat irudi bila

Gu Haziak Gara elkarteak eskolaren lau paretak margotzeko asmoa dauka. Gaia hautatuta du: inguruko natura. Eta orain, lehiaketa bidez gai hori irudikatuko duen marrazkia aukeratuko du. Bozetoak aurkezteko epea abuztuaren 20an itxiko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolaren lau hormak margotu egingo ditu Gu Haziak Gara elkarteak. Udalararen oniritzia du, eta horretan hasi aurretik eraikinak beharrezko dituen konponketa lantxo batzuk egitea ere aurreikusita dauka. Margotuko den irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du elkarteak; lanak abuztuaren 20rako aurkeztu beharko dituzte.

Inguruko natura gaitzat hartuta

Gaia aukeratuta dago, aurretik egin den parte-hartze prozesu bati esker: "Inguruko natura da gaia, eta muralean agertu beharko dute bertako animaliek eta landareek, intsektu autoktonoek, eskolako ortuak eta Kurtzebarri mendiak", jakinarazi du Paloma Martinezek, Gu Haziak Gara elkartearen arduradunak. Eskatu dute artistak Leintz aldekoak izatea; hau da, aretxabaletarrak, arrasatearrak edo eskoriatzarrak, eta, gehienez, bi bozeto aurkeztuko dituzte.

Lanak abuztuaren 20rako Gu Haziak Gara elkartera bideratu beharko dira (guhaziakgara@gmail.com), PDF edo JPG formatuan, honako hau zehaztuta: Kurtzebarri bozeto lehiaketa eta obraren titulua; eta bi artxibo erantsita: bozetoa eta egilearen



Kurtzebarri eskolaren aurrealdea, lehenengo margotuko duten horma. MIRARI ALTUBE

datuak. Bozetoak eskolako planoetan oinarrituta egongo dira (planoak hemen eskuragai: www.facebook.com/kurtzebarri).

Lehenengo bost irudiak epaimahai batek aukeratuko ditu, eta epaimahai hori osatuko dute Udaleko, eskolako eta Gu Haziak Gara elkartearen ordezkari banak, herritar batek eta bi muralista profesionalak. Hautatutako horiek ikusgai jarriko dituzte gero, eta irabazlea herritarrek aukeratuko dute boto bidez; irailaren erdi inguruan izango da hori. Irabazleak obraren eskubideak

emango ditu eskolako hormetan margotu ahal izateko.

Artisten lanak saritu egingo dituzte; hautatutako bosten egileek jasoko dute 100 euroko bonua Aretxarteko komertzioetan erabiltzeko, eta hiru bozkatuenek diru saria ere bai: lehenengoak, 800 euro; bigarrenak, 200 euro; eta hirugarrenak, 100 euro.

Irabazlea, herritarren esku

Irailaren erdi inguruan jarriko dituzte aukeratutako bost irudiak ikusgai eta herritarrek gustu-

"Herriak herriarendako sorkuntza lan polita egitea da helburua"

PALOMA MARTINEZ GU HAZIAK GARA ELKARTEKO ARDURADUNA

Lehiaketaren nondik norakoen berri eman du arduradunak. **Gaia parte-hartze prozesu bidez aukeratu duzue...** Bai; herrian jarritako kutxetan hainbat ideia jaso genituen, eta gero, gai bozkatuena izan zen gure inguruko natura. Ondoren, eskolan landu genuen gaia, inguruko natura zer den eta zein irudi agertu beharko liritekeen zehazteko.

Zeintzuek margotuko duzue?

Izaro Sanchez eta Joana Manzidor artistek gidatuko dute prozesua, baina edonork parte hartu ahal izango du. Zeuk ere bai, bertatik pasatuz gero. Muralaren beheko parte, metro eta erdirainokoa, umeek margotuko dute; horregatik, bozetoan elementu konplikaturik ez diseinatzeko eskatu dugu. Eta umeak diogunean, herriko ume guztiak dira.



M.A.

Egitasmoaren helburu nagusia zein da?

Harreman berriak sortzea; herriak herriarendako sorkuntza polit bat egitea elkarlanean. Ez da inporta, nagusia izan, gaztea, beloa duena, emakumea, gizona... Guztiok eman dezakegu zerbait gure herria hobetze aldera.

Beste mural batzuk margotu dituzue, pozik?

Gu oso pozik gaude bizitakoekin eta emaitzekin eta Udala ere bai, hortaz, aurrera.

Jostuna behar du elkarteak

Gu Haziak Garak jostuna behar du. Eskatzen dute patroi gintzan eta jantzi gintzan ikasketak izatea; makinak erabiltzen jakitea; eta proiektu sozial baten lan egiteko gogoia. Interesatuendako, hona bideak: 688 62 37 18 guhaziakgara@gmail.com.

Antolatzaileak eta umeak, "pozik" udalekuen jardunarekin

Leintz Gatzagan eta Untzillan egindako kanpaldiak nabarmendu dituzte, baita beste irteera batzuk ere

M.A. ARETXABALETA

Gaur, uztailak 22, agurtuko dituzte udaleku irekiak 330 neska-mutirik baino gehiagok. Hiru astetan ekintza mordoa izan dituzte, eta "pozik" emango die amaiera.

Sanferminak ospatu dituzte, igerilekuetara eta Debara irteerak egin; Lekaixoka bertso eskolako saioa izan dute eta herriko auzoetara joan dira: "Gustura ibili gara gure parajeak ezagutzuz; ekaitzek gogor jo arren,

gainera, ez gara kikildu!", adierazi dute antolatzaileek. Egindakoetatik, Leintz Gatzagako kanpaldia nabarmendu gura izan dute: "Herria bisitatu, bertako haurrekin jolastu eta denok batera *Gatz bidie* proiektua eza-gutzeko aukera izan genuen. Eskerririk asko Gatzagako herritarrei egindako harreragatik!". Galartzako aterpetxean egon dira, baita Untzillan ere; eta horiek ere eskertu gura izan dituzte: "Ederto ibili gara, abenturaz abentura!".



Gaztetxoak Leintz Gatzagako pilotalekuan. UDALEKU IREKIAK

"Indartsuago sentitzen naiz, inoiz baino hobeto"

JULEN ARRIOLA ESKALATZAILEA

Aretxabaleterra esperientzia ederra bizi izanda bueltatu da Hegoafrikatik. 'Rocklands' bloke-gune famatuan izan da Ander Mendieta arrasatearrarekin batera

Mikel Zumalde ARETXABALETA

Ametsak egia bihurtu. Iraganean zaila zirudiena, orain errealitate bilakatu. Ibarra kiroldegitik Hegoafrikara salto egin duen gaztea da Julen Arriola aretxabaleterra. Hilabete luze egon da buru-belarri eskalatzen, eta orain, etxera bueltatu da, herrira. *Rocklands* bloke famatuan egundokoak eta bi eginda, sekulako gozatua hartu du Arriolak. Alboan, Ander Mendieta arrasatearra izan du. **Zer dela eta joan zara Hegoafrikara? Nolako esperientzia izan da?**

Rocklands bloke-gunea dago han. Munduko leku onenetako bat da, eta eskalatzeko eskaintza oso zabala da. Potentzial handia dago, bloke asko estreinatu gabe eta hainbat zabaltzeko. Esperientzia ahaztezina; zalantzarik gabe, errepikatzen modukoa. Txikitatik jarraitzen nuen amets bat betetzea lortu dudala sentitzen dut.

Hilabete egin duzu han. Nolako izan da egunerokotasuna?

Goiz esnatzen ginen eta gosaldutik ostean eskalatzera joaten ginen. Egun osoa eskalatzen pasatzen genuen, bazkaldutik gabe. Lagun berri asko egin ditut eta oso ondo zaindu gaituztela azpimarratu nahiko nuke, erraztasun asko emanda. Horrez gain, beti gustatu izan zaizkit animaliak. Horregatik, atsedentzen ginen egunetan, animaliak topatzera joaten nintzen. Dortokekin, pinginoekin eta babuinoekin egon naiz, gehienbat, baina, horrez gain, baleak ikusteko aukera ere izan dut.

Gustukoa egin eta, gainera, Rocklands paraje ederrean. Ez dakit opor perfektuak existitzen diren, baina zureak ez dira urrutitua gelditzen, ezta?

Hori da. Opor bikainak izan dira; izan ere, txikitatik gustuko izan dudana egin dut eta, gainera, aukera posible asko eskaintzen dituen paraje batean. Askok eskertzen dut Anderren laguntza; izan ere, hura gabe ez nuen ho-



Julen Arriola eskalatzailerak duela bat eskuetan duela. JULEN ARRIOLA

"TXIKITATIK GUSTUKO IZAN DUDANA EGIN DUT, AUKERA ASKO ESKAINTZEN DITUEN PARAJE BATEAN"

rrelako aukerarik edukiko. Hark munduko hainbat leku ezagutzen ditu.

Hel dieziaiegun lorpenei. Zein gradutako blokeak eskalatzera lortu duzu?

Black Velvet 8a lortu dut eta maila bereko hainbat bloke probatu ditut. Ez ditut egin, baina asko disfrutatu dut saiatze hutsarekin. Anekdotaren bat ere badut: Ander 8b bat egiten ari zela, nik inguruko blokeak arakatu nituen. Horrela, bateren bat zabaltzea erabaki nuen. *Egurrak gaziak* izena jarri nion 7a graduko zailtasun maila zuen horma bati.

Orain dela hilabete joan zen Julen Arriola eta orain bueltatu dena berdina da? Plano pertsonalean, asko hobetu duzu?

Bai. Horrelako bidaietan beti hobetzen da. Gehienbat, ondo eskalatzen ikasten da. Hau da,

indartsuago sentitzen naiz, eta inoiz baino hobeto. Lehen egin ezin nuena, orain, erraz egin dezaket.

Denboraldia modu ezin hobean borobildu duzu. Orain, atsedendia dator ala eskalatzen jarraituko duzu?

Orain, atsedentzen hartuko dut. Atzamarrek deskantsatu egin behar dute. Astebete egongo naiz errepereratzen, azala zaintzen. Hala ere, irrikan nago hemengo proiektu berriak probatzen hasteko. Hegoafrikako bidaiak neke pasatzen osten, Zumaia eta Getaria artean dagoen blokeetara joango naiz. Betiere, Araotzeko paretak ahaztu gabe, noski.

Ikasi dituzun teknika berriak Aretxabaleterra kiroldegiko boulder-gunean beste eskalatzailerak erakusteko prest?

Bai. Edozelan ere, ez da berdina Hegoafrikatik ikasi dudana eta nik maisu bezala umeei erakusteko didana. Harria eta blokea ez da berdina, eta, horregatik, nik egin dudana niretzako gordeko dut. Nire helburua besteei ilusioa transmititzea izango da, horrelako bidaien zirrara jendearen artean pizteko.



MIRARI ALTUBE

Sagarra abiapuntu, saio ederra

Eguaztenean, Oinkari dantza taldeak eta Hika antzerki konpainiak *Sagarta* izeneko ikuskizuna eskaini zuten herriko plazan. Talde donostiarrak sagarra abiapuntutzat hartuta ikuskizun dinamikoak eskaini zuen, zuzeneko musikak, antzerkiak eta dantzak bat eginez. Kale antzerki zikloari bukaera eman dio Udaleko Kultura Sailak.

Dantzaldia eskainiko du AZ Gaubelak-ek Santa Ritako lorategian

Uztailaren 22an, domeka honean, AZ Gaubelak taldeko Ibai Zangitu eta Mikel Alberdi aretxabaleterra izango dira Santa Rita Lorategian, nagusientzako musika eskaintzen.

18:00etan hasiko da emanaldia, eta ordu horretan egun-argia izango den arren, koloretako argiekin eta ke makinarekin izango dira, beti bezala, hutsik

egin barik. Oraingoan, abesti klasikoak betetako erreperitorioa eskainiko dutela adierazi du Ibai Zangituk: "Orotariko kantutak jarriko ditugu Santa Ritan, modernoenetatik aspaldikoentara, lehengo eta oraingo arrakastak, guztiak dantzan jartzeko modukoak. Gutxi gorabehera, ordubeteko saioa izango da; izan ere, ez gara askorik luzatuko, aspertzerik ere ez dugu nahi...; kar, kar, kar. Eta, hala, helburua bertan dauden guztiak dantzan jartzea izango da".

UDAko kamiseta mundu osoan zabaltzeko 'Udaoporrak' egitasmoa

UDAko kamisetak mundu osoan erakusteko asmoz, *Udaoporrak* egitasmoa jarri dute martxan. UDAko materialarekin argazkia atera eta sare sozialetara igotzea eskatzen du klubak -Twitter, Facebook, Instagram-, #udaoporrak traolarekin. Ondoren, argazki onenak sarituko dituzte; eta guztiak klubaren sare sozialetan zintzilikatuko dira.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Bergarako Alai abesbatzako kideak, San Pedro jaietan, Gernika plazan ateratako talde argazkian. IMANOL BELOKI

Ibarraundin izango dira gaur Alai abesbatzakoak

Euskal Herriko, munduko eta Bergarako kantuez osatutako emanaldia eskainiko dute gaur, 22:30ean, Alai abesbatzakoek. Ordubeteko saioan, hainbat kantu abestuko dituzte, eta bakoitzaren azalpena ere egingo dute, entzuleak kokatze aldera

Imanol Beloki ESKORIATZA

Willis Drummond eta The Farra Marching Band taldeen ostean, musika pixka bat alde batera utzi, eta 1971n sortutako gizonzkoen ahots grabeen abesbatza izango da gaur Ibarraundi museoa entzungai, 22:30ean. Bergarako ohiturak eta kultura bultzatu eta kale-giroa kantuz alaitzeko helburuarekin sortutako taldeak, batez ere, euskal abestiak ekarriko ditu Eskoriatzara.

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora musika jaialdiaren barruan, hirugarren emanaldia izango da gaurkoa, eta abesbatza bat ekarriko duten lehenengo aldia da. "Ibarraundi museo barruan egin izan dugu emanaldiren bat Errekan Gora hasi zenetik hona, baina, hamaikagarren edizio honetan, beste guztietan moduan, herriko leku ezberdinetan antolatzen saiatzen gara, eta museo kanpoaldean egiten dugun lehen emanaldia izango da gaurkoa.

Hala, Bergaratik etorriko diren abesbatza honentzat leku aproposa dela uste dugu...", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkartearen kidea.

Ahots apartak

Kanturako zaletasuna duten zenbait lagunek osatzen dute taldea, eta Urretxindorrek talde mitikoko kide izandakoak ere badira horien artean.

Ordubeteko saioa eskainiko dutela adierazi du Xabier Olabarriak, Alai taldeko zuzendariak, emanaldi polita eta askorik luzatu bakoa: "Kantu asko ditugu, baina hamasei edo hamazazpi inguru abestea da gure asmoa. Egitarau osoa prestatu dugu, baina bateren bat kendu

ERREKAN GORAREN BARRUAN, MUSEO KANPOAN ESKAINIKO DEN LEHENENGO EMANALDIA DA

egin beharko dugu, emanaldia askorik ez luzatzeko".

Hiru zatitan banatutako saioa

Emanaldia hasteko, Euskal Herriko kantu sorta bat eskainiko dute; ondoren, munduko hainbat kanta; eta, amaitzeko, Bergarako abestiak. Batzuk, gainera, gitarraren laguntzarekin. "Kanta bakoitzaren aurretik egilea nor den eta abestiaren gaineko azalpena eskainiko dugu. Besteak beste, Xabier Guridiren *Boga Boga* itsas kanta, *Ontzi ahul batian* herri kantua, Benito Lertxundiren *Herribera*, Alexander Lesbordes-en *Ama* kanta, Giuseppe de Marzi-ren *Signore dell' cime*, Elvis Presley-ren *Falling in Love* abestiaren euskarazko bertsioa *-Zurekin* izenekoa-, *Arratsa Moskun* abesti errusiar tradizionala, Pedro de Retanaren *Ai hori Begi ederra*, Bergarako eta herrikoia den *Frantxulet*, Urretxindorrek taldearen *Kanta maitasunari...* eskainiko ditugu".



Boluntarioak Atxorrotxeko indusketa lanetan. FELIX IBARGUTXI

Atxorrotxeko indusketak abuztuaren 6an hasiko dituzte

Nafarroako Erreinuako gazteluaren azken zatian egingo dituzte zundaketa lanak, hamabost egunez

I.B ESKORIATZA

Hainbat urtez aritu dira indusketa arkeologikoak egiten Atxorrotx, Iñaki Sagredo arkeologoaren gidaritzapean, eta aurten ere bertan izango da, hainbat boluntarioen laguntzarekin.

Azkenengo fasea

Garai batean han zegoen Nafarroako Erreinuako gazteluaren bueltan hainbat aurkikuntza egin dituzte: armak eta apaingarriak, besteak beste. Hala, abuztuaren 6an hasita, azkenengo faseko indusketak egingo dituzte. Gurutze Santuaren er-

mita ondoan dagoen arroka inguruan egingo dutela zundaketa adierazi du Iñaki Sagredo: "Abuztuaren 6an hasita, hamabost egunez egongo naiz bertan, boluntarioekin batera, eta iraillean ere izango gara beste egun batzuk, dena txukun-txukun jartzen. Ermita ondoko eremua gazteluaren azken zatia izango litzateke, eta aurrerago, agian, beherago egitea izango litzateke asmoa, baina ikusteko dago hori. Hala, irailaren 15ean Atxorrotx Kultura Elkartearen antolatutako jaian ere zerbait egitea ez legoke gaizki...".



PATXI REMIRO

Estreinaldian, butakak beteta

Bederatzi antzele eskoriatzarrek eman zioten bizia *Desbloqueadas* antzerkiari, pasa den zapatuan. Butaka guztiak bete ziren, eta bi saioko estreinaldia egin zuten. Urduritasuna nagusi, ikusleen babesak indarra eman diela eta obra beste leku batzuetan zabaldu nahiko luketela adierazi zuten antzerkia amaitzean.

Gaur amaituko dituzte Eskoriatzako udalekuak

Arrakasta handiko ekintzak izan dira aurten Eskoriatzako udalekuetan. Urterokoak aldaketa batzuekin etorri dira, berrikuntza batzuk izan dituzte hainbat ekintzatan eta, Asier de la Flor koordinatzailearen arabera, guztiek funtzionatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Txirikila Aisialdi Elkarteak antolatutako udalekuei gaur emango diete amaiera azken festa egunarekin. Irteera, jolas, joko eta berrikuntza ugari izan dituzte aurten, eta bikain ibili dira.

Hiru aste iraun dute udalekuek, eta sekulako arrakasta izan duten ekintzak gauzatu dituztela adierazi du Asier de la Flor koordinatzaileak: "Egitarauko hainbat hitzordu egunez aldatu behar izan ditugu eguraldiarengatik, baina, orokorrean, udalekuen balorazio positiboa egiten dugu. Martitzen honetan, Lexargaraten izan ziren Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa haurrak; Haur Hezkuntzakoak, berriz, Gasteizen, Salburuko Galeon Pirata Akuan izan ziren. Hainbat urtetan egin izan dugun *Zikinen jolasa*, aurten, *Holi fest* erara gauzatu dugu. Hau da, tenperekin bata bestea zikinduz... Horrez gain, Urkulura irteerak, Uraren Eguna... ere izan ditugu".

Trukean, harrituta

Begiraleek adierazi dute sekulako abilezia erakutsi dutela haurrek trukerako. Izan ere, Master Chef jolasean eta sukaldeko ekintzan, trukea erabili



Aurten, *Holi fest* erara egin dute *Zikinen jolasa*, tenperekin. MAIALEN LETE

dute ekintza gauzatzeko. Esaterako, boligrafo bat emanez, osagaiak lortu behar zituzten...: "Patata batekin, Pates Zubiara joan eta pateka ekarri zuten; gero, Anduaga Pentsuetatik arran bat; eta, ostean, dokean aritzeko jostailu bat ere lortu dute... Gu harrituta geratu gara".

San Fermin berezia

San Fermin egunaren ospakizunak ere ez du hutsik egin aurtengo udalekuetan. Hala ere, urterokoa egin beharrean, hau da, zezenetara mugatu beharrean,

San Fermin santuaren berregitea egin dute. "Santua gurtzeko eskaintzak bilatu behar izan dituzte haurrek, Santa Marina plazan zezen-plaza jarri dugu... Aldaketak, arrakasta izan delakoan gaude".

Begiraleen ekarpen bikainak

Urtero daude begiraleen arteko aldaketak, eta, koordinatzaileen arabera, aurtengo begiraleek egin dituzten "ekarpenak positiboak izan dira", eta ondo irten direla gaineratu du Asier de la Florrek.

Euskaraldiko hamaikakoa irailean aurkeztuko dute

Eskoriatzarrak ere buru-belarri ari dira lanean, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Euskaraldia egitasmoaren baitan. Izan ere, ekintza ugari antolatu dituzte orain arte, Kike Amonarritz soziolinguista tolosarrak egitasmoaren aurkezpena egin zuenetik. Bada, batzordea osatu zen, eta, hasteko, Euskaraldia zer den azaltzeko, pregoia kale-

ratu zuten herriko kaleetan zehar Olatz Pagaldayk eta Jon Zubiaagak eskaini zuten antzerki ibiltariarekin, danbor hotsekin lagunduta. San Pedro jaietan, Euskaraldiaren mezua ere agertu zen pegatinetan; *Belarriprest nahiz ahobizi; lotsarik ez, elkarrengandik ikasi!* zioena. Murala margotu zuten kultura etxeko paretan, etxeetako buzoietara bidali zen informazioa, eta hurrengo pausoa irailean emango dute, Eskoriatzako hamaikakoa aurkeztuko baita.

Madalenetarako prest daude Maringo auzotarrak

Aste bukaera honetan ospatuko dituzte Madalenak Maringo auzotarrak. Zapatuan 18:00etan hasiko dituzte jaiak, etxafuegoak botata eta Arientzako kanpaijole eskolakoen errepikekin. Gero, 21:00etan, bazkaria egingo dute elkartean, eta, ostean, erromeria izango da. Domekan, 11:30ean meza izango dute, eta, amaitzeko, luntxa izango da.

LEINTZ GATZAGA



Altsasukoak aske, muntaia polizialik ez lelopean ateratako argazkia. GATZA CITY CREW

Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko festa, "hobeezina"

Pilota txapelketa ederra, kontzertu bikainak eta aparteko giroa izan ziren pasa den zapatuan Gatzagan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pilota partiduak, herri bazkaria, musika kontzertuak eta aparteko giroa izan ziren pasa den zapatuan Leintz Gatzagan. Balarako jende ugari bat egin zuen elkartasun deiarekin, eta Gatzaga jendez bete zen Altsasuko gazteei babesa helarazteko.

Parte-hartze arrakastatsua

24 bikotek parte hartu zuten pilota txapelketan –horietatik lau emakumezkoak–, eta, ostean, ia 100 lagun batu ziren elkarrekin bazkaltzeko. Bikain prestatutako paella eta okela saltsan jan ostean, bazkalostean jokatu ziren pilota finalak. Gizonezkoetan, Oier Urrutia eta Joseba Zubizarreta izan ziren. Emakumezkoetan, berriz, Lierni Zangitu eta Ibone Arrieta. Parte-hartze handiaz gain, izugarriko pilota partiduak jokatu ziren Gatzagako frontoian, eta zaleek

asko disfrutatu zuten. Lagunarteko partiduak izan ziren arren, lehia handia egon zen, eta pozik geratu ziren bertaratutakoak. "Ez genuen espero pilota partiduetarako hainbeste jende izena ematea. Balarako herri askotatik etorri da jendea, eta benetan harrituta gaude erantzunarekin", azaldu zuen Asier Urizar antolatzaileak.

Helburua, elkartasuna adieraztea

Pilota finalak jokatu ostean, 20:00etan kontzertuek hartu zuten protagonismoa. Aretxabale-tako, Eskoriatzako eta Arrasateko hiru taldez gain, Iruñeko talde bat ere izan zen bertan kontzertua eskaintzen.

"Garrantzitsuena, ahal dugun heinean, Altsasuko gazteei laguntza ematea da, eta nik uste dut hemen muntatu duguna ikusten badute poztuko direla", adierazi zuen Urizarrek.

Jaietako kartel lehiaketako irabazlea Nerea Elorza izan da

Andramari jaiak irailaren 7an, 8an eta 9an ospatuko dituzte, eta, horretarako, kartel lehiaketa jarri dute martxan, urtero moduan. Hainbat oinarri bete behar izan dituzte parte-hartzaileek, eta irabazlea Nerea Elorza izan da: Gatz Museoa irudikatzen duen gurgila eta jaietan ohitura diren boloak erabili ditu ura izango balira bezala.



Jaietako kartela. NEREA ELORTZA

Irailean hasiko da Gureak lehengo Candy lanean

Orain arteko espazio faltari aurre egitea eta jarduera ekonomikoa handitzea asmoz, Gureak-eko 70 bat langile Candy zeneko 5.130 metro koadroko pabiloietan arituko dira lanean irailean; 2020rako pabiloi berri bat eraiki gura dute, gaur egungo bat bota ostean

Jokin Bereziartua BERGARA

"Asmoa da irailean jarduera normala bertan [Candy zena] egitea". Jose Ignazio Galarragaren hitzak dira, ahalmen desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duen Gureak taldearen kokapen berriak bilatzeaz eta hirigintza kontuak kudeatzen dituen arduradunak.

Lanak oso aurreratu daude, baina izan dira atzerapena eragin duten arazoak; tartean, Candy zenaren eremua kutsakorra zela zioen espediente: "Bideratu beharra zegoen eta denbora behar izan da. Hala ere, Udalarekin lankidetzan lortu genuen erakitzeko lizentzia". Hiru fasetan dago aurreikusita Gureak-en lurreratzea Candy zenaren eremuan, eta lehen fasea amaitzeaz dago dagoeneko. "Gure beharrak, beste enpresa batzuekin alderatuta, ezberdinak izaten dira eta lehen faseko pabiloi horiek gure beharretara egokitzen dihardugu. Abuztuan makina berriak ekarri eta instalatuko ditugu eta espero dugu irailean martxan egotea. Irail hasieran, akaso, ez, baina irailean zehar bertan normaltasunez lanean egotea da gure helburua", dio.

60 eta 80 langile artean

Gureak-en jarduera nagusia automoziorako kableatua prozesatzea, askotariko muntatze lanak egitea eta pieza batzuen mekanizazioa da, eta halaxe egiten jarraituko dute Bergarako lantegi berrian ere. "Bergaran hasierako muntaia egingo da, beste lantegi batzuetan moduan. Gero, Tolosan edo Goienetxan behin betiko produktuak osatuko dira", zehaztu du Galarragak.

Oraindik ez dakite zehatz-mehatz zenbat langile egongo diren hasierako faseko pabiloi horietan, baina 5.130 metro koadroko azalera hartuko duen eremuan 60 eta 80 langile artean izango direla dio Galarragak.



Gureak Taldearendako pabiloietan lanak aurreratu doaz. ENKO AZKARATE

GALARRAGA: "UDALAK INTERESA ERAKUTSI DU GUREAK HEMEN EGOTEKO, ETA LANA ERRAZTU DIGU"

"Aukera eder hau suertatu zaitugu eta etorkizunerako pauso garrantzitsu bat da". 2020ra bitartean, ekipamendu eta makinaria berrietan 1,8 milioi euroko inbertsioa dute aurreikusita.

"Plan berezi bat" lantzen

Bigarren faserako "plan berezi bat" lantzen ari da Gureak Udalarekin batera. "Ondoko pabiloia bota eta beste bat eraiki gura dugu. Izan ere, teilatua zementuzkoa da eta ikerketak daude halako sabaiek minbizia sor dezaketela diotenak; hori ezin dugu onartu. Egitura bera ere okertuta dago; beraz, ez du mezezi pabiloia egokitzea, bota eta beste bat eraikitzea da asmoa".

Azpiegitura zaharra denez, "txukun eta moderno" gura dute Artabilako lantegia, eta bertan muntatze tailerra egongo da; 120-130 lanpostu inguru. Gala-

rragaren arabera, 2020rako ger-tu egongo dira. Oro har, espazio falta edo "metro koadro beharra" zutelako mugitu dira Candyra eta helburu orokorra da orain arteko jarduera handitzea.

Harreman ona hasieratik

Hasieratik ona izan da Udalaren eta Gureak-en arteko harremana: "Interesa erakutsi dute Gureak hemen egoteko, jarduera berezi bat eta enpresa handi samar bat ekartzea nahi zuten. Elkar ondo ulertu dugu eta gu hemen egoteko lana erraztu digute".



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Askatasunez adierazteko eskaera

Arraroa egiten da gaur egun, ohikoena adierazpen askatasunik eza denean, libreki adieraztea zigortua dagoenean, askatasunez adierazteko eskaera jasotzea. Eta, are gehiago, hori irakurle kopuru duin bat duen plataforma baterako izatea. Harrigarriagoa zure gaitasunen artean idazketa ez dagoenean eta pertsona *arrunt* bat zarenean.

Bada, horixe da Goienaren eskutik jaso dudana eskaera. Eta nire harriduran murgilduta, harrotasun puntu batez eta lotsa handiz... buruari bueltak ematen hasi naiz; nori interesatuko zaio nire iritzia? Ez daukat denborarik, beste ardura bat? Nik ere badut iritzia... Eta neure burua benetan entzutea erabaki dut eta orduan jabetu naiz; nola ez erabili beste askori ukatzen zaion askatasunez adierazteko aukera?

Horregatik –ez bakarrik– eta kontzientziagatik eta koherentziatik egingo dut ahalegina, eta baietz esango diot erronka berriari. Errespetu handiz zurekiko, irakurle, espero dut mailan egotea, eta espero dut zure eta askoren ahotsak ekartzea, adierazpen askatasunagatik!

Apustu-jokoetan diharduen adin txikikoen kopuruarekin kezkatuta

Prebentzio programa batean 86 lagunek hartu dute parte, eta, horietatik, mutilen erdiak apustueta aritzen dela dio

J.B. BERGARA

Udalak aurten lehen aldiz landu du apusturako *online* jokoei eta kirol apustuei aurre hartzeko programa. 16 eta 18 urte arteko 86 ikaslek landu dute programa hori eta Udala "oso harrituta" geratu da emaitzekin: programan parte hartu duten mutilen erdiak baino gehiagok onartu du kirol apustueta eta joko makinetan jokatzen duela herriko lau negoziotan; eta horietatik talde handi bat ia egunero aritzen da. Programan parte hartu duten neskek, aldiz, ez dira horretan

aritzen. Emaitza horien aurrean, Udalak herrian kirol apustu eta joko makinak dituzten 11 negozioei jakinarazi die adin txikikoak halako jokoetan ikusiz gero isun gogorak ezarriko zaizkiela; eta, era berean, Ertzaintzak negozio horietan adin txikikoen jokoak ekiditeko jarraipen protokoloa ezarri du. Udaltzaingoa ere arituko da zeregin horretan.

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak ere jarraipen protokoloa aktibatu du; hurrengo urtean ikasle gehiagorekin landuko da programa.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



EH Bilduko Gorka Artola, Itsane Luarizaristi, Ainhoa Lete, Aitor Arantzabal eta Joseba Moñux. AMAIA TXINTXURRETA

"Hitz politen atzean, garatu gabeko proiektuak daude"

Udal Gobernuak egindako agintaldiaren balorazioari erantzun dio EH Bilduk asteon, eta diote balorazio horretan aipatzen ziren proiektuetako asko aurreko agintaldietakoak direla edo Gobernuak bultzatutako beste batzuk oraindik garatu gabe daudela

Jokin Bereziartua BERGARA

EH Bilduk duela bi aste Udal Gobernuak agintaldiaren gainean egin zuen balorazioari erantzun dio asteon. Diote Gobernuak erabilitako "tonu positiboak" ez dituela harritu, baina euren ikuspuntua azaltzeko beharrean daudela, datu "errealak" mahai gaineratuta. "Harritu gintuen

euren balorazioan aipatutako proiektuen artean egotea asko aurreko agintaldietatik datozenak; adibidez, Seminarixoa edota bigorriak garatzea. Eta beste batzuk, euren eskumenak ez direnak; adibidez, Miguel Altuna Lanbide Heziketako eraikin berria, 2002tik datorren proiektu bat dena; proiektu horretarako

lagundu egin daiteke eta Udalak badauka zer esana kontu horretan, baina ez dago, berez, Udalaren esku".

"Herria zorpetuko duen parkinga"

Gobernuak euren proiektu konkretuak aipatu zituela dio Gorka Artola zinegotziak, baina horietan ere "eztabaida publikoa"

sortu dutenak ere badaudela dio: "Bergara zorpetuko duen aparkalekua, adibidez. Aparkaleku beharra badago, baina modu hori izan behar den zalantzarria izan daiteke; Boluko frontoia estaltzeko proiektuak ere eztabaida eragin zuen".

"Proiektu asko", garatu barik

Bestetik, EH Bilduk uste du Udal Gobernuak datu batzuk ematearekin "ahaztu" egin dela. Salatu dute 2016ko, 2017ko eta 2018ko aurrekontuetan euren hitza emandako proiektu asko garatu barik daudela, oraingoz: "Proiektu batzuk aipatzearen: Espoloko jolastokia eta ondoren bota zen kioskoa konpontzea zen bat, eta gero, kiosko berria egitea; wifia kalean jartzeko asmoa izan dute urtero, eta, oraingoz, behintzat, ez dago martxan; zinema esaten ziguten uda ondorenerako martxan egongo zela, eta, oraingoz, ez dauka itxurarik egongo denik, ez uda ondorenerako eta ez hilabete batzuetan, behintzat; badaude proiektu asko euren bultzatutakoak eta euren hitza emandakoak, garatu ez dituztenak".

EH Bilduk salatu du, besteak beste, 2017ko udal aurrekontuan 210.000 euro bideratu zirela Espoloko kiosko berria egiteko eta, oraingoz, ez dela landu ere egin. Edo udal aurrekontuan Arrizuriagako eraikinaren proiekturako 1.100.000 euro bideratu zirela eta, diotenez, ez

dagoela inongo proiekturik edo proposamenik oraindik.

Gaineratu dute beste arlo batzuk indartzeko konpromisoa ere hartu zutela, ekonomia, adibidez, baina ez dutela "garapen handirik" izan. "Ekonomia batzordean gai hutsalak besterik ez da lantzen eta benetan herriko garapen ekonomikoa eragina duten proiektuak ez dira aztertzeke eramaten".

"Beste parte hartze eredu bat"

Gobernuaren parte-hartzea ulertzeko moduarekin ere ez dator bat oposizioeko talde nagusia: "Parte-hartzea mugatu dute askotan aurretik planteatutako proiektu itxien gainean onarpena ematera, eta, gure ustez, parte-hartzea hori baino askoz gehiago da. Parte hartzea prozesu oso bat izan behar da zerotik hasita edo proposamen oso lauso batetik hasten dena eta proiektu oso batera doana".

EH Bilduko ordezkariak adierazi dute euren aldetik proiektuak aurkezten jarraituko dutela, Udal Gobernuari hartutako konpromisoak betearazteko eskatuz eta bergarar guztien interesak defendatuz.

GOBERNUAK PARTE HARTZEA PROIEKTU ITXIEN GAINEN ONARPENERA MUGATU DUELA USTE DUTE

Umeen iritzi bila ur txorrotentzat

Udalak aurreikusten du 2019ko udarako gertu egongo dela ur txorroten gunea Agorrosinen. Hala, atzo, Jardunen udaleku irekietan ari diren umeez 20 bat aukeraren artean txorrotarik gustukoena bozkatu zituzten. "Badakite zer gura duten, badakite igerilekuko edukiera beteta dagoenean beste leku baten freskatu gurako luketela", esan zuen Elena Lete alkateak.



JOKIN BEREZIARTUA

EUSKARALDIA

'Ahobizi'-ak eta 'belarriprest'-ak erakusteko argazki lehiaketa

Irudimena erabilia eta udako erretratu freskoen bidez, Euskaraldian parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak

J.B. BERGARA

Euskaraldiaren bueltan, argazki lehiaketa antolatu dute aurtengo udarako: "Irudimena erabilia, adierazi beharko da argazkian ahobizi edo belarriprest izango zaren". Argazkiak irailaren 16ra arte bidali ahaliko dira; *bergaraeuskaraldia@gmail.com* helbide elektronikora edo Whatsapp bidez 605 71 24 69 telefono zenbakira. Bergaran zein munduko beste edozein tokitan atera daiteke argazkia, eta harekin bate-

ra azalpena gehitu beharko da, euskaraz –non eta noiz atera den eta gaiaren esaldi bat–. Argazkian agertzen direnek Bergarakoak eta 18 urte beteta dituztenak izan beharko dute. Antolatzaileek Facebooken –*Euskaraldia Bergara*–, Twitterren –*@bergaraeuskaraldia*– eta Instagramen –*Euskaraldia Bergara*– partekatuko dituzte argazki batzuk. Sariari dagokionez, Euskal Herriko produktuz osatutako otarre bat izango da.

Futbol maratoni herrikoia seminarioko patioan

Semicup txapelketaren bosgarren edizioa jokatuko dute bihar seminarioan eta aurten 18 taldek eman dute izena, iaz baino lau talde gehiagok: "Gazteen artean gorakada nabarmena izan dela ikusi dugu eta pozgarria da ikustea erreleboa badatorrela"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bihar jokatu da Semicup areto futbol txapelketa seminarioko patioan. Azken orduko aldaketarik ezean, 08:00etan hasi 20:00etan bukatuko da. 18 taldek eman dute izena, iaz baino lau talde gehiagok. "Aurten gazteen artean gorakada nabarmena ikusi dugu, eta horrek poztu egin gaitu, erreleboa badatorren seinale delako. Gaztetxoek ere seminarioko erregina edota errege izan nahi dute!". Izan ere, aurten ere neskek izango dute protagonismoa; hamaika jokalariz osatutako nesken talde batek hartuko du parte: "Nesken parte hartzea urtetik urtera handitzen doa eta horrek ilusio berezia egiten digu, lehen urteetan bazegoen-eta gabezia hori".

Kantxa margotzeko asmoa

Duela bost urte sortu zen Semicup eta ordutik hona txapelketaren helburua aldatzen joan dela dio antolakuntzak: "Labegaraietan antolatzen zen urte osoko txapelketarako jendea erakartzeko sortu zen, baina, Labegaraietako txapelketa hura desagertu egin zenez, orain, talde giroan kirola sustatzea da helburua, eta jai herriko moduan hartzen dugu". Bosgarren edizio honetan sorpresaren bat egongo



Semicup-en aurtengo edizioa antolatzen aritu den taldea. A. BADIOLA

TXAPELKETAREN NONDIK NORAKOAK JARRAITZEKO, '#EZAHAZTU' TRAOLA ERABILIKO DUTE

dela aurreratu dute: "Beharbada, droneak sartuko ditugu, baina ikusiko da". Aurten, kantxa berriro margotzeko asmoa dute: "Lehenengo urtean pintatu genuen eta dagoeneko erreposatu behar du. Arratsaldero han egoten di-

ren umeak poztu egingo direla espero dugu". Txapelketak oihartzun handiagoa izateko eta haren nondik norakoak jarraitzeko, #EzAhaztu traola erabiliko dute.

'VAR'-ik ez, baina 'BAR'-a bai
Umore ukitu nabarmenarekin diote aurten ere txosna egongo dela: "Munduko Kopan VAR teknologia jarri da martxan aurten, baina guk aspaldi jarri genuen BAR teknologia hori modan. Txosna bat egongo da, musikaren laguntzarekin. *Speaker* bila ere bagabiltza..."



2016ko Realaren eta Eibarren arteko derbia Agorrosinen. J. BEREZIARTUA

Realaren eta Osasunaren arteko derbian tribuna bat gehituko dute

Uztailaren 28an jokatu da partidua (18:00) eta sarrerak gaur jarriko dituzte salgai; prezio orokorra 20 euro da

J.B. BERGARA

Begarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete direla gogoratzeko ekitaldien barruan, Udalak eta Bergara Kirol Elkarteak futbol sailak Realaren eta Osasunaren arteko derbia antolatu dute uztailaren 28rako, Agorrosinen (18:00). Jende asko espero dutenez, tribuna bat gehituko dute gaur egungoaren parean, ibai aldean, norgehiagoka eserita ikusi gura duten zaleendako. Hala, 300 lagun gehiagok eserita gozatu ahal izango dute ikuskizunaz. Horrez gain, taberna eta komunak jarriko dituzte, eta San Martin ikastetxeko jolastokiak aparkaleku bezala irekiko dira egun horretan autoz joaten diren zaleentzat.

Klubeko jokalariek, hamar euro
Sarrerak gaur bertan jarriko dituzte salgai. Bergaran, Irala kalean gaur -18:00etatik 21:00eta-

ra- eta bihar -11:00etatik 13:00etara- egongo dira eta Agorrosingo leihatilan ere erosi ahalgo dira hilaren 27an -18:00etatik 20:00etara- eta hilaren 28an -10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 18:00etara-. Antzuolako Larrea tabernan eta Soralezeko batzokian ere jarriko dituzte sarrerok salgai. Prezio orokorra 20 euro da; 13 eta 15 urte artekoek hamabost euro ordaindu beharko dute eta 12 urtera artekoek eta BKEko jokalariek, hamar euro.

Garitano eta Labaien, etxean

Kluba eta Udala oso pozik azaldu dira ekitaldiarekin: "Herrian bertan Real ikusteko aukera ez da gauza erraza eta zale askorengan ilusioa piztu duen partidua da. Are gehiago, aulkian entrenatzailea eta analisi teknikorako arduraduna bergarrrak izanda; egun berezia izango da eurentzat ere, ziur".

Faboritoak nagusi Ipintzako txapelketan

Xxxx.

Ezdakiu taldeak irabazi zuen joan den egubakoitzean jokatu zen Ipintzako txapelketako ligako finala. Merezimenduz irabazi dute txapelketa, hirugarren aldiz; finalean 2-0 hartu zuten mendean Langostas taldea. Kopan, bestalde, Atzetik Lehenak eta Savandijas taldeek jokatu zuten finala. Lehia parekatu eta estu baten ostean, Atzetik Lehenak nagusitu zen (4-3).



Ipintzako txapelketan onena izan den taldea: Ezdakiu. M.B.

Basalgo auzoko jaiak hilaren 24an hasi eta 29an bukatuko dira

Dena dago gertu Basalgo auzoko Santiago jaietarako. Jaiak hilaren 24an hasiko dituzte, kanpai jotzearekin eta ohiko makalaren igoerarekin (18:30).

Hilaren 25ean, Santiago eguna, meza, luntxa eta umeendako jolasak izango dituzte; 14:30ean, auzoko erretiratuendako jai batzordearen bazkaria izango dute; 17:00etan, mus txapelketa egon-

go da. Jaiak amaitzeko, uztailaren 29an, egun osorako plana antolatu dute: meza nagusia (11:00); 36. Basalgoko Txirringularitza Igoera (12:00); luntxa (12:30); Angel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina bertsoariena saioa eta erromeria (13:00); eta ondoren, soinu-joleek alaitutako bertso bazkaria Peñagarikanoarekin eta Colinarekin. Bertso bazkarirako izena eman behar da hilaren 25a baino lehen, Basalgo elkartearen edo elkarte bazkideren bati deituta.



Buztinzale elkartearen gaur egungo bazkideetako batzuk, lokalean. IMANOL SORIANO

Buztinzale elkartearen ibilbidea, erakusketan

1978an sortu zuten ofizialki zeramika elkarte. Urte hauetan taldeko kide izan direnen piezak batu dituzte Aroztegin gaur zabalduko duten erakusketan. Antolatzaileen esanetan, taldea ezagutzera ematea izango da garrantzitsua

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
40 urteko ibilbidea 40 bat piezekin erakutsiko dute Buztinzale zeramika elkarteak Aroztegin. Gaur, barikua, zabalduko dute erakusketa, 19:00etan.

"Elkarte sortu genuen eta gaur egun elkarte bazkide direnen piezak egongo dira ikusgai", azaldu du Buztinzale elkarte Ana Orgazek.

Estilo bertsua

Erakusketa egin ahal izateko, zeramika elkarteak dei egin zuen 40 urte hauetan taldean ibili direnen artean. Ekainaren 24ra arte zuten piezak aurkezteko. "Jende askok dagoeneko ez du piezarik etxean, eman egin dituztelako edo...", dio Orgazek. "Elkartu garen artean, pieza bat edo bi ekarri ditugu", dio Orgazek nabarmendu du estilo aldetik ez dagoela alde handirik: "Kuri osoa da, baina orain dela urte batzuetako piezen eta gaur egungo piezen artean ez dago alde handirik".

"Ilusioz" beteta daude

"Gustura gaude erakusketarako batu dugun pieza kopuruarekin", azaldu du Orgazek. "Ilusio guztiarekin hasi ginen erakusketa antolatzen", gaineratu du. Horrelako urteurren bat horrela ospatzea garrantzitsua dela dio; batez ere, atzera begiratu egin, eta jendea elkartzeko balio delako. "Gainera, taldea utzi duten batzuen artean grina piztu daiteke", dio Orgazek.

Helburu garrantzitsua elkarte ezagutzera ematea dela dio. Erakusketa uztailaren 29ra arte, domeka, egongo da zabalik. Aroztegi ordutegia da: martitzenetik barikura, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Elkartearen ibilbidea

Orain dela 40 urte hasi zuen ibilbidea zeramika elkarteak, Carmen Montoyak proposatuta. Mariaren Lagundiak utzitako

gela batean hasi zuten jarduna, Catalina de Erauso Donostiako arte elkartearen laguntzarekin.

Ondoren, gaur egun Zabalotegiko etxe orratzean duten lokala utzi zien Udalak. Elkarte 1978an sortu zuten ofizialki -nahiz eta jarduna lehenagotik etorri-. Lehenengo, Simon Arrieta izena jarri zioten, eta, orain 15 urte ezker, Buztinzale da izena.

Ohikotik urrun azaltzen da zuzenekoetan Ash Grunwald

Kontzertua eskainiko du gaur, Espoioan, 22:00etan. rock & blues doinuak eskainiko ditu australiarrak

A.E. BERGARA

Australiako artista txundigarrienetako bat da Ash Grunwald; ezohiko zuzenekoak ditu eta berezko sena du publikoa bereganatzeko.

Bada, Berumuga zikloaren barruan, gaur, Espoioan entzuteko aukera egongo da. Emanaldia 22:00etan izango da.

12 urteko ibilbidea

12 urteko ibilbidea du Ash Grunwald musikariak, eta 12 urte horietan 9 disko argitaratu ditu. Hainbat herrialdetan jo du eta aldamenen izan ditu, besteak beste, James Brown, The Black Keys, Jack Johnson, Missy Higgins... Azken urteetan Australiako eta Zeelanda Berriko aretoak bete egin ditu, eta Australiako hedabideek benetako izartzat daukate. *Now* da haren azken lana.



Ash Grunwald. FACEBOOK

Lotzen duen zuzenekoak

Ahots zakar eta sakona du, eta berezko sena du ikusleak bereganatzeko. Ohikotik urrun, abestien zerrenda gabe, unean unekora egokitzen den musikaria da. Rock blues psikodelikoaren maisu da.

Bergarako txistulari bandak kalejira egingo du poligonoan

Domekan, uztailaren 22an, txistu soinuak entzuteko aukera egongo da poligonoan eta Santa Marina inguruan. Txistulari bandak kalejira egingo du gune horietan. 11:00etan hasiko dute kalejira; doinu herrikoiekin alaituko dituzte kaleak. Santa Marina jaiak ospatuko dituzte asteburuan, eta horregatik izango dira han txistulariak.

Gaur estreinatuko dute Dynamo zinekluba, gaztetxean

"Euskal Herriko zinema aretorik txikienaren" aurrestreinaldia gaur, barikua, egingo dute. 22:30ean, Jokin Guridiren eta Alain Carazoren Eyharts taldeak eskainiko du ikuskizuna -zortzigarren ziegan entseatzen zuten-. Zozketa bitartez aukeratu dituzte ikusleak; 18, guztira. Izan ere, aretoak 18 eserleku ditu -Novedades aretoak zirenak-.

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

Enpresa Argindatua V09/025

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Espaloia kafe antzokia, aro berri baten atarian

Kultur Hiru taldeko kideek esku artean duten egitasmoaren berri eman dute. Hiru hilabete iraungo duen akordioa sinatu dute Elgetako Udalarekin, eta luzatzeko aukerarekin. Lanerako gogoz eta ideia askorekin datozela esan dute

Larraitz Zeberio ELGETA

Iban Arroiabe arrasatearra eta Alex Martin gasteiztarra daude, besteak beste, Kultur Hiru egitasmoaren atzean. Jakinarazi dute irailaren 21ean emango diotela hasiera Espaloia kafe antzokiaren ibilbide berriari, eta Karim magoaren ikuskizuna iragarri dute. "Elgetako Udalak eremu honi etekina ateratzeko gogoia zuen eta hiru hilabeteko proba txiki bat egiteko akordioa egin dugu. Lanera gatzoz eta ahalegin osoa egingo dugu ikuskizun onak ekartzeko eta jendea erakartzeko. Ea aretoari bizi berri bat ematen diogun!", esan du Arroiabek. Azaldu du aretoa ez dela eguneroko zabalik egongo. Ikuskizun bat dagoenean zabalduko dute. Akordioaren arabera, Udalak zein bestelako eragileek antzokian ekintzak antolatzen jarraitzeko aukera izango dute, eta horrelakoetan taberna zerbitzua nahi izanez gero Kultur Hiru taldekoek emango lukete, bidegarri ikusiz gero.

Esperientzia duen lantaldea

Lantaldean kide gehiago ere badirela adierazi dute, eta guztiek dutela eskarmentua mundu honetan, batzuek ostalaritzan eta beste batzuek kultura arloan.



Alex Martin eta Iban Arroiabe, kafe antzoki atarian, Karim magoaren kartelarekin. L.Z.

KARIM MAGOAREN IKUSKIZUNA 22:30EAN IZANGO DA ETA SARRERA HAMAR EURO DA

Aurreratu dute gauza asko dituztela buruan eta ate asko dituztela dagoeneko. "Kontzertuak, antzezlanak, bertsolaritza jaialdiak, musika lehiaketaren bat, monologoak... Promotoreak eta artistak hasi dira deika".

Futbolekin bezala "partiduz partiduz" joango direla adierazi dute. "Gure konpromisoa, oraingoz, oso umila da. Ikusi behar dugu aretoak esaten ditugun moduan funtzionatzeko duen, eta guk ondo funtzionatzeko dugun. Uste dugu denondako dela komenigarria poliki-poliki joatea".

Aretoari buruz esan dute ikusi besterik ez dagoela zer eskaintzen duen. "Elgetarako oso ona da eta bailarako jendea erakartzeko puntu estrategikoa da. Promotoreak ekarri ditugu ikustera eta asko gustatu zaie".



Iñaki Olaortua, Sardinero futbol zelaian, Racing taldeko elastikoarekin. RACING CLUB

Olaortuak bi urteko kontratua sinatu du Racing taldearekin

Bigarren Mailara igotzea du helburu taldeak, eta jokalaria uztailaren 4an hasi ziren entrenatzen

L.Z. ELGETA

Santanderko Racing Bigarren B Mailako talde garrantzitsuenetakoa da, eta mailaz igotzeko beste aurrerapauso bat ekarriko lioke Iñaki Olaortuari (Elgeta, 1993). "Proposamena heldu zenean, ez nuen bi aldiz pentsatu", azaldu du. "Racing urte askoan izan da Lehen Mailako taldea, eta igarri egiten da. Profesionaltasun handia dago hemen. Domekak kenduta, eguneroko entrenatzen gara". Jokalaria argi du Racing ezin dela Bigarren B Mailan egon. "Derrigorrez igo behar du. Hori da denboraldiko

helburu bakarra. Kezka eta ilusio hori dago". Baloiarekin asko entrenatzen direla dio Olaortuak, eta argi du meritua egin beharko dituela jokatu ahal izateko. "Jokalaria asko gaude postu bererako. Azkenean, horretarako dago denboraldia-aurrea. Dena eman beharko dugu, eta ikusiko dugu zer gertatzen den".

Aldaketetara ohituta dago elgetarra, eta pauso berria eman duela dio: "Gustura nago. Azkenean, ia urtero aldatzen dut taldez. Oraingoan, bi urterako kontratua sinatu dut, eta espero dut bi urte egotea hemen".



EGURSPORT HK

Gipuzkoako txapelkunorde

Imanol Albizu Goikoetxe-k bigarren egin du Gipuzkoako harri-jasotze txapelketan. Ia amaierara arte eutsi zion Aimar Irigoienek erritmoari. "Oso emaitza ona da. Irigoienengandik gertu ibili nintzen, baina nerbioa jartzen naiz, eta hanketatik sufritu nuen. Jasoaldi bat baliozabetu egin zidaten eta Irigoien aurretik zen. Handik aurrera, bigarren egitera joan ginen".

Janire Lazkano: "Espero dugu hiruhileko asko etortzea"

Janire Lazkano Kultura zinegotziak adierazi du oso garrantzitsua dela herriaren kultura ekintzak sustatzea. "Garrantzi handia ematen diogu Kultur Hirurekin lortu dugun akordioari. Ikusten dugu ilusio eta indar handiarekin datozela, eta uste dugu hitzarmen hau Udalarendako, Espaloiarendako eta herriarendako dela onuragarria".



Alex Martin eta Iban Arroiabe, Kultura zinegotzi Janire Lazkanorekin. L.Z.

40 kale-argi hondatu eta argi gabe geratu dira

Ibarre, Antigua eta Errekalde auzoetako farolek kalteak izan dituzte. Guztira, 40 kale-argi hondatu dira eta auzo horietako kaleak argi gabe egon dira zenbait egunetan. Gaurko, farol guztiak martxan edukitzea da udal brigadaren asmoa

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako jaien aurreko aste-buruan, elektrizitate-piko handi baten ondorioz, herriko 40 farolen argiteria sistema erre egin zen. "Gertatu daitekeen kalterik handiena izan du elektrizitate sistemak; argiteria sistema hondatu egin da", azaldu du brigadako kide Garikoitz Llobregatek.

"Antzuolan urtean sei farol hondatzen dira, eta 70 bat bonbilla. 40 farol konpontzeak materialean soilik lau mila euro pasatxoko kostua dauka". Kaltea zerk eragin duen jakiteko, baina, garrantzitsua izango litza-tekeela data horietan norbaitek bere etxean kalterik izan ote duen jakitea gaineratu du. "Etxean kaltea jasan badu herritarren batek, mesedez, udalletxean jakinarazi dezala; ez dakigu ekaitzaren ondorioa den edo kanpoko zerbait izan den".

Ibarren lehentasuna

Kale-argiteria konpontzeko lanak Ibarre auzoan abiatu zituen pasa den astean udal brigadak. Izan ere, ilunen geratu zen auzoa izan zen. "Lehentasuna Ibarre auzoak izan du. Farol gehiago erre ziren eta gunerik ilunena bilakatu zen". Hala, pasa den asteo egunerako martxan zeuden farol guztiak Ibarren.



Udal brigadako langilea Antiguako ermitako farola konpontzen. MAIDER ARREGI

ANTZUOLAN URTEAN SEI KALE-ARGIREN SISTEMA HONDATZEN DA; ORAINOAN, 40 HONDATU DIRA

Auzotarrak arduratuta daude

Antigua eta Errekalde auzoetako biztanleak kezkatuta eta arduratuta egon dira. "Egun asko pasa ditugu argirik gabe. Errekalde auzoraino oinez joateko zailtasunak izan ditugu; ez

zen ezer ikusten", kontatu dio GOIENARI Errekaldeko auzotar batek. Emilio Picos Fariñas Antiguako ermitaren atzealdean bizi da. Kale-argi batek betebetan argizatzen du bere etxe aurrea eta ataria. "Nire etxeko ataritik elizara joateko eskaile-rak ditugu eta ez genuen ezer ikusten. Elizako atariko argiak ere ez du funtzionatu. Ia 15 egun egon gara argi gabe. Eskerrak argi txiki bat dudun sarreran. Baina orain farol berria jarriko digute, eta pozik nago. Lehengo zaharra zen; argi gutxi zuen".



MAIDER ARREGI

Ur parkeko sentsorea martxan da

Antzuolako ur jolas parkeko sentsore bat hondatu egin da, eta, ondorioz, parkea itxita eduki behar izan dute arazoa konpondu artean. Hala ere, berehala konponketa egin eta martxan, disfrutatzeko prest, izan dute neska-mutikoez. "Sentsore batek arazo txiki bat izan du, baina berehala konpondu dugu", argitu du brigadako kide Garikoitz Llobregatek.

Kirol instalazioen erreserben emaitza jakinaraziko dute

Antzuolako kirol instalazioetan datorren ikasturterako eguna eta ordua erreserbatzeko aukera izan dute herritarrek.

Hala, izena emandakoei, txandaren emaitzaren berri gaur, uztailak 20, emango die Udaleko Kirol Sailak. Hartara, erreserba egin dutenek irail hasieratik egutegi berriaren arabera jokatze-ko aukera izango dute. Erre-

serban ordu bererako talde batek baino gehiagok izena emanaz gero, jendaurreko zozketa egingo da. Nolanahi ere, Antzuolako bizilagunek izango dute lehentasuna.

Irail hasieratik uztail bukaera bitartean eskolako patioan edo pilotalekuan ere jokatu ahalko da. Pilotalekuan, baina, martitzenetan eta egunetan ezingo da erreserbarik egin. Izan ere, Olalde pilota elkarteak hartuta ditu egun horiek entrenamenduak egiteko.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Pipa-jana egin eta pipa-azalak lurrera

Torresoroa aurreko bankuan eseri eta pipa-jana egin dute, nonbait. Alboan organikoaren edukiontzia izan arren, pipa-zaleek nahiago izan dute pipa-azalak lurrera bota.



Kale-argiteriaren sistema, kiskalduta

Argazkian ikusten den bezalaxe, kiskalduta geratu da kale argiteriaren sistema, muina. "Elektrizitate-piko oso altua izan da. Horrek bonbillak lehertu izana ere eragin du. 40 farolen erreaktantzia, hau da farolen sistema, kiskaldu egin da", azaldu du brigadako langile Llobregatek.

Eskuz, eta banan-banan aldatu beharreko lana izan du.



Llobregat argiteria sistemaren muina, kiskalduta, eskuan duela. MAIDER ARREGI



Mikro irekia txosnagunean.



Arbulu eta Dominguezi, aitorza. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO



Ez dot moztuko bizarra-k antolatutako bazkaria.



Paella lehiaketa.



Kadrillen arteko jolasak.

Festarik "parte hartzaileenak"

"Oso jai parte hartzaileak". Halaxe deskribatu dituzte jaiak Beñardo Kortabarria alkateak eta Kultura teknikari Jone Larrañagak. 'Ez dot moztuko bizarra' taldeak boluntario gisa ibilitakoen lana eskertu du, baita bazkariko parte-hartzea ere

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Antzuolarrak herriko jaietan zerura begira, adi, egon badira ere, ez da ekaitzagatik ekintza bat ere bertan behera geratu. Are gehiago, oso parte hartzaileak eta jendetsuak izan direla aurtengo festak aitortu diote GOIENARI herriko alkate Beñardo Kortabarriak eta Kultura teknikari Jone Larrañagak. Txosnagunean ere ekintza gehiago antolatu dira aurten eta Zurrategiko gunea jendez bete dela azaldu dute.

"Herritarrek ondo erantzun dute eta jai parte hartzaileak eta jendetsuak izan dira. Txosnagunean ere jende asko ibili da; zapatu arratsaldeko ekintzak bete egin zuen Zurrategi plaza", dio alkateak.

"Garbi geneukan euriagatik ekintza guztiak, baita Mairuaren Alardea ere, egin egingo zirela. Beldurrez egon gara, baina, zorionez, ekintza guztiak aurrera irten dira", dio Larrañagak. "Alardean, Jose Angel Arbulu agurtu dugu, 37 bat urtetan par-

te hartu duena. Azken urtean, gainera, Genaro Laskurainen ordeztuz fusilarien ardura izan du. Buruzagi gisa ere estreinaldi aparta egin du Landerrek. Aipatu behar da ikusmina eta zeresana eman duen hanburgesa-jate lehiaketa ere". Bestalde, *Ez dot moztuko bizarra* taldeak preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko antolatutako bazkarian parte hartu dutenei eskerrak eman gura izan dizkie. Bestalde, zozketaren zenbaki irabazlea 424 da; eta ordezkoa, 488.



Hanburgesa-jate lehiaketa.



Larrain dantza jendetsua.

Oñati aitzindari da diru laguntzen eragina neurtzen

Ematen dituen diru laguntzen eragina neurtzeko, Zirrara izeneko metodologia prestatu du Aldundiak, Elhuyar eta Sinnple aholkularitzen gidaritzapean. Oñati eta Usurbil izan dira esperientzia hori probatu duten Gipuzkoako bi herriak

Oihana Elortza OÑATI

Udalak ematen dituen diru laguntza publikoak zeinendako eta zertarako erabiltzen diren, batetik, baina horien eragina herrian nolakoa den, zenbaterainokoa den eta noraino heltzen den ere neurtu dute Oñatin. Zirrara izena du erabili duten metodologia. Gipuzkoako Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz programaren laguntzarekin gidatu dute Elhuyar eta Sinnple aholkularitzek eta Oñati eta Usurbil izan dira esperientzia pilotu honetan parte hartu duten Gipuzkoako herri bakarrak.

Tresna

Herri bakoitzak diru laguntzen bi lerro aukeratu ditu; Oñatin, kulturaren eta auzotasun programaren bidez eman direnak; Usurbilen, kulturaren eta kirolean. "Kultura araututa dagoen saila dela ematen du, baina auzotasuna abstraktuagoa da, auzo alkateak aldatu egiten dira... Horregatik aukeratu genituen atal bi horiek", dio Nerea Zubia zinegotziak.

Erabat itxitako diru laguntzen gainean egin behar zuten lan aholkulariek, eta, hala, 2016an emandako diru laguntzen datuak erabili dituzte eragina aztertzeko. Kulturaren, esaterako, 62.218 euro banatu ziren eta diru horren laguntzarekin 87 ekitaldi antolatu ziren: 70 ikuskizun, bederatzi ikastaro, bederatzi ekitaldi elkarlanean eta sormena sustatzeko bekari esker zortzi lan berri garatu ziren. Horiek antolatzen 200 lagun inguruk jardun zuten auzolanean; batez beste, hamabost pertsona ekitaldi bakoitzean. Igarri dute azken urteetan ikusi gabeko hamar diziplina berri ikusarazi zirela herrian eta bitan diziplina desberdinak nahasi zituztela. "Datu horiek dira, esaterako, kuantitatiboak. Baina kualitatiboak eta soziologikoak ere jaso ditugu. Tresna honekin ikusi



Sagardoaren gaineko jardunaldia Larrañan, auzotasunaren barruan. I.G.

KULTURA SAILA AUKERATU DUTE ARAUTUA DELAKO ETA AUZOTASUNA ABSTRAKTUA DELAKO

dugu, adibidez, diru laguntzak ematerakoan asko desbideratzen garen edo ez. Esaterako, kultura lerroko laguntzetako helburuetako bat da elkarrekin elkarrekin antolatzea proiektuak, baina balorazioa ez zegoen asko ponderatua, eta horretarako balio izan digu. Bestalde, sormen lanetarako diru laguntzetan ikusi dugu emakumerik ez dela aurkeztu eta horrek esan gura du zerbait egin beharra dagoela horri buelta emateko", adierazi du Zubiak.

Auzotasuna programaren bidez emandako diru laguntzekin 59 ekitaldi antolatu zituzten auzotan-ikastaroak, hitzaldiak, jaiak, ondarea berreskuratzeko edo txukuntzeko lanak... eta bostetik baten herriko beste elkarte bateko kideek ere parte hartu dute. Ia auzo gehienetan, %93an, lanerako talde irekiak daude.

Diru laguntza hauen helburua auzoetako bizitza mantentzea da, bakoitzak duen nortasuna lortzea eta auzo dinamikoagoak izatea. Neurketak eman duen beste datu bat da 2016an 41 biztanle berri izan zituztela Oñatiko auzoek: 29 herrigunetik edo beste herri batzuetatik etortakoak eta hamabi jaiotza.

Ikasgaia

"Askotan, nolabait, inertziaz ematen dira diru laguntzak, baina kontzientzia izan behar dugu herriko ehun soziala zenbaterainokoa den. Zenbat herritarrek hartzen duten parte herriari bizitasuna ematen dioten gauzak antolatzen. Kultura elkartei ere banatu diet txostena, eurek ere eragin hori ikusteko", dio Zubiak. Gaineratu du txosten hau oso lagungarria izan zaiela eta beste arlo batzuetan ematen diren laguntzak neurtzeko ere balio duela. Ondorio hauekin, diru laguntzak hobetzeko proposamenak jasoko ditu Oñatiko Udalak.

Herrigintzaren eta Oñati herri bizia dela erakusten duten datuak ere badira txostenak jasotakoak.

Ostalaritzaren ordenantzak ikamika sortu du bi alderdien artean

Oposizioak dio atzerapausoa dela ordenantza berria eta Udal Gobernuak, berriz, legeak dioena jarraituko duela

O.E. OÑATI

Gaur, uztailak 20, da azken eguna ostalaritzako ordenantzari herritarrek ekarpenak edo proposamenak aurkezteko. EAJK, iritzi artikulu baten bidez, dei egin zien herritarrei egun horren aurretik alegazioak aurkezteko. EH Bilduk, prentsa ohar bidez, erantzun zion ez dela onargarria "nahasmena sortu nahi izatea informazio okerra erabiliz", gaur bukatzen den epea proposamenak aurkeztekoa izanik, eta ez alegazioena.

Erantzuna

EAJKo udal taldearen erantzuna izan da, prentsa ohar bidez, euren ez dutela alarrik sortu: "EH Bilduk proposatutako ordenantzaren ondorioak azalera-tu ditugu".

Jeltzaleek diote Udal Gobernuak ez duela aurretik prozesu parte hartzailek abiarazi: "Zaratengatik kaltetuak diren pertsonak ez dute inolako informazioirik jaso, eta, horrenbestez, ez dute EH Bilduren Gobernuak proposatutako ordenantzaren edukia ezagutzen". Eta galdetzen du ea zein ekarpen egin ahal duten herritarrek, ordenantza

ezagutzen ez badute. Halaber, ordenantza berria atzerapausoa dela ere badiote: "Bizilagunak asteburuz asteburu Ertzaintzan salaketak jartzera behartuz, nahiz eta, gaur egun, badiren egoera eta babes ez hori ekiditeko sistema automatikoak".

EH Bilduk azaldu du ordenantza berria lanketa prozesuan dagoela "eta herritarrei zabalduko informazio publikoko urratsean" dagoela, gaur-gaurkoz. "Uztailaren 20 arte dago interesdun orok bere ekarpena egiteko". Testuak jasotzen duenari buruz hauxe esan du: "Ekarpenak jaso ostean, behin-behineko onartzeko asmoa dagoen ordenantza proposamenaren helburu nagusia da aipatu jarduerak egungo legedira egokitu eta atal guztiak, tartean zigortzailea, eguneratzea, Udalak ahalik eta modu eraginkorrenean jarduteko". Udal Gobernuak gaineratu du legeak ezartzen duenari jarraiki derri-gorrezkoa izango dela "jarduerak sortzen duen zarataren mugaketa ez ezik, beronen erregistroa ere egitea. Arau-hauste kasuetarako zigorrak nabarmen eguneratu dira".

GORA ETA BEHERA



G.B.

Ur jolasetarako globoak, lurrean

Beroari aurre egiteko urez betetako globoekin jolasteari egoki deritza argazkia helarazi digun herritarrek: "Baina gero, jasotzen ere irakatsi behar zaie haurrei".



Garay enpresako tximinia zaharra, hilerri ondotik ikusita. O.E.

Goiko zortzi metroak bakarrik botako dituzte

Herriaren industria historiaren lekuko den neurrian, Udalak ez zuen gura tximinia goitik behera erabat eraistea, eta, Hijos de Juan de Garay enpresako ordezkariekin batera adostuta, egoera txarrean dagoen zatia botako dute

Oihana Elortza OÑATI

Garay lantegiko tximinia altuaren zati bat bota, eraitsi, egingo dute. Egoera txarrean dago goiko alde, eta horixe da botako dutena, arazoak saihesteko.

Adostua

Hijos de Juan de Garay enpresaren asmoa tximinia bere osotasunean botatzea zen. Hondatuta dago eta haize boladak izan direnean adreiluak ere jausi dira, inoiz, lurrerraino. Joan den udazkenean, asmo horren berri eman zioten Udalarari, baina gaia mahai gainean utzi zuten, "beste irtenbide bat egon zitekeen edo ez aztertzeke", alkatearen esanetan. "Aukeretako bat zen, adibidez, tximinia osoa berritzea, eraberritzea, baina kostu handia zuen horrek. Azkenean, kalitetuen dagoen zatia bakarrik botatzea adostu dugu", zehaztu du Mikel Biainek.

XIX. mendekoa da tximinia hori eta Udalak, ahal dela, mantendu egin gura zuen, herriaren

industria jardunaren lekuko den aldetik. "Egia da ez dagoela katalogatuta edo Gipuzkoako Aldundiak duen ondasun industriaren inbentarioan sartuta, baina, herriko industriaren historiaren lekuko den aldetik, babesteko ahalegina egin gura genuen", dio Biainek.

Bota

Zati bat mantentzeko ideiarekin, lanean jarri ziren Udala eta enpresa elkarlanean, eta, azkenean, adostu dute zati bat bakarrik botatzea; hain justu, egoera okerrean dagoen zatia. Eta zati hori goialdekoa da, puntakoa. Hala, Itziar Zelaia arkitektoak egindako proiektuaren arabera, tximiniaren azken zortzi metroak

GOIKO ZATIA BOTA OSTEAN, 30 BAT METRO IZANGO DITU HIJOS DE JUAN DE GARAY-KO TXIMINIAK

eraitsiko dituzte; egonkortasun arazoa duen zatia, alegia. Hori da proiektuak jasotzen duena. Dena dela, zatia botatzen hasten direnean egoera zein den aztertuko dute eta posible da adostutako metro horiek baino gehiago ere botatzea; betiere, segurtasun aldetik beharra ikusiz gero.

Hijos de Juan de Garay enpresako ordezkariak ere berretsi dute asmoa dela egoera txarrean dagoen goiko alde hori botatzea. Aurreratu dute lanak egiteko hartu behar diren neurriak hartu eta egin beharreko prestaketak egin eta gero hasiko dituztela lanak.

Adreiluzko tximiniak 150 urte inguru ditu, 38 metroko altuera du eta 2,40 metroko diametroa oinarrian eta 1,40 metro ingurukoa gailurrean. Goiko zatia bota ostean, 30 bat metro izango ditu tximiniak, eta geratzen den zatia bere horretan mantenduko da; ez dute asmorik beheko zatia eraberritzeko.



Aierdiko txabolan egingo dute bazkaria aurten ere. GOIENA

Betiko giroa sortzeko asmoz dator aurtengo Duruko Eguna

Uztailaren 29an ospatuko da eta pintxoak, musika, gazta dastatzea eta bazkaria egongo dira, besteak beste

O.E. OÑATI

Uztailaren 29an ospatuko da aurtengo Duruko Eguna. Bezperan, umeendako jolasak egongo dira arratsaldean: mendiko bizikleta irteera, futbol partidua eta txokolate-jana, adibidez. Domekan, ezagun egin diren pintxo eta gazta dastatzea, meza eta bazkaria, besteak beste.

Duruko txaboletako jabeek antolatutako festa izaten da Duruko Eguna. 1994an egin zuten lehen aldiz, eta, hasiera batean, urtero ospatu bazen ere, bi urtean behin egitea erabaki zuten. "Hamar txabolen artean antolatzen

dugu eta urtero egitea askotxo zen guretako. Baina ohitura mantendu gura genuen eta horregatik pentsatu genuen bi urtean behin egitea", dio antolatzaileetako batek, Mikel Bermejok.

11:00etan izango da meza Aierdiko txabolan, eta, ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute. 12:00etan, Unaimendiko gainean, ardi-gazta dastatzea egongo da eta 13:00etan, aterpetako kalejira hasiko da; Belakua-Azkontegi, Zarzabal, Gure Kabia eta Otadui bisitatuko dituzte. Bazkaria 15:00etan izango da.

NIRE USTEZ



ESTEBAN IRUSTA

Drogak

Gai honi buruz *Puntua* aldizkarian San Juan de Dios Ospitaleko psikologo Emilio Martín Tejedor-ek egiten dituen azalpenak larriak, oso larriak, direla deritzot. Drogen menpe dauden gazte asko bere eskuetatik pasatzen dira, eta bere hitzak kontuan hartzeak dira, zalantzarik gabe. Bere esanetan, hedatua dago drogen kontsumoa, eta gero eta gazteagoak dira nahasmen mentala duten pertsonen kopurua eta tratatu beharrean daudenak. Egoera erreala ezagutzea dela lehenengo pausoa eta gurasoen papera behar-beharrezkoa dela menpekotasuna gainditzeko. Baina salaketa larria egiten die gurasoei. Bere hitzetan, hauek ez dute errealitatea ezagutu nahi; begiak itxita segi nahi dute. Adibide bezala, inolako kontrol gabeko txokoak aipatzen ditu. Gazte askok hor igarotzen dutela eguna gurasoen baimenarekin, baina hainbeste ordutan, zer egiten duten jakin gabe, eta jakin ere nahi ez dutela. Badirudi eroso gaudela egungo egoerarekin, eta prest gaudela drogen ondorioak onartzeko. Gizarteak ulertu behar du egoera iraultzeko beharra dagoela.



Oñatiko mendi martxako irudia. GOIENA

Aurreko mendietatik bueltan aurtengo martxa

Irailaren 15ean izango da Oñatiko IV. mendi martxa. Bi ibilbide antolatu dituzte: motza, 20 kilometrokoa izango dena; eta luzea, 29 kilometrokoa izango dena. Izena emateko azkeneko eguna irailaren 8a izango da, 'Kirolprobak.com' atarian

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI
Irailaren 15ean, zapatua, izango da aurtengo Oñatiko mendi martxa. Laugarren aldiz egingo dute; eta aurtengo nobedadea izango da aurreko mendietan egingo dituztela lehenengo kilometroak.

Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. *Kirolprobak.com* atarian eman daiteke izena irailaren 8ra arte –hori barne–.

Irteera plazan izango da
07:30ean hasiko dute martxa, plazan. Esan bezala, irailaren 8ra arte egongo da aurrez izena emateko epea. Egunean bertan ere egongo da horretarako aukera, baina azken horiek ez dute ziurtatuta izango oparirik.

Bi ibilbide mota antolatu dituzte: motza, 20 kilometrokoa; eta luzea, 29 kilometrokoa. Bi ibilbideak leku eta ordu berean hasiko dira. Ibilbide osoa ondo seinaleztatuta egongo da, eta hainbat anoa-postu egongo dira: postu horietan, jatekoa eta edatekoa egongo da. Parte hartzaileek

derrigorrez pasa beharko dute postu horietatik. Antolatzailleek nabarmendu dute "mendi zaindu" egin behar dela, eta "antolatzailleek eurek horretarako jarritako basura poltsak" erabili behar direla.

Aurreko mendietatik bueltan
"Oñatik aukera handiak" eskaintzen ditu, eta horiek aprobetxatu gura dituzte antolatzailleek. "Hasieratik esan genuen Oñatin eskaintza zabala zegoela eta gure asmoa horiek guztiak ezagutzera ematea zela", azaldu du Josu Lizarralde antolatzailleak.

Hori horrela, orain arte egingo dako hiru martxetan ibilbide ezberdinak egin dituzte; eta aurtengoa ere ezberdina izango

IZENA EMATEKO, FEDERATUEK 12 EURO ORDAINDU BEHARKO DUTE ETA EZ FEDERATUEK, 14 EURO

da. Gainera, berrikuntza da aurreko mendietan barrena izango dela: "Aurreko mendietan ibili gara, eta Udana inguruan pasatuko gara beste aldera, Aloña aldera", dio Lizarralde.

Taberna
Martxa amaitzen denean, Oñatiko plazan jatekoa eta edatekoa banatzen dute parte hartzaileen artean. "Ekintza sozialetan diharduen Oñatiko talde bati eman izan diogu ardura hori", azaldu du Lizarralde. Iaz, esaterako, kilometroak taldekoak ibili ziren lan horretan eta orain dela bi urte, Hotz Oñati elkarteak. Aurten nork egingo duen ez dutela erabaki dio Lizarralde.

Izena emateko, 12 euro ordaindu beharko dute federatuek; eta federatu bakoek, 14 euro. Arropa jasotzeko zerbitzurik ez da egongo, eta, amaieran, Zubikoa kiroldegian dutxatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago onati.mendimartxa@gmail.com helbidean eska daiteke.

Lindsay Beaver eta Gari, biak ala biak, kaleko zuzenekoan

Kalean egitarauaren barruan eskainiko dituzte emanaldiak; eguaztenean eta eguenean izango dira

A.E. OÑATI

Kalean egitasmoaren barruan, bi zuzeneko eskainiko dituzte datorren astean. Kanadako abeslari Lindsay Beaverrek eguaztenean eskainiko du emanaldia, hilaren 25ean, 19:00etan, Atzeko kalean.

Abeslaria eta bateria jotzailea baino gehiago da Beaver. Bere bandarekin batera, batez ere, Ipar Amerikan eta Europan ibili da kanadarra. Mugarik gabeko ahotsa dauka, eta bateria jotzen oso abila da; adituek diote behin ikusi duenak ez due-

la inoiz ahazten Beaverrek duen talentua. Madrilen eta Gijonen jo ostean iritsiko da Beaver Oñatira.

Hurrengo egunean, hilaren 26an, Gari & Maldanbera taldeak eskainiko du emanaldia, Lazarraga parkean, 19:00etan –euria bada, Atzeko kalean–. Uztailearen 4an jo behar zuten azken horiek, baina, ekaitz arriskuarengatik, atzeratu egin zuten emanaldia. Hertzainak taldeko abeslari ohia taldeko formatuan dabil azken urteotan. Pop doinu lasaiak egingen ditu orain Garik.



RUPER ARKAUZ

Kadeteak, Gipuzkoako onenak

Aloña Mendik, kadete mailan, Gipuzkoako txapelketa eskuratu du. Legorretan jokatu zuten txapelketa, joan zen zapatuan. Kadete mailan, 25,4 kilometroko ibilbidea egin zuten, eta Aloña Mendiko mutilek 35.28ko denbora behar izan zuten ibilbidea amaitzeko. Gazte mailan, 10. postuan geratu ziren oñatiarrak, 34 kilometroko ibilbidea 47.37an eginda.

Madalenara autobusez joateko aukera egongo da

Madalenako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur, bariakua, pilota txapelketa egingo dute, 16:30ean, eta 20:00etan etxakuego jaurtiketa. 22:00etan, musika emanaldien txanda izango da: Broken Legacy, John Dealer and the Coconuts eta Arkada Social igoko dira taula gainera.

Zapatuan, pilota txapelketak jarraitu egingo du; horrez gain,

13:00etan, meza esango dute. 17:00etan, mus txapelketa izango da eta 18:00etan, apar festa. Auzo afariaren ondoren, DJ Javi Soundek giro tuko du gaua –03:00etan–, eta berakatz-zopak banatuko dituzte. Domekan, 12:00etan, meza esango dute, 13:00etan, pilota finala, 13:30ean, herri kirol erakustaldia eta 18:00etan, Supituki.

Herrigunetik Madalenara joateko garraio zerbitzua egongo da egubakoitzean 22:00etatik 08:00etara eta zapatuan 04:00etatik 08:00etara.



14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!



HOSSEGORREKO ZUBITIK (OINNEKO AZKEN JAUZIA) | Argazki: Aizola Erosa (Arribabeleta)
SARIA: Tableta Arrasateko Eroski Hipermerkatuaren eskutik



GOIENA IRAMUNTZEK SANTI CRUZ DE CUERPOGOSÉN | Argazki: Jose Úrbezobena (Arribabeleta)
SARIA: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



GARAZI NEAR PERN TENPLUAREN SARRERAN | Argazki: Ibai Martín Fernández de Laca (Arriate)
SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapien bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

MARTXAN DA!

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!

Sariak

- **LEHEN SARIA:** Redmi 5 plus smartphonea, **Eroski Arrasateri esker.**
- **BIGARREN SARIA:** **Gure Ametsa** jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Zumaiako Zelai Talasoterapien bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, **Arrasate bidaiei esker.**

Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Hirugarrena publikoaren saria izango da eta bozketa bidez hautatuko da. Irailaren 24tik 30era zabalduko da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.

Hiru argazki irabazleak zeintzuk diren urriaren 5ean jakinaraziko da, *Goiena* aldizkarian.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bost argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi behar dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 20tik irailaren 16ra arte –biak bame–.
- Bidali argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
- Argazkiek, gehienez, 5 MB izan behar dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoienean jalo edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkez daitezke.
- Argazkiek originalak izan behar dute.
- Udeko argazkiak izango dira: aurtengo udan ateratskoak edo beste uda batekoak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu, *Goiena* aldizkarian.
- Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 24tik 30era izango da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.
- Argazkiak Golenaren euskamietan argitaratuko dira: *Goiena.eus* atarian, *Goiena* aldizkarian, *Puntu*a aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzen ez badago, Golenak aukeraketa egingo du, egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Golenaren arboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiltz gero, egilearen izena adieraziko da.
- Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da oinarriak betetzea eta lege oharra onartzea.



Argazki guztiak eta lege oharra hemen:
goiena.eus/bereziak/14-udako-argazkien-lehiaketa

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK



Azken geltokia Europako Txapelketarako sailkatzeko

ATLETISMOA Domekan jokatuko dituzte, Getafen, maila absolutuko Espainiako Txapelketak. Pertika-saltoan Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua lehiatuko dira; eta, junior mailakoa izan arren, Ibai Fernandez 100 metroko irteera puntuan izango da

Xabier Urzelai ARRASATE

Azken urteotan moduan, Arrasatek bi atleta izango ditu Espainiako Atletismo Txapelketan –pertikan– urrezko domina janzteko aukerekin. Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua dira, Mojatetik harrobikoak biak, nahiz eta egun Axpe Iruñean bizi eta entrenatzen den.

Biak daude sasoi puntu onean, eta biek dute garbi gauza bat dela txapelketan podiumaren bueltan ibiltzea eta beste bat Europako Txapelketarako txartela eskuratzea: "Izan ere, urte osoan 4,45eko markara gerturatu ere ez naiz egin", dio Ruiz de Azuak, eta hori da abuztuan Berlinen egon ahal izateko eskatzen duten gutxieneko marka. "4,35eko marka egin dut, baina 10 zentimetro koska handia da. Avilan gustura ibili nintzen eta sasoi onean nagoela uste dut, baina oso zaila izango da".

Maialen Axpek Ruiz de Azuaren berbak berresten ditu: "Zaila da oso. Marka horietan ibiltzeko, teknikoki dena egin behar da bikain", dio asteburuan Barzelonan oso sentsazio onak izan eta urteko marka onena egin duenak [4,37]: "Duela hilabete inguru, orkatilako arazoak izan nituen eta geratu egin behar izan nuen; orduan, erritimoa



Maialen Axpe, asteburuan, urteko marka onenarekin (4.37). M.AXPE

RUIZ DE AZUA ETA AXPE URREZKO DOMINA ESKURATZEKO HAUTAGAIK DIRA

galdu nuen apur bat. Baina aste hauek oso ondo etorri zaizkit, ondo nago".

Lehia polita izango dute etzi

Azken hamarkadan Naroa Agirrek erakutsi duen nagusitasu-

naren ondotik -4,56 pista estalian-, egun, lehia polita dago hainbat atletaren artean: "Naroa beste maila batean zegoen, 4.45 edo 4,50eko markak erraztasunez egiten zituen, eta gaur egun gure artean ez dago maila horretan dabilen atletarik, baina koska bat beherago bospasei atleta gaude 4,30eko markaren bueltan gabiltzanak", dio Ruiz de Azuak. Eta Axpek gaineratu du: "Horrek emozioa ematen dio domekakoa moduko txapelketa bati, eta gogor entrenatzen jarraitzeko motibagarria da".

Emakumezkoen talde bat izango da Kuadrillen Arteko Txapelketan

FUTBOLA Leintz Arizmendiko neskak izan dira Ibarren izango den txapelketan esku hartzera animatu direnak

X.U ARETXABALETAKA

"Futbol txapelketako beste edizio batzuetan talde mistoak izan ditugu; hau da, hainbat emakumezko izan dira gizonetzkoekin batera taldea osatzen. Baina, aurtengo txapelketan, lehenengoz izango dugu talde oso bat emakumezkoz osatuta, hori da albiste pozgarrietako bat", adierazi du aste barruan Ibai Zangituk. Eta Euskal Ligan jardun duen Leintz Arizmendi izango da talde hori.

Hain zuzen, aste barruan da goeneko hamabi taldek emana zuten izena, baina antolatzaileak azken ordua arte egongo dira talde berrien zain: "Kopuru horrekin, txapelketa txukuna egin daiteke".

Ordutegiak, sare sozialen bidez

Behin betiko talde kopuruaren berri azken orduan jakingo du-



Garin, baloia astintzeko gertu. GOIENA

tenez, Kuadrillen Arteko Txapelketako antolatzaileek sare sozialen bidez emango dute ordutegi berri: "Txapelketa 09:00 aldera hasiko dugu eta aurreikuspena da sari banaketa ekitaldia 20:00 aldera egitea, urtero moduan".



MIREIA BIKUÑA

Ibai Fernandez, 100 metroko proban

Gizonezkoen mailan, Istar Dapena ez da txapelketan egongo, ezta Iñigo Uribarren ere, biak daude-eta min hartuta.

Ibai Fernandez, baina, nahiz eta junior mailako atleta izan, txapelketa absolutuan izango da, 100 metroko lasterketan. Arrasatekoak 10.72 egin du aurten eta Estatuko marka onena Angel David Rodriguezek egin du -10.27-.



Fernandez, Ruiz de Azua eta Carrascal, Granollersen, joan den astean. A.ATLETIKO

Udako lagunartekoak, bertan

FUTBOLA Martitzenean giro polita izan zen Atxabalpen Eibarren eta Tudelanoren arteko lagunartekoan. Zale askok aprobetxatu zuten Eibarko jokalariekin erretratuak egiteko. Gaur ere, egubakoitza, ibarreko lagun asko gerturatuko dira Ipuuara (18:00) Eibarren eta Realaren artekoa ikustera, eta datorren uztailaren 28an Bergaran izango da hurrengo hitzordua.

"Urte erdi geldi egoteak ez zeukan zentzurik"

JOKIN ETXABE TXIRRINDULARIA

Iaz AEBetako Aevolo taldean esperientzia ona bizi izan eta gero, 2018a Interpro Stradalli Cycling taldean hasi zuen; maiatzerako aurrekontu barik geratu da taldea

Xabier Urzelai BERGARA

Txirrindularitza mundua Frantziako Tourrera begira dagoen honetan, World Tourretik kanpo dauden talde askoren egoera bestelakoa da. Jokin Etxabek (Bergara, 1994) oso ondo hasi zuen urtea, Interpro Stradalli Cycling taldearekin Indonesiako Tourreko laugarren etapan bigarren izan zen eta sailkapen orokorrean hirugarren amaitu zuen itzulia. Taldeak, baina, zailtasun ekonomikoak izan ditu, eta Bergarakoak amateur mailara itzultzea erabaki du; domekan Gatzagan lehiatu zen, Dorletako Ama sarian.

Sorpresa hartu dugu zu hemen ikusita.

Bai; urte hasieran bazirudien taldeak fundamentuz egingo zituela gauzak, baina maiatzerako aurrekontu barik geratu ginen, eta geldi egon beharrean gurago izan dut amateur mailara itzuli. Garbi neukan urte erdi geldirik egotea ez zela irtenbidea. Azken batean, txirrindulari batek lasterketetan egon nahi du, eta anaiarekin batera Eiser Hirumet taldean lekua egin didate; gainera, taldekideek oso ondo hartu naute eta pozik nago.

Dena ez dela telebistan ikusten dugu txirrindularitza.



Jokin Etxabe, joan den domekan, Gatzagako helmugan. IMANOL SORIANO

"OSTERA ERE TXIRRINDULARI SENTITU GURA NUEN, DORTSALA JANTZITA"

Horiek World Tourreko taldeak dira, baina Kontinental eta Kontinental Pro kategorian talde askoren egoera bestelakoa da. Aipatu moduan, gure taldeak lehenengo hilabeteak pasa eta gero zailtasunak zituen ziklistei

ordaintzeko, lasterketetara joateko... Eta azken bi hilabete eta erdia geldirik egon eta gero, ostera ere dortsala bat jantzi ahal izan dut. Erritmo falta igarri egin dut, baina pozik nago, berotu ona hartu badugu ere lasterketan izugarri gozatu dudalako –hamaseigarren izan zen–. **Zer eskatzen diozu denboraldiaren bigarren zatiri?**

Txirrindulari sentitu gura nuen, ostera ere lasterketetako tentsioa nabaritu, gogoz entrenatu, saltsa horretan ibili... Ea emaitzaren bat lortzen dudan.



Igerilariak Getaria-Zarautz zeharkaldian. UROLAKO HITZA

Domekan egingo dute Getaria-Zarautz zeharkaldia

IGERIKETA Bergararren artean igeriketa sustatu zuen Jesus Jauregi izan zen proba horretako antolatzailea

Xabier Urzelai BERGARA

Domekan, hilak 22, jokatu dute inguruko itsas zeharkaldietan dagoen probarik ezagunenetakoa, Getaria-Zarautz lasterketa; 3.000 igerilarik hartuko dute esku, eta tartean egongo dira bailarako parte-hartzaile asko. Lasterketa 11:30ean hasiko dute, eta igerilariak 2.850 metroko distantzia bete beharko dute. Izena eman gura duenak *Kirolprobak.com* helbidean izango du horretarako aukera (50 euro).

Jesus Jauregi gogoan

Hain zuzen, ekainaren 26an hil zen Jesus Jauregi izan zen lasterketa horretako antolatzailea. Jaiotzez donostiarra (1944), Jauregi lan kontuengatik etorri zen Bergarara (1972), eta herritar gazteen artean igeriketa sustatu zuen. Horrekin batera, BKE barruan igeriketa saila jarri zuen

abian, baina, lehenago, Zarautzen lan egin zuen urteetan Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia antolatzen hasi zen. Hain zuzen, donostiarra hiru urtetan antolatu zuen domekan 48 urte beteko dituen proba.

Ondarroan, bailarakoak aurrean

Bestalde, joan den zapatuan, Ondarroako 33. itsas lasterketa jokatu zuten eta hainbat kategoriatan igerilari debagoiendarrak nabarmendu ziren, lau kopa ekarri zituzten-eta ibarre: bi Bergarara eta beste bi Oñatira.

Seniorretan, Ziortza Ibaibarriaga bergararrak eta Xabier Gordoa oñatiarrak hirugarren postua eskuratu zuten. Txiki mailako lasterketan, berriz, Uxue Azkarate bergararrak hirugarren postua eskuratu zuen eta Ekhi Lazkanoiturburu oñatiarrak, bigarrena.

Arantzazuko Igoera, zapatuan

Gazte mailako lasterketa egingo dute zapatuan, 16:00etan hasita, Oñatin. Urtero moduan, Triana auzoan hasiko dute txirrindulariek proba, eta, iaz moduan, Arantzazura kronoigoera egin beharrean, 60 kilometro egin beharko dituzte Arantzazurako aldapak igotzen hasi aurretik. Azkarrenak 17:45 inguruan iritsiko dira helmugara.



Iazko irabazle Xabier Berasategi (Ampo), helmugan. GOIENA

ATLETISMOA Proba libreak egingo dituzte bihar Mojategin

Bihar, 19:30ean hasita, parte-hartze libreko saioak egingo dituzte Mojategin –iraupen er-tainekoak–. 19:30ean, atletismo saioa gizonen 800 metroko lasterketarekin hasiko dute; ondoren, 19:40an, emakumezkoen 3.000 metroko proba egongo da; eta azken proba 19:55ean egingo dute: gizonen 5.000 metroko saioa, hain zuzen.

SASKIBALOIA MUK etxean hasiko du EBA mailan liga, urrian

Ointxe!-k EBA mailan jokatzeko jarraitzeko eskariari uztail hasieran eman zion oniritzia Espainiako Saskibaloia Federazioak, eta asteen eman dute aditzera noiz hasiko duten liga. Hala, urriaren 13ko eta 14ko asteburuan jokatu dute lehenengo jardunaldia, eta MUK etxean egingo du debuta, Burgosko Unibertsitatearen kontra.

Sortzaile berrien lanak bultzatzeko asmoarekin

Mikel Escobales aretxabaletarraren eta Arrasateko Alazne Zubizarretaren artelanak irailaren 8ra bitartean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean daude ikusgai, Foru Aldundiak bultzatutako Artista Berrien Programaren baitan antolatutako erakusketan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Otsailean egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak Artista Berrien Programan parte hartzeko deialdia; helburua da lurraldeko artista gazteen lanak sustatzea. Halaxe adierazi zuen Kultura diputatu Maria Jesus Telleriak Artista Berrien Programako erakusketako aurkezpenean. "Hemengo talentua sustatzea da helburu nagusia, talentua baita kulturaren lehengaien artean nagusia, eta horren gainean eraikitzen da gizartearen berrikuntza eta aurrerapena".

35 urtez azpiko hamasei lagun aurkeztu ziren eta horietatik zortzi aukeratu zituzten uztailearen 5a ezker eta irailaren 8ra bitartean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean ikusgai dagoen erakusketa kolektiboa osatzeko; horien artean daude Aretxabaletako Mikel Escobales eta Alazne Zubizarreta arrasatearra.

Askotariko diziplinatutako lanak Aldundiak dio zortzi artisten lana sakonean ikusteko aukera ematen duela bildumak. Askotariko proposamenak daude, formatuari, ideiei nahiz erabiltako teknikei dagokienez: margolanak, instalazioak, marrazkiak, argazkiak...



Artista Berrien Programako erakusketako sortzaileak. G.F.A.-KOLDO MITXELENA KULTURNEA

Leyre Goikoetxea eta Garazi Ansa dira erakusketako komisarioak, eta, Debagoieneko sortzaileei buruz galdetuta, zera dio Ansak: "Zubizarretak, batez ere, grabatuak eta eskuz zein ordenagailuz margotutako lanak ekarri ditu, eta baita zeramikazko eskultura gutxi batzuk ere. Escobalek, berriz, bereziki, instalazioak ditu. Metakrilatoarekin eta bestelako materialekin sortutako piezak dira; piezen kokapenarekin ere asko jokatzen du, ezohiko tokietan jarri ditu: lurrean edota sabaian. Ikusten

denarekin eta ikusten ez denarekin jolasten du".

Laguntzarekin eskertuta

3.900 euroko saria jaso dute artistek, eta, horrez gainera, Donostian erakusteko aukera; Escobalek dio horrelako programak beharrezkoak direla euren lana ikusgarri bihurtzeko: "Atzerrian bizi izan naiz eta iruditzen zait Euskal Herrian diru laguntzak hobeto kudeatzen direla. Arazoa da, baina, mekanismo horrek eszena bat eraikitzeke joera duela, eta ez da ona hori".



Euskaltzaleen Topaguneko Leire Lardizabal, martitzenean, Goianan. TXOMIN MADINA

Kameratoia ikus-entzunezkoen rallyrako motorrak berotzen

Urriaren 6an eta 7an Lekeitioko Zine Bileraren barruan egingo dute; izen ematea irailaren 4an zabalduko dute

A. A. ARRASATE

Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena bultzatzeko helburuarekin antolatzen du urtero Euskaltzaleen Topaguneko Kameratoia ikus-entzunezkoen rallya. *Kame on!* lelopean egingo dute hamalagarrena, urriaren 6an eta 7an; eta, iaz moduan, Lekeitioko egiten den Euskal Zine Bileraren barruan izango da.

18 eta 35 urte bitartekoa izateaz gainera, ez dago bestelako baldintzarik parte hartzeko; irailaren 4tik 24ra arte izango da izena emateko aukera, *Kameratoia.eus* atarian.

Aurten, 24 ordutan

Lehiaketako ezaugarriak aldatzen joan dira, eta aurten ere izango da berrikuntzarik. Hauxe adierazi du Euskaltzaleen Topaguneko Leire Lardizabalek Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan: "Lehiakideek herriko

mapa bat jasoko dute eta han izango diren ezaugarriak sartu beharko dituzte film laburrean. Orain arte lanerako 48 ordu izan dituzten arren, oraingoan, 24 ordutan egon beharko du lanak bukatuta. Beste berrikuntza bat da parte hartzaileek Lekeitioko aterpetxean lo egiteko aukera izango dutela; baina, adi, plaza mugatuak daude aterpetxean".

Demasa ekimena ere abian

Ikus-entzunezko rallyek gora egin dute eta horren isla izan gura du Demasa ekimen berriak. "Finalisten finala egin gura dugu Durangoko Azokako Irudienean aurten; hau da, 2017ko urritik 2018ko urria bitartean jokatu diren lehiaketetako finalisten artekoa. Horrelakoak antolatzen dituztenei eskatu gura diegu *johana@topagunea.eus* helbidera idazteko euskal lehiaketen zerrenda osatzen laguntzeko".

ABUZTUAN ZABALIK!

ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU GOIENA TELEBISTAN, GOIENA.EUS ATARIAN ETA NAHIERAN.

goiena⁴
ZU HEMEN ZAUDE

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Abuztua Jacan. Bi logela-ko etxebizitza ematen da errentan Jacan, abuzturako. Erdialdetik 10 minutura oinez. Igerilekua, tenis pista eta abar. 688 64 27 35

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan Grosen. Abuzturako. Lau pertsonarendako. Hondartzatik bost minutura. Telefonoa: 609 47 86 91

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 605 72 52 93

Bergara. Etxe bila nabil Bergaran. 450 euro ordain ditzaket. 684 14 95 54

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. 632 77 35 38

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, pertsona batendako. 688 73 75 74

Donostia. Logela ematen da errentan Amara auzoan. 634 45 30 97

Logela Arrasaten. Arrasaten logela ematen da errentan. 659 05 53 65

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ESKORIATZA

Mirentxu
taberna errentan
ematen da.
609 42 63 23
650 62 29 90

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Neska euskalduna behar da umeak eskolatik jaso eta bazkalzen emateko, irailetik aurrera. 652 76 70 12

Elgeta. Abuztuaren 4tik irailaren 4ra, zainzaile bat beharko genuke pertsona nagusi bat zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko. Ahal bada euskalduna. 677 30 58 45 (Amaia)

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Eskoriatza. Astean zehar orduka edo asteburuetan etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita gauetan ere. Soziosanitario titulua daukat. 634 84 41 94

Arrasate eta inguruak. Etxeko langile arloan formakuntza dukat eta arlo horretan lana bilatzen dut. Baita umeen zaintzan ere. 631 03 04 49

Arrasate. Zaintza lanak egingo nituzke zapatuko 15:00etatik domekako 20:00etara bitartean. Telefonoa: 632 48 38 91

Bergara edo Arrasate. Astean zehar orduka edo asteburuetan etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita gauetan ere. Soziosanitario titulua daukat. 681 37 60 13

Bergara. Gauetan nagusiak zaindu edo garbitzeko egiteko gertu nago, 21:00etatik 8:30ak bitartean. Legezko agiriak dauzkat. 616 20 49 83

Debagoiena. 28 urteko neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 656 35 61 72

Debagoiena. 40 urteko mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 642 97 71 66

Debagoiena. Asteburuetan edota gauetan nagusiak zainduko nituzke. 632 91 89 93

Debagoiena. Asteburuetan nagusi eta umeak zaintzen zein taberna edo elkartek garbitzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 36 20 89

Debagoiena. Asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu, garbiketan egin edota ospitalean gaixoak

zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 659 90 85 13

Debagoiena. Emakume prest garbiketan, zerbitzari, umeak zaintzen edo nagusiei lagun egingo nituzke. 632 62 76 07

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu orduka edo egunean zehar nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 688 71 92 47

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko emakume arduratsua prest. Orduetegi malgutasuna (orduka, gauetz zein asteburuetan). 666 07 42 98

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxeen garbiketarako, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egingo. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusi zainzaile eta abarretarako. Telefonoa: 674 58 02 41

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 632 79 91 43

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Etxean bizi izaten zein orduka. 747 74 47 06

Debagoiena. Nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketan jarduteko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 602 32 02 68

Debagoiena. Nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketan jarduteko gertu nago. Orduka edo egunean zehar. 675 61 78 92

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, baita garbitasun lanak egin ere. Txakurrak zaintzeko ere gertu. Telefonoa: 666 34 81 52

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan lan egingo nuke. Baserrietan ere bai. 688 66 14 33

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. 604 14 36 59

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu nago, baita etxean bertan bizi izaten ere. 693 66 68 03 (Liliana)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta abarretarako emakume arduratsua prest. Arratsaldetan, gauetan eta baita asteburuetan ere. Telefonoa: 631 28 02 98 edo 632 89 09 42 (Aurelia)

Debagoiena. Neska arduratsua gertu 15:00etatik 17:00etara edo gauetan, 22:00etatik 8:00ak arte, nagusiak zaintzeko. 655 45 30 64

Debagoiena. Neska arduratsua orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. 630 85 48 45

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. 630 85 48 45

Debagoiena. Neska arduratsua gertu 15:00etatik 17:00etara edo gauetan, 22:00etatik 8:00ak arte, nagusiak zaintzeko. 655 45 30 64

Debagoiena. Neska arduratsua orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. 630 85 48 45

Debagoiena. Neska arduratsua orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. 630 85 48 45

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. 630 85 48 45

Zaintzailea. Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abarretarako. Pertsona helduak zaintzeko tituluarakin. Presttas guztietarakin. 602 05 56 27

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Oparitu egiten dira katakumeak. 643 68 15 09

Katua. Katu heldua ematen da. Edozein zalantza izanez gero, jarri nirekin harremanetan honetan zenbaki. 655 82 47 29

8. DENETARIK

804. HARTU

Trikitixa hartuko gendak. Gure alaba trikitixa ikasten ari da eta ezin diogu bat erosi. Baten batek trikitixaren bat erabiltzeari utzi badio, gure alabarendako hartuko gendak. Eskerrik asko. 653 01 95 78

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ANTZUOLAKO JAIEN ERREPASOA IRUDITAN

'Jaiak' Zapata, 12:00/21:00, eta domeka 11:00/16:00/20:30



GOIENA

IKUS-ENTZULEEN BIDEOKLIPAK

'Amaia DJ' Egubakoitza, 21:30

EGUBAKOITZA, 20

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Onein
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Hurretik: J.M Muxika
13:00 Kantari 5
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Barru: Futbolaren gainetik
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein
17:00 Albisteak
17:15 Amaia DJ
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Kantari 4
19:30 48 ordu
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hurretik: J.M Muxika
21:30 Amaia DJ
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Jaiak: Antzuolako jaiak

ZAPATUA, 21

09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 7
10:00 Kantari 6
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
13:00 48 ordu
13:30 Hurretik: J.M Muxika
14:00 Barru: Futbolaren gainetik
14:30 48 ordu
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 48 ordu
16:30 Kantari 7
17:00 Kantari 6
17:30 Amaia DJ
18:00 48 ordu
18:30 Asteko errepasoa
19:15 Hemen Debagoiena
20:00 Kantari 6
20:30 Amaia DJ
21:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:00 Barru: Futbolaren gainetik
22:30 Hemen Debagoiena
23:30 Hurretik: J.M Muxika

DOMEKA, 22

09:00 1 2 3 Hemen da Miru
09:30 Kantari 6
10:00 Kantari 7
10:30 1 2 3 Hemen da Miru
11:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
12:00 Asteko errepasoa
12:45 Hemen Debagoiena
14:00 Barru: Futbolaren gainetik
14:30 48 ordu
15:00 Hurretik: J.M Muxika
15:30 Elikatu 4
16:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
17:00 Hemen Debagoiena
18:00 Asteko errepasoa
18:30 Barru: Futbolaren gainetik
19:00 Amaia DJ
19:30 Kantari 6
20:00 Kantari 7
20:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
21:30 Asteko errepasoa
22:15 Hurretik: J.M Muxika
22:45 48 ordu
23:15 Hemen Debagoiena

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Gaurkoak'

14:30/16:15/17:00/17:45

ASTELEHENA, 23

ASIERA GARITANO EZAGUTZEN

'Barru'

21:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 24



GOIENA

IMANOL ALBIZUREKIN BERBETAN

'Hurretik'

21:30

EGUENA, 25

TXUS JAILO PILOTUA, GAZTEKIN

'Galdegazte'

21:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

OROIGARRIA

Igor Lete Aranburu

2008ko uztailaren 22an hil zen, 24 urte zituela.



Zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.

Maite zaitugu.

Zure familia.
Bergaran, 2018ko uztailaren 20an.

OROIGARRIA

Bixenta Arregi Arregi

Maialen Regueiro lankidearen amama

2018ko uztailaren 13an hil zen, 84 urte zituela.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Oñatin, 2018ko uztailaren 20an.


ESKER ONA



Bixenta Arregi Arregi

Jose Antonio Aranbururen alarguna

2018ko uztailaren 13an hil zen, 84 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 21 ean, izango da, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko uztailaren 20an.

MEZA



Jabier Zubizarreta Ibabe

2018ko ekainaren 22an hil zen, Macachinen (Argentina), 69 urte zituela.



Emaztea: Maria Celia Fernandez Mendia. Alaba: Ane.
Gurasoak: Felipe Zubizarreta eta Juanita Ibabe. Ezkon-ama: Clotilde Mendia. Koinatu-koinatak, lehengusu-lehengusinak, ilobak eta gainerako senideak.

Haren aldeko meza eguaztenez, uztailaren 25ean, izango da, 19:00etan, Bergarako Mariaren Zerbitzarien kaperan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2018ko uztailaren 20an.

MEZA



Sor M. Irene Loiti Aranzabal

(Jasokundetar erlijiosoa)
Prudenci-Andiko-Etxe baserrikoa

2018ko ekainaren 20an hil zen, Malagan, 96 urte zituela.




Anai-arrebak: Ramon (†) eta Maria Larrañaga (†), Elena (†) eta Justo Sasiain, Javier eta Agapi Loidi, Lorenzo eta Jacinta Bengoa. Ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren aldeko meza domekan, uztailaren 22an, izango da, 12:00etan, Bergarako Santa Marian parrokiari.

Zure familiak ez zaitu ahaztuko.


Eskerrik asko bertaratuko zareten guztioi.
Bergaran (Angiozar), 2018ko uztailaren 20an.

ESKER ONA



Moises Lazkano Lonbide

2018ko uztailaren 14an hil zen, 85 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko uztailaren 20an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ		ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
<small>(22:00etatik 09:00etara)</small>		<small>(22:00etatik 09:00etara)</small>	
Egubakoitza, 20	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99	2018ko abenduaren 31ra arte:	
Zapatua, 21	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39	
Domeka, 22	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74		
Astelehena, 23	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09		
Martitzena, 24	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99		
Eguaztena, 25	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39		
Eguena, 26	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74		
BERGARA EGUNEZ		BERGARA GAUEZ EGUNERO	
<small>(22:00etatik 09:00etara)</small>		<small>(22:00etatik 09:00etara)</small>	
Egubakoitza, 20	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74	2018 osoan:	
Zapatua, 21	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	MOZOS: Iparragirre 2	
Domeka, 22	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	MOZOS: Iparragirre 2	
Astelehena, 23	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15	943 76 12 15	
Martitzena, 24	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05		
Eguaztena, 25	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74		
Eguena, 26	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15		
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK			
Egubakoitza, 20	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16		
Zapatua, 21	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16		
Domeka, 22	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16		
Astelehena, 23	JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28		
Martitzena, 24	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16		
Eguaztena, 25	JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28		
Eguena, 26	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16		

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Joseba Arregi Liziaga

2017ko uztailaren 27an hil zen, 89 urte zituela.



Urteurreneko meza uztailaren 29an, domeka, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Inoiz ahaztuko ez zaitugulako, segi bakean luzarorako.

Emazte, seme eta bilobak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2018ko uztailaren 20an.

URTEURRENA

Maite Garcia Martin

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZ) irakaslea

2017ko uztailaren 13an hil zen.



Gure gogo-bihotzetan zaude, Maite.
Maite zaitugu!



Eskoriatzan, 2018ko uztailaren 20an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Oñatara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxea), 943 76 08 19.

OÑATI Bikón publicitate agentzia: Oñatua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 60 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA


TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

1. 25 urte ezkontuta

Santi Balantzegig eta Nuria Fernandez de Arroiabek zilarrezko ezteiak ospatu dituzte. "Zorionak, bikote! Elkarrekin mila momentu eta bizipen pasa dituzue. Izan zoriontsu!".

2. Udalekuek, 30 urte

Txatxilipurdiren udalekuek 30 urte bete dituzte, eta, horren aitzakian, ospakizun eguna izan zuten hilaren 13an. Jokoak, jolasak eta argazki saioa egin zituzten, besteak beste.

3. Bihar ezkontuko dira

Izaskun Caballero eta Eder Arranz arrasatearrak bihar ezkontuko dira. "Zorionak! Ondo pasatu eguna eta disfrutatua bidaian. Kuadrillakoen partetik, musu asko".

4. Lezaman, Ander Caparekin

Bergaran egindako Ander Capa campusean parte hartu zuten neska-mutikoak Lezaman egon ziren Caparekin. Entrenamendua ikusi eta argazkia atera zuten.

5. Ibai Artekoen afariak

42 lagunek jaso zuten Arrasateko merkatarien elkarteak banatutako afariak. Herriko komertzioetan erosi izanagatik lortutako sariak dira horiek.

6. Omenaldia Portasolgo jaietan

Auzoko nagusia eta gazteenak omendu zituzten jaietan: hain justu ere, 91 urteko Jesusa Saez de Zaitegi eta lau hilabeteko Izar eta Aetz Lasagabaster.

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ander Castell Tejada
Uztailaren 26an, 4 urte. Zorionak, Ander! Gaur etxeko erregeak urte egiten ditu. Segi horrela, maitia. Gurasoen, aitona-amonen eta osaba-izeben partetik.



OÑATI
Oinatz Urzelai Aizpeolea
Uztailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Oinatz! Ondo pasatu zure eguna eta gozatu! Muxu handi bat familia osoaren eta, batez ere, Auritzen partetik.




ARRASATE
Aner Galan Uriarte
Uztailaren 25ean, 2 urte. Zorionak, maitia! Bi urtetxo besoetan lehenengo aldiz hartu zintugunetik! Askok maite zaitugu! Maren, aitaxo, amaxo eta familia osoa.



BERGARA
Oihan Gisasola Sevillano
Uztailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Oihan! Azkenean bost urte! Ondo-ondo pasatuko dogu. Patxo handi bat Enararen, aitaxoren eta amaxoren partetik.



BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 8 urte. Zorionak, Jurgi! Zortzi tirakada belarritik eta ondo-ondo pasatu eguna. Patxo potolo bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Oier Gantxegi Gallastegi
Uztailaren 23an, 5 urte. Zorionak, Oier. Egun ederra pasatu. Zure familiaren eta, Enekoren partetik bereziki.



BERGARA
Shere Moreno
Uztailaren 23an, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako, amaxo! Egun polita pasatzea opa dizugu. Muxu eta besarkada handi bat, Kenarren eta Alaineren partetik. Askok maite zaitugu!



ARAMAIO
Maria eta Libe Ayastuy Martinez
Libek uztailaren 1ean, 10 urte eta Mariak 23an, 13 urte. Zorionak, neskak! Ondo ospatu zuen urtebetetziak eta gozatu uda ederrez. Laztan handi bana, Arrasateko aitxaitxa-amamen partetik.




OÑATI
Laia Umerez Eceolaza
Uztailaren 22an, 4 urte. Zorionak, Laia! Puf, lau urte, nola pasatzen diren urteak. Egun polita pasa dezazula, aitaxoren eta amaxoren partetik. Muxu.



ARRASATE
Unax Beitia Jara
Uztailaren 22an, 10 urte. Zorionak, txapelidun! Ederro pasatu zure eguna eta jarraitu gure bizitzak alaitzen. Mila patxo familiaren eta, batez ere, Malenen partetik.



ARAMAIO
Markel Arrizabalaga Gonzalez
Uztailaren 22an, 3 urte. Zorionak, txapelidun! Ondo pasatu eguna. Aixelako eta Bajongo familixen partetik. Muxu pilo bat, zuretako.



OÑATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 9 urte. Zorionak, Oier! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, familiaren partetik.



OÑATI
Ane Arrizabalaga Txintxurreta
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, potxola! Besarkada eta patxo handi bat, familiaren eta, bereziki, Maddiren partetik.



BERGARA
Laida Akizu Bilbao
Uztailaren 20an, 9 urte. Zorionak, Laida! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta disfrutatut oporrak! Patxo bat, etxekoan partetik!




BERGARA
Julen Urizar Alkorta
Uztailaren 20an, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetze egunean, gurasoen eta familiaren partetik. Muxu bat.




OÑATI
Izar Unzurrunzaga Goñi
Uztailaren 20an, 10 urte. Zorionak etxekoan eta Lularen partetik. Hamar mila muxu eta ondo-ondo pasatu zure eguna!




OÑATI
Ander Arnaiz Txintxurreta
Uztailaren 20an, 3 urte. Zorionak, potxola! Ondo ospatu zure 3. urtebetetzea eta patxo handi bat, familiaren eta, bereziki, Aneren eta Maddiren partetik.



ARETXABALETA
Elene San Miguel Erostarbe
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, *prexiola!* Gure sorgintxuak hiru urte egin dozku! Jarraitu oin bezalako alaixa eta *saladia* izaten!



ARRASATE
Jon Coronado Cabrejas
Uztailaren 18an, 8 urte. Zorionak, Jon! Ondo pasatu zure eguna, Lararen, Saioaren eta Nahiaren partetik!



ARAMAIO
Oihan Azkarate Arriolabengoa
Uztailaren 18an, 13 urte. Zorionak, laztana! Ondo pasatu eguna! Amamak, aitaitak, amaxo, aitaxo, osaba-izebak, Hegozi, Lide eta Garazi.



BERGARA
Sara Unamuno eta Mikel Unamuno
Mikelek 11 urte, uztailaren 4an eta Sarak 7 urte, uztailaren 20an. Zorionak, bikote. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunean eta patxo pila bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Euri Arando
Uztailaren 16an, 6 urte. Zorionak eta egun ederra izan dezazula, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Oxel Etxenautia
Uztailaren 16an, 8 urte. Zorionak, txapelidun! Muxu handi bat familiaren eta, bereziki, lehengusu Xabaten partetik.



BERGARA
Maialen Arregi Gantxegi
Uztailaren 16an, 8 urte. Zorionak, pitxin! Zortzi urte dagoeneko. Orain arte bezain alai izaten jarraitu, maitia. Patxo handi bat, danon partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



PARKETXEA

OÑATI 'Sentitu ezazu ilunabarra, Aloñatik' irteera

Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 telefonoan edo arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net helbidean.
Parketxean, 18:00etan.



GANSO Y COMPAÑIA

ARRASATE 'Babo Royal' antzerki ikuskizuna

Ganso Y Compañia taldeak *Babo Royal* izeneko jolasa hartuko du oinarri. Hierarkiak trukutzen dituen jolasa. Normaltasuna eta zentzutasuna debekatzen dituen jolasa.
Bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 20

OÑATI Madalenako jaiak

16:30ean, pilota txapelketa; 20:00etan, jaiak hasteko, etxafuegoak; eta 22:00etan, Broken Legacy, John Dealer And The Coconuts eta Arkada Social taldeen kontzertua.
Santxolopeztegi auzoan.

ARRASATE Zerrajerako jaiak

17:00etan, haurrendako jolasak; 18:15ean, Oztopo trialsin taldearen erakustaldia; 19:00etan, konpartsa txikia eta txistulariak; 20:30ean, haurrendako afaria; 21:15ean, auzo-afaria; eta 22:30ean dantzaldia.
Zerrajeran.

BERGARA Santa Marina jaiak

18:00etan, barraken irekiera; 19:00etan, pintxo-poteoa trikitilariekin; eta 22:00etan, dantzaldia, Matxiategi eta Etxalarre tabernetan.
Santa Marinan.

ARRASATE 'Oxido' antzerki emanaldia

Hogeina minutuko hiru antzezlan, hiru toki ezberdinetan, eta pertsonaia ezberdinekin.
Zerrajerako eraikin nagusian, 18:30ean.

OÑATI Domeketarrak taldea

Bizente Ibarrodok gidatuta, emanaldia egingo dute. Debalde.
Helmuga tabernan, 19:30ean.

BERGARA Kartzela zaharra, zinema areto bihurtuta

Dynamo zineklub taldeak Eyharts taldearen ikuskizun batekin egingo du estreinaldia; Novedades aretoko 18 aulkirekin, zinema areto baten kutsua emango diote gaztetxeari.
Kartzela zaharrean, 21:30ean.

BERGARA Ash Grunwald Band

Rock-blues psikodelikoaren maisutza jo izan dute musikari australiarra. Hamabi urtean bederatziko disko kaleratu ditu. Hala, erreperitorio zabala eskainiko du, *Berumuga* zikloaren barruan.
Espoloiaren, 22:00etan.

ESKORIATZA Alaia Abesbatzaren emanaldia

1971n sortutako gizonezkoen ahots grabeen abesbatzak kontzertua egingo du, Errekan Gora jaialdiaren barruan.
Ibarraundin, 22:30ean.

ZAPATUA 21

BERGARA Semicup txapelketa

Areto futbol txapelketa jokatu dute 18 taldek. Emakumeen talde bat ere lehiatu da, lehen aldiz.
Seminarioko patioan, 08:00etan.

ARRASATE Txakolin Eguna

Debagoienako txakolin ekoizleek postuak ipiniko dituzte, txakolina probatzeko eta erosteko. Era berean, Eusko Labeleko hegaluze-pintxoaren dastatzea egingo dute.
Seber Altuben, 09:00etan.

BERGARA Santa Marina jaiak

10:00etan, ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol txapelketa; 13:00etan, luntxa eta musika emanaldia; 16:30ean, tute eta mus txapelketak; 18:00etan, bolo, toka eta igel txapelketak; 23:00etan, dantzaldia; eta, 02:00etan txokolate-jana.
Santa Marinan.

OÑATI Madalenako jaiak

11:30ean, pilota txapelketa; 13:00etan, meza eta ostean, luntxa; 16:30ean, pilota txapelketa; 17:00etan, mus txapelketa; 18:00etan, apar festa; 21:00etan, auzo afaria; eta 03:00etan, Javi Soundekin dantzaldia.
Santxolopeztegi auzoan.

BERGARA Bustinzale elkartearen erakusteta

40. urteurrenaren harira, bilduma ipini dute, hilaren 29ra arte.
Aroztegin, 12:00etan.

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parroquia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan.

OÑATI Arantzazuko Igoera, txirindulariendako

69. aldiz egingo dute gazte mailako ziklistendako igoera. Era berean, Mendiko kriteriumerako lehen etapa izango da.
Roke Azkunen, 16:00etan.

ARRASATE Gospel doinuak

Cada Dia En Su Presencia koru nafarrak egingo du emanaldia, Arrasateko Zentro Kristau Bataiatzaileak gonbidatuta.
Itxaropenaren doinua delako ikuskizuna egingo dute.
Biteri plazan, 19:30ean.

DOMEKA 22

OÑATI EspeleoArrikruz

18 urtetik gorakoendako irteera berezia. Plazak mugatuak dira eta izen-ematea beharrezkoa: 943-08 20 00 telefonoan edo arrikruz@onati.eus helbidean.
Arrikruzten, 09:30ean.

BERGARA Txistulari bandaren kalejira

Santa Marinako jaien aitzakian egingo dute kontzertua.
Santa Marinan, 11:00etan.

OÑATI Madalenako jaiak

12:00etan, meza eta ostean, luntxa; 13:00etan, pilota txapelketako finala; 13:30ean, herri kirolen erakustaldia; eta 18:00etan, *Supituki* inprobisazio saioa.
Santxolopeztegi auzoan.

ARRASATE Maalako jaiak

12:30ean, meza; 13:00etan, herriko txistulariek girotutako txikiteoa; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, bazkalosteko jolasak eta txokolate-jana; 21:30ean, dantzaldia; eta 23:00etan, suzko erruberak.
Maala kalean.

BERGARA Santa Marina jaiak

13:00etan, Kubako musika tradizionalaren kantaldia Son Pa Bailar taldearekin; 16:30ean, dardo txapelketa eta apar festa; eta 18:30ean, kukainak.
Santa Marinan.

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parroquia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan.

ARETXABALETA Dantzaldia AZ Gaubelak taldearekin

Gorputzak astintzera joan gura duten herritar guztiendako.
Komentuko lorategian, 18:00etan.

ASTELEHENA 23

OÑATI Pilota txapelketa

Herriko txapelketako partiduak jokatu dituzte.
Plazako pilotalekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Ganuzako paper margotuak ezagutzeko aukera

XIX. mende hasierako paperak ezagutzeko, ordubeteko bisita egingo dute.
Ibarraundi museoan, 18:00etan.

ARETXABALETA Pintura ikastarokoaren erakusteta

Ainhua Caberoren ikasleen bilduma, hilaren 27ra arte.
Arkupen, 18:00etan.



MIREIA BIKUÑA

OÑATI Ingeles kaligrafia tailerra

EHUko *Letraz* diseinu grafikoko ikerketa taldeak eta Arantzazu Gaur Fundazioak antolatuta, IV. kaligrafia jardunaldiak egingo dituzte. Aurten, ingelesezko kaligrafia aztertuko dute. *Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapata, Gandiaga topagunean, 16:00etan.*

MARTITZENA 24**OÑATI Donostiako hondartzara irteera**

Topalekuko erabiltzaileendako, hango begiraleen laguntzarekin. *Postetxeko geltokian, 09:00etan.*

OÑATI Usakora irteera

Kuboko erabiltzaileendako, hango begiraleen laguntzarekin. *Kubotik, 16:00etan.*

DEBAGOIENA Plastiko bilketa

Bilketa 17:00etan hasiko dute, herri bakoitzean zehaztutako puntuetan. Baserriko plastiko zuriak eta beltzak batuko dituzte. *Herri bakoitzeko bilketa puntuan.*

BERGARA Basalگو auzoko jaiak

18:30ean, kanpai jotzea eta etxafuego jaurtiketa eta ostean, txopoa jasoko dute. *Basalgon.*

ARRASATE Dantza emanaldia

Beltfasteko Trim The Velvet dantza taldearen emanaldi ikusgarria izango da. Debalde. *Monterron parkean, 22:30ean.*

EGUAZTENA 25**BERGARA Basalگو auzoan, Santiago jaiak**

12:00etan, meza eta ostean, luntxa eta jolasak; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan, mus txapelketa. *Basalgon.*

OÑATI Bisita gidatuak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera bikoitza: 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez eman behar da izena, 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan.*

BERGARA 'Bergarako kirolaren historia' erakusketa

Argazkien bidez egin dute errepassoa. Ikusgai dago Agorrosin kirolgunearen sarreran, hilaren 28ra arte. *Agorrosinen.*

OÑATI Lindsay Beaver

Kanadako abeslariaren kontzertua. Bateria zutik jotzen duen musikaria da. Rock-and-roll, soul, punk eta blues doinuetan maisua da Beaver. Klean egitasmoaren baitan egingo du kontzertua. Debalde. *Atzeko kalen, 19:00etan.*

EGUENA 26**OÑATI Garbigune ibiltaria**

Olio makinaren alboan, BM supermerkatuaren parean egongo dira materiala batzen. *Olakuan, 10:30ean.*

BERGARA Trim the Velvet eta Chanthaburi taldeak

44. Nazioarteko Folklore Jaialdiaren barruan, emanaldi bateratua egingo dute Irlandatik etorritako Trim the Velvet eta Thailandiako Chanthaburi taldeek. Debalde. *San Martin plazan, 19:00etan.*

EGUBAKOITZA 27**OÑATI Udaleku irekiak eta arte udalekuak: azken eguna**

Ospakizun eguna izango dute neska-mutikoeek, begiraleen laguntzarekin. *Merkatu plazan, 10:00etan.*

ARRASATE Wood String taldea

Arrasateko eta Aretxabaletako bost gaztek sortu zuten taldea, 2016an. Biolontxelo, bateria, baxu, gitarra elektriko, gitarra akustiko eta Paulen ahots urratuarekin, rock, pop eta country doinuak nahasten dituzte. *Euskal Herria plazan, 20:00etan.*

BERGARA Velma Powell & Bluedays taldea

John Lee Hooker mitikoaren bilobak blues eta soul doinuetan maisua dela erakutsiko du. *Blues to the bone* diskoa aurkeztuko du. Berumugako azken kontzertua. *Espoloiari, 22:00etan.*

ESKORIATZA Izaro Andres

Mallabiko bakarlariaren emanaldia, Errekan Gora jaialdiaren barruan. *EZaldibar plazan, 22:30ean.*

DEBAGOIENA Jardunaldi Gastronomikoak

Oñatiko Goiko Bentan, Arrasateko Hilarionen eta Santa Anan, Bergarako Lasan eta Elgetako Maialden entsalada bereziak eta hegaluzea jateko aukera egongo da. *Jatetxe horietan.*

ZINEMA**GASTEIZ****GORBEIA****Ant-Man y la avispa**

Egunero: 17:00, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:00, 20:00, 22:30.

El mejor verano de mi vida

Egunero: 16:30, 21:20, 22:30.

Campeones

Egunero: 18:30, 22:00.

Mamma mia! Una y otra vez

Egunero: 16:30, 17:30, 19:00, 20:00, 22:30.
Domeka: 12:15, 17:30, 20:00, 22:30.

Hotel Transilvania

Egunero: 16:30, 18:30, 20:00, 20:30.
Domeka: 11:45, 16:30, 18:30, 20:30.

Hereditary

Egunero: 22:25.

Jurassic world

Egunero: 17:20, 22:30.
Domeka: 11:45,

17:20, 22:30.

El rascacielos

Egunero: 17:30, 19:50, 22:30.

Luis y los alienigenas

Egunero: 16:45.
Domeka: 11:45, 16:45.

La primera purga

Egunero: 18:35, 20:35.

Barcos (euskaraz)

Egunero: 17:30.
Domeka: 12:00, 17:30.

Ocean's 8

Egunero: 20:00, 22:30.

La leyenda del chupacabras

Egunero: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.

Siberia

Egunero: 18:15, 20:25, 22:30.

BOULEVARD**Ocean's 8**

Egunero, martitzena eta eguna izan ezik: 20:30, 22:45.
Martitzena: 22:45.
Eguna: 16:00,

18:15, 20:30, 22:45.

Mamma mia! Una y otra vez

Egunero, martitzena izan ezik: 16:30, 18:50, 21:10, 23:30.
Martitzena: 21:10, 23:30.
Egunero: 17:15, 19:35, 21:55, 00:15.

Mamma mia! Una y otra vez (jatorrizko bertsioan)

Martitzena: 18:50.

Hotel Transilvania

Egunero: 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00.
Egunero, eguna izan ezik: 16:25, 18:30.

La primera purga

Egunero: 23:25.
Martitzena: 16:10, 18:15, 20:20.

La primera purga (jatorrizko bertsioan)

Martitzena: 22:25.

Jurassic world

Egunero: 16:05, 18:40, 21:25, 00:00.

Ant-Man y la avispa

Egunero, martitzena izan ezik: 16:00, 18:25, 20:50, 23:15.

Ant-Man y la avispa (jatorrizko bertsioan)

Martitzena: 20:50.

Hereditary

Egubakoitza eta zapatua: 00:00

El rascacielos

Egunero, martitzena izan ezik: 15:45, 17:55, 20:05, 22:15, 00:25.
Martitzena: 15:45, 17:55, 22:10.

El rascacielos (jatorrizko bertsioan)

Martitzena: 20:05.

El mejor verano de mi vida

Egunero: 16:35, 18:35, 20:35, 22:30.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

KRITIKA**La cámara de Claire ★★★★★**

Zuz.: Hong Sang-soo. **Herr.:** Hego Korea (2018). **Aktoreak:** Kim Him-hee, Isabelle Huppert, Chang Mi-hee. **Iraupena:** 70 minutu.

Argazkilari magikoa**ANTONIO ZABALA**

Hong San-soo ez da geldirik egoten. Urtean film bat baino gehiago egiten ditu. Orain estreinatuta berri den *La cámara de Claire* filmak zuzendariaren zigilu iheskor eta arina du. Filmaren iraupena 70 minutukoa da, eta denbora horretan lau pertsonaiaren arteko topaketak ikusiko ditugu. Zinema zuzendari bat, honen bikotekide film-banaketa enpresa bateko zuzendaria eta zuzendariarekin historia bat izan duen eta film-banaketa enpresan lan egiten duen neska. Hirurak Koreatik Canneseko Zinemaldira joan dira. Hiruren artean ondo argitu gabeko saltsa dago, eta, tartean, argazki-kamera batekin doan emakume frantziarra sartuko da.

Kasualitatez, edo agian ez, Isabelle Huppertek egiten duen pertsonaia maitagarri edo sorgin antzeko bat da, eta argazki-kamera makil magikoaren gisa erabiliko du, gauzak argitzeko edo nahasteko, batek daki.

Hong San-sook Cannesko zurrunbilotik eta *glamour*-etik ihes egiten du hiriko toki lasaigoak erakusteko. Zinema-munduko jendea izan arren, giro horretatik aterata daude. Zuzendariaren estiloa xumea da. Kamerak pertsonaiak euren elkarriketetan jarraitzen ditu. Denborako jauziak erabiltzen ditu istorioari tonu desberdin bat emateko. Claireren izaera bitxiak tonu magikoa eta eroa ematen diote pelikulari. Istorio txiki eta xarmagarri horri.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Bost zubi-bide

Kwai ibaiaren gaineko zubia, Portugaleteko zubi esekia, Golden Gate, Pont Neuf, historiaz betetako zubiak, guztiak esanahiz betetakoak eta bizitza eta heriotza, maitasun eta gorrotoen testigu.

Zubien irudia sinbologiaz beteta dagoela jakina da, zubiak eraikitzaileak dira, lotura ezin hobeak. Txikitatik ditudan irudietan ere *Zubiri zubiri, nunguari, nunguari* kanta-jolasa darabilkit oroitzapenetan, inkontzienteki zubiaren kontzeptua gure izanaren barru-barruan baitago.

Zubi-bideak zubien arrebak dira, neurritz handiagoak eta, batik bat, garraio eta ibilgailuentzat eraikiak. Gaur egun ditugun azpiegitura modernoetan ezinbesteko elementuak dira orografiaren kapritxoak gaingitzeko.

Oraintsu bukatu dugu Antzuola eta Bergara lotzen dituzten autobide berriaren bost zubi-bideen eraikuntza, Gipuzkoan egindako obrarik konplikatuenetakoa. Eurite, elurte, ekaitz eta eguraldi eskasa etsai izan ditugularik, geoteknikian izan daitezkeen ia arazo guztiei aurre eginez gizakiaren eraikitzailetasuna gailendu da. Hortxe daude Debagoieneko ikur izango diren bost zubi-bideak, giza kate baten beso sendoak irudikatzen dituzten lotura, konpromiso eta erronkaren adibide.

BUKATZEKO



Ttap aldizkariako zuzendari Monika Belastegi, aldizkariaren lehena zerbait bi edizioak erakusten. JAGOBA DOMINGO

'Ttap', aldizkari digital berria eta berritzailea

Eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ahal izango da 'Ttap', aldizkari multimedia berritzaile aberastua. Uztailaren 27an kaleratuko da zero zenbakia, eta bi edizio izango ditu: bat Bizkairako eta beste bat Gipuzkoarako

Miren Arregi ARRASATE

Datorren egubakoitzean, uztailaren 27an, euskarazko komunikabide digital berri eta berritzaile bat jaioko da. *Ttap* izena izango du, eta, irailetik aurrera, astero iritsiko da, doan, irakurleen poltsikoetara. Euskal Herriko eta Kataluniako hainbat hedabide dira aldizkari digitalaren bultzatzaileak: Goiena, Anboto (Du-

rangaldea), Baleike (Zumaia), Tokikom eta *Esguard* (Bartzelona). Egubakoitzero, bi edizio izango ditu *Ttap*-ek: bat Bizkairako eta beste bat Gipuzkoarako.

Digitala, multimedia eta gertukoa

Aldizkari digitala eta multimedia, eskuko telefonoetan eta tabletetan irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ahal izango da. Izan ere, "edukiak

hainbat formatu eta euskarritan landuko ditu, erabiltzaileari esperientzia atsegina eta interesgarria eskaintzeko. Hau da, testuekin batera, bideoak, audioak eta eduki interaktiboak egongo dira", azaldu du hedabide berritzaile horren zuzendari Monika Belastegik. Edukiari dagokionez, gertuko gaiak landuko ditu, modu azkar eta erosoan kontsumitzeko

moduan, baina eguneroko prestatik ihesi. "Batez ere, inguru urbanoan eta garraio publikoan kontsumitzeko egingo dugu, telefonoa aldean hemendik hara dabiltzan horientzat", dio Belastegik. Hamasei orrialde edo pantaila izango ditu eta ordu laurdenean irakurri ahal izango da. Edukietan sakondu nahi duenak beti izango du horretarako aukera, mimo handiz landutako audio eta bideo piezen bidez".

Kataluniakoekin elkarlanean

Ttap-en oinarria Kataluniako *Esguard* aldizkaria da. Hark sei urteko ibilbide oparoa du. "Publikoak oso ondo erantzun dio, han, formatu berri horri. *Esguard*-en azken urteetan pilatutako esperientzia *Ttap*-en baliatu nahian, elkarlanean oinarritutako proiektua jarri dugu martxan", azaldu du Belastegik.

Kolaboratzaile talde zabala

Kolaboratzaile zerrenda zabal eta plurala izango du: Sara Gandara, Xabi Paya, Ilaski Serrano, Juan Kruz Lakasta eta gehiago arduratuko dira asteroko elkarrikerketan nagusia gidatzeaz. Iritzi emaile lanetan arituko dira, bestetik, Izaro Andres, Pilar Kaltzada, Joseba Sarrionandia, Axi Muniain, Arantxa Urretabizkaia, F. Javier Arrieta eta beste asko.

Zelan deskargatu

Ttap aplikazioa laster egongo da eskuragarri *App Store*-n eta *Google Play*-n. Horretarako, helbide bat prestatu dute: www.labur.eus/ttap. Bestalde, www.ttap.eus webgunetik jaisteko aukera ere egongo da. Abuztuaren 31ra bitartean deskargatzen dutenak tableta baten zozketan sartuko dira.

RPS. 1751511G

MERKE ALDIA

gama altuko
2 mō
betaurreko
progresibo
199€
lehenengo prezioa: 229€

www.multipopticasgipuzkoa.com

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Konsumatzailearen zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan